

UPN eta HB kontra izango ditu Gabriel Urralburuk gaurko bozketan ere /6



Lurralde okupatuetako asentamenduak uzteko eskatuko diote Estatu Batuek Israeli /18



Almandoz, Askatuakeko lehendakaria: «Niretzat kontraesana da babes modu hau onartzea» /22


EUSKALDUNON Egunkaria

Larunbata, 1991ko abuztuak 10 / II. urtea / 210. zenbakia / Salneurria: 75 pta. / 4,5 libera


**KIROLA**

### Txirrindularirik onenak Donostiako Klasikan

Gaur goizeko hamaika t'erdietan abiatuko da Donostiako Txirrindulari Klasika. Partehartzaileek, munduko ziklistarik onenak, 238 kilometro egingo dituzte Gipuzkoan Donostiako Boulebarreko helmugara iritsi aurretik. **/ 20-21**

# Konponbidera heldu dira Diputazioa eta Lurraldea

## Autobideko Gipuzkoako trazaketa aldatzeko adostasuna lortu dute

Irurtzun-Andoain autobideko Gipuzkoako zatiaren trazaketa aldatu egingo da, Eli Galdos diputatu nagusiak eta Lurraldea koordinakundeko ordezkariek hitzartutako proposamena Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartzen badute. Bi aldeek kontsentsuatutako trazaketa berria, A-4 alternatiba, Foru Aldundiak lehen aztertu eta atzera bota zituenetakoa da. Trazaketa berri honek ere Leitzarango bailara ukitzen du, baina lauzpabost kilometrotan bakarrik. Batzar Nagusiek onetsitako proiektu ofizialak 11 kilometrotan zeharkatzen du Leitzaran.

Atzokoa «egun garrantzitsua» izan zela esatean bat etorri ziren Eli Galdos eta Jonan Fernandez, Lurraldeako bozeramalea, goizean egin zuten bilera eta gero egin zituzten prentsaurrekotan. Bileraren ondoren Batzar Nagusietako bozeramaleekin —HBkoa salbu— bildu zen Galdos, eta Jose Luis Elkoro HBkoa hartu zuen gero bere bulegoan.

Eli Galdosek «gipuzkoarren arreta zuen gatazka irtenbide demokratiko baten bidean» dagoela esan zuen, eta «Lurraldearen ahalegina» eta «adostasunera heltzeko borondatea» goraipatu zituen. Bere jarrerari dagokionez, «politikarien zeregina, bide demokratikoak erabiliz, gatazkak konpontzea» dela adierazi zuen Diputatu Nagusiak.

Atzoko aurreakordioak mugimendu sozialentzat duen garrantzia nabarmendu zuen Jonan Fernandezek, «urte hauetan defendatu dugun elkarrizketaren bidezko konponbidearen tesia bermatzen delako».

Lurraldea Koordinakundeak eta Gipuzkoako Diputazioak lortutako adostasuna oso positibotzat jo zuten Herri Batasunak eta Eusko Aalderdi Jeltzaleak. EAk aldiz, «irtenbide hau ETAren mehatxuari makurtzea» dela adierazi zuen. PSE-PSOEk ez zuen kontrako iritzirik agertu, eta aztertu beharra dagoela esan zuen. **/ 4-5**




**TRAZAKETA** berriak lauzpabost kilometrotan ukitzen du Leitzaran bailara (proiektu ofizialean baino 7 gutxiago) Tolosa aldera hurbiltzen da Berastegi eta Elduaiengo lurretatik barrena.

### Kroazia prest dago serbiarrekin negoziatzeko

Kroaziako Gobernua prest dago bertako gutxiengo serbiarrekin negoziaketak egiten hasteko, baina bere lurralde osotasuna zalantzan ipintzen ez den bitartean. Kroaziako lehendakariordeak atzo adierazi zuenez, «Kroaziak edozer gauza egingo du bakea lortzearren» eta serbiarrekin hitzegin behar bada hala egingo dute. Dena den, defentsarako ere prest daudela adierazi zuen lehendakariorde kroaziarrak. **/ 17**

### Bonba bat lehertu zen La Riojako gobernu egoitzan

La Riojako Gobernu autonomoaren egoitzan, Logroñon, bonba-pakete batek eztanda egin zuen atzo. Bi kilo amonal zituen lehergailuaren eztandak lau lagun zauritu zituen arin eta kezka bizia sortu zuten La Riojako Gobernu etxean, inoiz mehatxurik edo antzerako ekintzarik ez bait da izan bertan. Poliziak ez zuen argitu ez paketearen jatorria ezta norentzat zen ere. **/ 16**

### Gipuzkoarrak dira faboritoak Euskal Herriko traineru Txapelketan

Traineru gipuzkoarrak dira faboritoak gaur Donostian jokatuko den Euskal Herriko Txapelketan. Lehian ihardungo duten hamabi traineruen artean Pasai Donibane, San Pedro, Orio eta Arraun Lagunak dira alde handiz indartsuenak. Gipuzkoako Txapelketan Donostian gertatu zen bezala, itsasoaren egoerak zerikusia handia izan dezake azken emaitzan. **/ 21**

**ALDERDIEN JARRERAK**

EA: «Adostasunezko irtenbide hau ETAren mehatxuari makurtzea da. Paktuko alderdi guztientzat proiektu ofiziala zen onena. Horregatik onartu zen. Orain aldatu egin badute, Lurraldeak ETAren babesa duelako da»

«Itxaropentsua da lortutako adostasuna. Estukeria eten eta gizarte mugimenduen eragina nabarmendu da. Garaipen herrikoia izan da hau».

PNV: «Oso positiboki baloratzen dugu Lurraldearen jarrera aldaketa. Araxesetik Leitzaranera etorri dira. Oso positiboa da lortutako adostasuna».

«Garrantzitsua da alderdi guztien arteko adostasuna mantentzea. Proposamen berria aztertu egin behar da. Hildako gehiago ez dela izango esan nahi badu, baloratu beharra dago».

EE: «Autobidearena obra bat baino gehiago baldin bada, alderdiek adostasuna zaindu beharra daukagu. Alde bateko aldaketa hauek ez dute laguntzen adostasuna mantentzen».

Partido Popular: «Horrelako gaiak Batzar Nagusietan erabaki behar dira eta ez pasilloetan».

## Menpetasunak badia zentzuri?

GEXAN LANTZIRI



«EZ DAUKA zentzurik kataluniaren independentziak». CIU katalan alderdiko buruzagiaren ustez. Euskal Herriarenak ere ez, beraz. Bistakoa ezetz!. Espainol, frantses, aleman edo ingles Estatuenak aldiz, duda barik, baietz!.

Hots, Estatu armatuen askatasunak bai, baduela zentzurik. Eta askatasun hori armaz zaintzeko eskubiderik ere!. Gauza naturala, logikoa, zentzuzkoa ez, hori?. Nola ez, armada indartsu bat, polizia sare boteretsu bat, administraritza astun bat baitute beren independentzia zaintzeko. Eta egitura horien denen zuzenesgarri bezala, auzitegien sistema beren esku baitaukate.

Katalunian edo Euskal Herrian, gizartearen gehiengoa askatasunaren alde izaiteak ez du zentzurik. Gehiengo horren ikusmoldea ez da konda. Ez da demokratikoa. Separatista da!. Ekialdeko Errepublika multzo baten askatasun deklarapenak badu zentzurik. Sobietar diktaduraren menetik jalgi nahi dutelako, alabaina...

Madrilen eta Parisen Demokrazia dago. D haundi batekin. Beraz Demokrazia baten menean dagoen herriak ez du aske bizitzeko eskubiderik. Mitterrandek ez dia ba erran, duela zenbait aste, Herri TTipiek, Historiak finkatu dizkien mugen barnean behar dutela beren «identitatea» zaindu?. Gerlen bidez ezarri diren muga horiek ezin aldatuzkoak dira menperatzaileentzat!!

## 1990eko euskal liburugintza (eta 6)

JOAN MARI TORRELDAI



EUSKAL liburugintzaren atalak ikusi ditugu aurreko asteetan. Produkzioaren osasuna diagnostikatu nahian ibili gara. Aztertzeko gelditzen zaizkigu beste mila arazo. Beste nonbait eta noizbait aztertzeko utzi beharko ditugu.

Ikusi ditugunak ikusita, ondo goazela pentsatuko dute batzuk eta, beste batzuk, aldiz, gaizki gaudela.

Erraz konformatzen diren horiek gutxirekin konformatzen dira, nere ustetan. Zer zuzendurik asko bait dago hemen.

Konformagaitzen artean bada egoeraren erru guztia argitaratzaileei erraz leporatzen dienik. Errazegi. Ez dira denak erru gebeak, merkantilismotik asko bait dute batzuk. Baina tira.

Iruditzen zaidanez, argitaratzaileen jarrera ez da erabakiorra, halere. Hiztun komunitatean dago gakoa. Euskaldungoa guttiengoa izatea ez da errealitate estistiko soila, konportamentu-modu bat ere bada, jarrera bat, psikologia sozial bat. Eta hiztun komunitate hau egoera diglosikoan arras murgildua dago. Eta okerrena dena, egoeraren aldakuntza sinismena galdurik askotan.

Errealitate hori da aldatu behar dena. Horretarako, kultur politika, hizkuntz politika, liburu-politika ausartak markatu beharko dira. Bestela, jai dugu. Euskarak diskriminazio positiboa behar duela ukatzen edo/eta ahazten denean, hizkuntz burruka badagoela ukatzen denean... badakigu zer gertatzen zaigun: euskaldungoaren kaltetan beti. Euskal liburuarena ez dago besterik gabe konpontzerik, gainerako guztia bere horretan utzirik. Euskal liburuaren politikak, azken batean, politikara garamatza.

# HEMEROTEKA

## EL PAIS

### Kurduaren harrapaketa

Turkiak ezin du alde batera utzi, europarrentzat eragin negatiboa izango duela, bonbardaketa eta operazio militarrak gauzatzeak kurdu borrokalariak harrapatzeko. PKKk biolentzia erabiltzen duela alde batera utzita —erabateko gaitzespena merezi du—, sakoneko arazoa da errepresalia turkoak tindu indiskriminatuak hartu dituela herri baten aurka. Turkian 12 milioi kurdu bizi dira, nortasun kultural erabat berezituarekin, eta hori kontutan hartu beharra dago. Denbora askoan, politika turkoak uko egin dio errealitate horri eta traidoretzat jo du bere burua kurdotzat duen oro.

(...)

Orain, Sadam diktadore irakiarrak beharrezkoa duenean mugimendu nazionalista kurduekin negoziatzea, beren hizkuntza eta kultura eustea ahalbideratuko dien autonomia eskainita, ezin da ulertu Turkiak arazo horri soilik operazio militarrekin erantzutea. Talde armatuen ekintzekin amaitzeko, bidezkoena da populazio kurdutik isolatzea, horiek benetan aseko dituen politika liberal batekin. Egungo operazio militarren aurkakoa.

EDITORIALA / 1991-VIII-9




ZULET / DIARIO VASCO / 91-VIII-9

## EL DIARIO VASCO

### Diputazioa oker dabil

Saskibaloi talde bat laguntzaearen ahaleginaren truke, honek «Leitzarango Autobidea» lema eramatera behartzea, erabateko eta izugarrizko akatsa da. Hor Diputazioak goitik behera sartu du hanka. (...)

Benetan egoera zailean dagoen kluba erabiltzen ari da, politikoa baino ez den arrazoi baterako (kirolariek daramaten publizitate tradizionaletik urrun, beste muturrean); eta gainera, behartu egin die, aukera baten alde jartzera (gehiengoa edo ez, horrek ez du inporta). Uste dut Diputazioaren zentzugabeko jarrera horrek, ez diola batere mesederik egin Autobidearen kausa instituzionalari, eta hankapean pasa dituela pertsonen eskubideak, beraz, izugarri baldintzatu du beraien erabakitzeko ahalmena.

R.JIMENEZ ASENSIO / 1991-VIII-9

## EL SOL

### Etenik ez eta segi

Arazoa konplikatzeko, Mazedoniako Asanbladari, Jugoslaviako sei errepublikettik hegoaldekoenari, orain arte Lehendakaritzan Eslovenia eta Kroazia sezezionistekin aliatua, ez zaio gauza hobeagorik bururatu, datorren hilabetean bere etorkizuna erabakitzeko erreferendumerako deia egitea. Mazedoniak muga egiten du Greziarekin —horrentzat mazedoniarrak ez dira existitzen— eta Bulgariarekin —errepublika baten lurralde erreibindikatzen du, non bertako biztanleak arrotzak zaizkion kultura eta hizkuntzari dagokionean—. Jugoslaviako bi milioi mazedoniarrak independentziaren alde agertuko balira, zer trataera emango die auzokoek: alemanek bultzatutakoa kroaziar eta esloveniarrentzat ala turkoek bultzatutakoa kurduentzat? Gauden egunetan Jugoslavia frakasoa da. Gutxiagotu ditzagun kalteak konpromezua hartuz guztiz neutralak izatekoa, eskatu diguten bitartekotza diplomatikoaren barruan: horrek aurrera egingo du boterea dutenek lagundu nahi badute.

R.JIMENEZ ASENSIO / 1991-VIII-9

# ZUZENDARIARI

### Intsumisoak zahatu

Badirudi gobernuak atera berria duen legearekin, soldadutzak betidanik izan duen imagin ziztrin hori nolabait garbitu nahi duela, ume koxkor batek loiaz zikindutako aurpegia garbitzen duen modura.

Bere burua demokratatzat definitzen duen herrialde batentzat derrigorrezko soldadutza mantentzea, sistema hori kontsolidatzeko eman daiteken pausorik atzerakoiena delakoan nago.

Honen aurrean intsumisook atxiloketa instituzional hau salatu ez ezik, gobernuari koherenteki joka dezala ere eskatzen diogu. Gobernuak jokaera honen aurrean erantzun bakarra du:

*Intsumisoak zehatu; gaztigatu, zigortu.*

Gobernuaren erantzun hau, intsumisoak gizartearekiko «insolidarioak» geralaren premisan oinarritzen da, baina ez dugu uste gizarte bati eskeini diezaiokegun gauzarik ederrena soldadutzan ikasiko dugunik.

Armak nola erabiltzen diren ikasi nahi ez izanagatik espetxera joan ahal izatea, honako kontestu honetan bakarrik uler daiteke: «Militarren arrazoia da arrazoimenarekin bat ez datorren bakarra».

XABIER BALERDI IRAOLA
HERNANI

### Indurain, euskalduna

Indurain abizena, edo herri izena, bitan banatu behar dena da. Lehen zatia, Endura izen propioa, eta bigarrena -ain bukaera edo atzizkia. Bukaera hori daukaten herri edo toki izenak, ugari dira, bereziki Nafarroan: Urabain, Urdiain, Belaskoain, Domezain, Indurain, e.a.

Adituek diotenez, -ain bukaera edo atzizkia daukaten nafar-herriek, latinezko -anu«m» delakoan daukate iturri, Erromatar Inperioa ezarri zen beste lurralde batzuetan ere ba dute bizitzarik, eta «fundi» edo «agri» deritzotenak izendatzen zituzten; beti ere, lehen zatiak jaubea izendatuko luke. Kasurako, Domezainek, Domitius jaunarena dela esan nahiko luke, eta Indurainek, Endura jaunarena.

Indurain dagoen moduan, ba dira Andurain, Endurain, Underain, e.a., eta heurotaz hitz egiten du F: Yndurain jaunak, C. E. Coronaren Toponimia navarra en la Edad Media delakoaren hitzaurrean.

Hitz batez esteko, latin hizkuntzak ekarria eta denboraren iraganean Euskal Herrian euskaldundua litzateke Indurain izena.

ANGEL Z
BAKIO

# PERTSONAIA



## Patxi Zabaleta

Nafarroako parlamentuan
Sortu zaigu ikusmira
bi hautagaiak jarriak daude
Zabaletari begira
zure izarrak orain ote du
lehen ez zuen distira
HBk zenbat balio duan
Orain ohartuko dira

SEBASTIAN LIZASO


**Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:** MARTIN UGALDE
**Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:** JOAN MARI TORREALDAI
**Kontseilari Ordezkaria:** JOXE MIEL ZUMALABE
**Gerentea:** INMA GOMILA

**Zuzendaria:** PELLO ZUBIRIA
**Zuzendariordeak:** NEREA AZURMENDI, LUZIEN ETXEZAHARRETA, IÑAKI URIA
**Publizitatea:** KORNELIO ROTETA

EUSKALDUNON Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

**HELBIDEAK**
**Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa:** Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
**Erredakzio eta Tailerra:** ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
**Araba:** San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
**Nafarroa:** Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77
**Bizkaia:** Barroeta Aldamar, 2-1.eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
**Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa:** 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11

# Hizkuntza eta Testamentua (Lege-Proiektu baten inguruan)

DUELA gutxi jaso du Madrileko Parlamentuak (Gorte Orokorren Boletin Ofiziala —1991 maiatzak 31—) testamentu arloaren arauketa zati batean erreformatzeko Lege-Proiektua, Espainiako Kode Zibilean gai honi dagozkion zenbait artikuluren aldaketa ekar dezakeena.

Aho batez aldarrikatu du prentsak nola ezabatzen duen Lege-Proiektu honek lekukoen partehartzea notariaren aurreko testamentuetan. Ezabaketa hau ereforma honen punturik garrantzitsuena bezalaxe aurkeztua izan da, era honetan zabaltzen baita estatu osora aurretik Aragoan, Baleare Irletan eta Bizkaiko eta Arabako Foru Zuzenbidearen barnean (esaterako «Bizkaiko eta Arabako Foru Zuzenbide Zibilaren Presazko Egunerapenari Buruzko Legearen Proposamena» delako testuan) nabaritu den jokaera, alegia, testamentu moeta honetan lekukoen parte hartzeko beharrik eza.

Baina Lege-Proiektu honetan bada ere zeresan ugari euskarari buruz, batez ere testu honek euskal hizkuntzarentzat ekartzen duen —edo ekar dezakeen— arauketa berriaren aldetik. Horixe da, izan ere, bazterrean utz ezin daitekeena, euskaldun edo euskaradun hiritar espainolaren eskubide linguistikoen arbuiaketan erori gabe.

Hiritar horrek, jakina denez, eskubide osoa du lehendik ere, bere testamentua euskaraz egin ahal izateko, Espainiako lurralde osoan zein Espainiak atzerrian dituen bulego diplomatiko eta kontsuletxeetan. Haatik, derrigorrezkoa zaio delako hiritar horri, testamentua eskuetsi behar duen notariak, ordezkari diplomatikoak edo kontsulak euskara ez dakienetan, bi interpretarien partehartzea, gazteleraz ere jasoa izan dadin testamentuaren edukina, dokumentua bi hizkuntzetan idazten delarik.

Hala eta guztiz ere, Espainian gertatu den «hizkuntz ofizialtasun» berriari esker, egingarriak lirateke, besterik gabe eta euskara ofizila den lurraldeetan, euskara hutsezko testamentu mota guztiak, notariaren aurrekoa ere barne. Gaztelerazko itzulpena beharrezkoa bada, arrazoia testamentua eskuetsi behar duen notariaran euskara jakite ezean datza eta ez, bistan dagoenez, hiritar euskaradunaren betebeharean. Itzulpenaren gastuak ere hiritar horren euskaradunaren betebeharrean. Itzulpenaren gastuak ere hiritar horren kontura balira, ukatu eta hautsi egingo litzateke benetako «elebitasun ofiziala»k eskatzen duen bi hizkuntzen arteko parekotasuna.

Lege-Proiektu berri honek, dena den, ez du diskriminazio hau gutxitu, areagotu baino. Izan ere, notariak ez badu ezagutzen testamentu egilearen hizkuntza (demagun euskara dela) testatzaileak (euskara ofiziala den lurraldeetan ere) interpretari bat aukeratu eta



honek hark adierazitakoaren itzulpena egin beharko du, notariak erabiltzen duen hizkuntza ofizialera (kasu gehienetan, ia guztietan gaur egun gaztelera hutsera) testamentua bi hizkuntzetan idatzia izan dadin. Berriro ere, notariaren «gaitasun» linguistikoaren menpean jartzen da euskararen erabilera, formula honekin gaztelerearen presentzia ziurtaturik baitago. Are gehiago, testu honetan ixilean gelditzen da interpretariaren gastuak noren kontura izango diren.

Lehen «gaztelera» zen derrigorrezkoa, orain «notariak erabiltzen duen hizkuntza ofiziala». «Zahagi berria, ardo zaharra». Salbuespen batzuk izan ezik, aurreneko kakotxen arteko bi esamoldeak sinonimotzat jo ditzakegu espantu handirik gabe.

Halare, bada Lege-Proiektu honetan eta euskarari dagokionez, beste xedapentxo bar ere, orain arte esandakoaz zerikusi handia duena. Badirudi Proiektu honen egilea ez dela kontet gelditu aurkituriko irtenbidearekin eta osagarri gisa edo, beste zerbait erantsi nahi izan dio aipatutakoari, honelako testamentuetan (hau da, bi hizkuntzez izkiriaturiko testamentuetan) zein izan den testamentu egilearen jatorrizko hizkuntza adierazteko obligazioa jarri baitu.

Ostera ere, Lege-Proiektuaren egilea motz gelditu dela esan behar. Horrelakorik ezartzekotan, hobe zuen hori asmatu duenak testamentu egilearen hizkuntzaz bururituriko testuari lehentasun osoa ematea, batipat interpretazio kontuetarako. Horrela gainera, argi gelditluko litzakete gaztelarazko itzulpenaren sentidurik eza, euskara ofiziala den lurradeetan bederen. Bestaldetik ere, irtenbide hau aspalditik du zilegitzat joa Auzitegi Konstituzionalak, eskritura publikoetan katalan hizkuntzaren erabilerari buruzko Epaian (1988 Apirilak 21).

Bukatzeko berbatxo bi notariak kasu hauetan bete dezakeen funtzioari buruz: zaila zaio edonori eta notariari ere bai ezagutzen ez duena erabiltzea. Euskara bere formazioan kontutan hartzen ez den bitartean, Lege-Proiektu honetan euskararekiko sor daitekeen arauketa Linguistikoa betezina izango da notariarentzat.

Azken finean, Lege-Proiektu honetan berriro ere bere eskubidean murrizten zaizkio hiritar euskaldunari. Honexegatik, Lege-Proiektu honen eztabaidatze prozesuan garrantzitsuak izango dira euskal parlamentarien pausoak. Hauek, besterik ez bada ere, zeresan franko eduki beharko lukete Lege-Proiektu honen aurrean, bere barnean testamentu egilearen hizkuntzari ematen zaion arauketa euskararen alde hobetu nahi bada behintzat.

ANDRES URRUTIA
NOTARIA

## BERRIAK ZIRI



**FELIX PONS**
Espainiako Diputatuen Kongresuko lehendakaria
DIARIO 16
1991-VIII-9

« Askotan badirudi errentagarritasun politikoa lor daitekeela Legebiltzarreko debateetatik kanpo»



**MIQUEL ROCA**
Kataluniako Convergencia Democratica alderdiko idazkari nagusia
LA VANGUARDIA
1991-VIII-9

« Espainiak, ez da batere ondo jokatzen ari, jarrera bat hartu beharra dauka Jugoslavia herri arifizialari buruz»



**BUA MONSINOREA**
Calahorra eta La Calzada-Logroñoko artzapezpikua
ABC
1991-VIII-9

« Gobernuaren aldetik, ateismo militante eta antikatolikoa dago hezkuntza munduan»



**MERCE SALA**
RENFEko lehendakaria»
EL MUNDO
1991-VIII-9

« Oporretaan jarraituko dut astelehena arte, «edonola ere, ez bait dut lehergailurik aurkituko trenbidean»

## ZAKILIXUT

© Olariagak



Irurtzun-Andoain autobidea

# Adostasuna Diputazioa eta Lurraldearen artean

## Adostutako trazaketa berria, A-4 alternatiba, Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie

**Jonan Fernandez, Lurraldearen bozeramaleak eta Eli Galdos, Gipuzkoko diputatu nagusiak puntu beretik eta hitz berekin hasi zuten bakoitzak bere aldetik eman zuen prentsaurrekoa: «gaurkoa oso egun garrantzitsua da». Hitzok Irurtzun-Andoain autobidearen gatazka konponbidean zegoelako ustetik sortu ziren.**

PELLO URZELAI / **DONOSTIA**

Konponbide horren giltza bi aldeek adostasuna lortzean zegoen. Bi aldeek oneritzitakoa Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartzen baldin badute, Irurtzun-Andoain autobideak Gipuzkoan aldaketa bat izango du bere trazaketan. Leitzaran bailara kaltetuta gerta ez dadin, proiektu ofiziala onartu aurretik aztertu ziren alternatibetako bat berreskuratu da, A-4 alternatiba deritzana, Belabietako gaina tunel baten bidez zeharkatzen duena.

Proiektu ofiazialak Leitzarango maldan zehar egiten baldin baditu Gizpuzkoako zatiko kilometrorik gehienak, A-4 alternatibak, berriz, Berastegiko aldea aukeratzen du. Trazaketa honek, oraindik ere, Leitzaran bailara ukitzen du. Proiektu ofizialean, atuobidearen 11 kilometro Leitzarandik igarotzen ziren bitartean, oraingo alternatiban 4 edo bost izango dira.

**EGUN MUGITUA ATZOKOA** Aste baten buruan zabaldutako aukera berri honek, momentu bat baino gehiago izan zituen atzo. Goizeko hamar t'erdietan, Eli Galdosek eta Lurraldeak —Jonan Fernandez eta Bittor Aierdi izan ziren atzo Diputazioko Jauregian— bigarren bilera hasi zuten. Honen bukaeran, hamabiak inguruan, Lurraldeako bozeramaleek adostasunaren lehenengo berria eman zuten Diputazioko gela polibalentean eskainitako prentsaurrekoan. Hamabi t'erdietan, Gipuzkoako diputatu nagusia batzardide taldeetako bozeramaleekin bildu zen. Alderdi guztietakoak zeuden, HBkoak izan ezik. HBko batzarkide taldeko bozeramalea, Jose Luis Elkoro, beste bilera bukatu ondoren hartu zuen bere bulegoan Eli Galdosek.

Alderdi ezberdinetako batzarkideek lehenengo inpresio eta balorazioak eskaini zituzten Jauregiko pasabideetan. Eta, azkenik, Eli Galdosek berak gertatutakoaren berri eman zuen prentsaurrekoan.

**GIZARTE OSOAREN GARAIPENA** Jonan Fernandez eta Eli Galdos atzoko egun «garrantzitsua» zela esatean bat etorri baziren ere, lortutako adostasuna baloratzean ñabardura ezberdinak adierazi zituzten.



Lurraldeako bozeramaleak Galdosekiko bileratik irtetean. C.V.



Eli Galdosek talde politikoen esku utzi du azken erabakia. C.V.

> ✓ Mugimendu sozialaren ikuspuntutik «oso garrantzitsua» zeritzon Fernandezek, «urte hauetan defendatu dugun elkarrizketaren bidezko konponbidearen tesia bermatzen delako».

«Joan zen asteleheneko bileran, gatazkaren alde guztiak aztertu ziren, eta trazaketa ezberdinen errepasoan sakondu egin zen, horretan sortu zen A-4 alternatiba», hasi zen kontatzen Jonan Fernadez. «Lurraldeak aztertu egin du eta ez ohizko asanbladа batean oneritzia eman zion atzo», adierazi zuen.

Lurraldearen ustez, «hurbiltze prozesu bat izan da, aurreakordioan amaitu dena» izan da. «Espero dugu elkarrizketa eta akordioaren filosofia hau Nafarroako zatian ere zabalduko dela», erantsi zuen.

Balorazioetan sartuta, «akordiorako gelditzen zen azken zirrikitua zen hau», esan zuen Lurraldeako bozeramaleak. Mugimendu sozialaren ikuspuntutik «oso garrantzitsua» zeritzon, «urte hauetan defendatu dugun elkarrizketaren bidezko konponbidearen tesia bermatzen delako». Fernandezen ustez, mugimendu sozialak «baliozko solaskidetzat» onartuak izan dira, «gure irizpidetako batzuk onartuak izan diren aldi berean». Lortutako adostasuna beste gatazka batzuentzat balio duelakoan dago Lurraldea.

Azken finean, Jonan Fernandezen esanetan, «bai mugimendu sozialak, bai instituzioak, bai gizarte osoa garaile atera dira». Batez ere gizartea, «kontsentsu hau gehien desiratzen zuena», gehitu zuen.

**AZKEN HITZA BATZAR NAGUSIEK** Trazeketa berriari buruz, «ikuspuntu ekologikotik ez da trazaketarik onena, baina ofiziala baino hobeagoa da», esan zuen Aierdik. «Trazaketarik onena Lurraldearen alternatiba dela pentsatzen dugu», argitu zuen. Trazaketaren abantailak, Lurraldearen ikuspuntutik, nagusiki bi arlokoak dira: bata ekologikoa, Leitzaran bailara tangentzialki zeharkatzen Leitzaranen parke natural oso bat egitea posiblea egiten bait du eta, bestea, territoriala, Tolosarako lotura hurbiltzen duelako.

> ✓ «Politikarien zeregina, bide demokratikoak erabiliz, gatazkak konpontzea da, hau da ni saiatu naizena, kontsentsuzko alternatiba posible baten hartzaile izatea», azaldu zuen diputatu nagusiak.

Eli Galdosek bere pozaren arrazoiak horrela azaldu zituen: «gipuzkoarren arreta zuen gatazka bat konponbidean dago, irtenbide demokratiko baten bidean». Ondoren, honako hau argi utzi zuen: «Batzar Nagusiek dute azken hitza». Eli Galdosek «Lurraldearen ahaleginak» eta «adostasunera heltzeko borondatea» goraipatu zituen Galdosek.

Bere ustez, kontsentsuatutako alternatiba «instituzionala» da, erakundeetan erabilitako aukeren artean bazegoelako.

Bere jarrerari dagokionez, «politikarien zeregina, bide demokratikoak erabiliz, gatazkak konpontzea da, hortan saiatu naiz ni, kontsentsuzko alternatiba posible baten hartzaile izatea», azaldu zuen diputatu nagusiak. «Hemen ez da ezer aldatu, proposamen bat jasotzeko prest izan gara, ez dago akordiorik, nik ezin dudalako ezer akordatu, diputatu nagusi bezala, Batzar Nagusietan onartzen den egunean zerbait esan ahal izango dut».



Eli Galdos Batzar Nagusietako batzarkide taldeetako bozeramaleekin bildu zen atzo. EFE

### Batzar Nagusiek onartu beharko dute proposamena

P.U. / **DONOSTIA**

Irurtzun-Andoain autobidearen proiektu ofizialaren trazaketa aldatzeko segi beharreko prozedura Batzar Nagusietan aurkeztuko den ez arauzko proposamen baten bidez beteko da.

Proposamen hori batzarkide talde batek aurkeztu behar du Batzar Nagusietan. Atzo inork ez zuen argitu zein taldek aurkeztuko duen porposamen hori, baina Galdos eta EAJko batzarkide taldeko bozeramalearen zeharkako adierazpenen arabera, EAJk berak ez duela egingo uler daiteke, eta, ondorioz, Herri Batasunak hartu beharko duela bere gain betekizun hori.

Proposamen honek Batzar Nagusietan izan dezakeen laguntza buruz, Eli Galdosek ez zekiela erantzun zuen.

Irurtzun-Andoain autobidea

# Iritzi desberdinak alderdien artean akordioa ezagutu ondoren

## EA eta EE aurka azaldu ziren, EAJ eta PSOEk berriz posibletzat jo zuten

**Alderdi politikoek iritzi desberdinak adierazi dituzte Eli Galdosek eta Lurraldeak proposatutako trazaketa berriaren aurrean. EA eta EEk, azken honek indar gutxigoz, kritikatu egin dute beren ustez «Diputazioaren iritzi aldaketa» izan dena. PSOE eta EAJk aukerak ikusten dizkiote proposatutako aldaketari.**

DONOSTIA

Claudio Saizar EAko batzarkide taldearen bozeramaleak erabaki larritzat jo zuen Galdosek eta Lurraldeako ordezkariak lortutako akordioa. «Errekonozitu behar da ETAk baldintzatzen dituela guztion borondatearen erabakiak» esan zuen Saizarrek. HBren partaidetza azpimarratu zuen EAko buruak, «HBk adarra jo digu azken sei urteotan. Sei urte eta lauzpabost hilabete izan direnez, adar jotzea askoz handiagoa da».

«Orain ulertzen dut Galdosek inbestiduran esandakoa, Xabier Albisturrek autobideaz zer uste zuen galdetu zionean. Galdosek esan zuen trazatua ez zuela ondo ezagutzen eta aldatua izan zitekeela. Hurrengo egunean, noski, trazatua ezin zela aldatu eta onena zela esan zuen. Ardanzak duela gutxi esan zuen, Diputazioak diseinatutako trazatua egingo zela. Roman Sodupek ingeniariari bisita egin zionean berdin esan zuen. Nik ulertzen ez dudana zera da, zer esango duten orain eskua galdu zuen eskoltak aldaketaren aurrean».

EAk alderdiaren barnean aztertu behar ditu orain trazatuaren aldaketaren arrazoi tekniko eta politikoak, azken erabakia hartu aurretik. «Orain egin duguna informazioa biltzea da. Organo konpetenteak bilduko dira azken erabakia hartu aurretik».

«Oso erabaki serioa da» Ajuria-Eneako hitzarmena haustea Claudio Saizarren ustez. «Guk ez dugu jokoan jarriko Paktutik aterako garen edo ez, beste alderdi batzuek hauteskundeen aurretik jokatzen egon ziren bezala.» Ajuria Eneako hitzarmenari buruzko edozein erabaki exekutiba nazionalak hartu behar du EAko bozeramalearen esanetan.

**EE: «ERAKUNDEEK ERABAKI BEHAR»** Patxi Baztarrika Batzar Nagusietako EEko bozeramaleak «Diputazioaren jarrera aldaketa» azpimarratu zuen. Edukia eta forma bereizi zituen Baztarrikak, «edukiari dagokionez, gu ados gaude aste honetan Ardanza lehendakariak egindako adierazpenekin». Batzar Nagusiak dira EEkoaren ustez «autobidea eta edozein gaiaren inguruan eztabaidatzeko eta erabakitzeko markoa».

«Formari dagokionez, astelehen honetatik gaur arte jarrera aldatu da autobidearen aurkako koordinadorarekiko. Bere garaian, alderdi demokratikoak ukatu egin ginen koordinadorarekin hitzegitera ETAren biolentziatik argi eta garbi bereizi arte, ETAk gatazkan sartzea gaitzesten ez zuen bitartean. Une honetan bi bilera egin dira koordinadorarekin gai honi buruz hitzegin eta eztabaidatzeko. Jarrera aldaketa egon da.»

Kontsentsuaren aldeko deia egin zuen Baztarrikak. «Kontsentsu demokratikoa kostata lortu zen. Gizartea bera kontsentsuarekin bat etorri zen Donostiako manifestazio jendetsuan isladatu zen bezala. Alderdi demokratikoek ezin dugu kontsentsu hori arriskuan jarri».

**ARAXESETIK LEITZARANERA PASATZEA** Martin Elizegi EAJko bozeramalearen esanetan iritzi aldaketa Lurraldea koordinadorearen eskutik etorri da. «Oso garrantzitsua da Lurraldea koordinadora Araxesetik Leitzaranera pasatzea, aurretik EE egin zuen moduan».

«Aldaketak oraingo proiektuaren % 40 ukituko duela ari gara hitzegiten, ez da proiektu berria».

Adostasuna zabaltzea zen EAJren helburua Elizegiren esanetan. «Kasu honetan kontsentsu hitzak berebiziko garrantzia du. Bilatzen ari garena dagoen kontsentsua handitzea da, hau lortzen bada pozik sentituko gara». Erabakia batzarkide taldean eztabaidatu eta ondoren alderdiara eramango du EAJk azken erabakia hartzeko Elizegik adierazi zuenez.

Ana Urtxuegia talde sozialistaren eledunak ere adostasuna ez haustearen deia egin zuen. Galdos eta Lurraldeak egindako akordioa «baloratu behar dugu, atentatu eta hilketa gehiago ez daudela esanahi badu behintzat».

«Alderdiaren exekutiba biltzen denean emango dugu gure eritzia gai honi buruz. Orainarteko proiektuaren aldeko bloke demokratikoa zegoen, gu beste proiektuaren aldekoak ginen, baina ulertzen genuenez elementu distortsionatzaileak zeudela, beharrezkoa ikusten genuen alderdi demokratiko guztiek proiektu ofiziala bultzatzea. Orain zenbait proposamen berri egiten dira eta guk aztertu behar ditugu. Guretzat garrantzitsua da kontsentsua ez haustea» azaldu zuen Lasarteko alkateak.



Joan den legegintzaldiko batzarkide taldeetako bozeramaleak lehen harria jarri zutenean. C. VILLAGRAN



Autobidearen lan eremua Berastegi aldean. C. VILLAGRAN

# Oliveri: «Trazaketa aldatu da 'Artapalok' exigitzen zuelako»

DONOSTIA

Gipuzkoako Diputazioa eta Lurraldeak lortutako adostasuna gogor kritikatu zuen alderdia Eusko Alkartasuna izan zen, hain zuzen ere, aurreko legegintzaldian Diputazioaren agintea bere esku zuen alderdiak. Oliverik atzo bertan adierazi zuenez, trazaketa aldatzeko akordioa «ETAren aurrean amore ematea da».

Are gehiago, Nafarroa eta Gipuzkoa arteko autobidaren proiektu ofiziala, Oliveriren esanetan, «ez da aldatu autobidea hobetzeko, baizik eta 'Artapalok' exigitzen zuelako».

Agiri baten bidez, Oliverik honako hau esan zuen: EAJk Eli Galdosi babesa ematen baldin badio «Francisco Mujika Garmendia euskal politikagintzaren buru jarriko du, ETAk hiltzen jarraitzen ez dezan neurririk onena bailitzan».

«Galdosek gehiengoaren printzipioa eta herri ordezkaritzarena hautsi egin ditu —gehitu zuen— eta ez dakigu hemendik aurrera 'Artapaloren' borondateak baldintzatuta egongo diren, zeini kontsultatu beharko zaion non, nola eta noiz hartu behar diren Diputazioaren erabakiak».

EAko idazkari nagusiaren ustez, Gipuzkoako diputatu nagusia «ETAren txantaiaren aurrean makurtu egin da eta trazaketa txarrago bat onartu du». Lurraldearekin lortutako adostasunak «deslegitimitzen» du Eli Galdos diputatu nagusi gisa, Oliveriren iritziz.

# Nafar Gobernuak Batzar Nagusien erabakiak errespetatuko ditu

IRUÑEA

Nafarroako Gobernuaren iritziz, «Gipuzkoako Diputazioak eta Lurraldea koordinadorak autobidearen inguruan iritsitako akordioak ez du Nafarroako zatian inolako eraginik». Prentsara bidalitako agirian esaten denez, Nafar Gobernuak ez du oraindik akordioaren testu osoa ezagutzen. «Hartutako erabakiak ez du Gipuzkoa eta Nafarroako autobide zatiak elkartzen diren puntuaren trazaketan aldaketarik suposatzen», Iruiñeako Gobernuaren esanetan.

Prentsa oharraren amaieran adierazten denez, «Nafarroako Gobernuak gai honen inguruan Gipuzkoako Batzar Nagusiek hartu dezaketen erabaki guztiak errespetatzeko asmoa du».

Lurraldea koordinakundeak gogoratu zuen atzo adostasuneko bi proposamena egin dizkiola Nafarroako Gobernuari, bata Irurtzun eta Lekunberri arteko zatiari buruz eta bestea Bi Ahizpetako pasabideari buruz.



Gorordok EAJren Plentziako asanblada biltzea lortu du. MIRIAM GARZIA

# Gorordok asteartean hitz egingo du Plentziako jeltzaleen aurrean

Z.Z. / **BILBO**

Plentziako EAJko udal exekutibak onartu egin zuen Jose Maria Gorordo Bilboko alkate ohiak eskatutako Asanblada, eta datorren asteartean gaueko zortziretarako ipini du eguna. Halere, bozketan exekutibak ez zuen aho batez onartu eskakizuna, gehiengoz baino.

Jesus Anasagasti Plentziako jeltzaleen exekutibako idazkariak garrantzia kendu zion asanbladari, eta ziurtatu zuen ez duela ezer erabakiko eta informaziorako bilera baino ez dela izango.

Anasagastik gaineratu zuen Gorordoren gaia ez dela garrantzitsua Plentziako EAJrentzat, eta gai hori «beste bat» baino ez dela izango. Izan ere, Bizkaiko herriko EAJko idazkariaren arabera, «zenbait gai garrantzitsu batu dira asanblada horren deia egitea ekarri dutenak», gehiago zehaztu ez bazuen ere.

Gorordok Plentziako Asanbladari deitzeko eskakizuna egin zion herri horretako EAJko lehendakariari, beraren aurkako espedientea zabaldua zegoela jakin zuenean, bazkideen aurrean defendatu ahal izateko. Bilboko alkate ohiak Arriola herriko epaile jeltzalearen jokabidea gaitzetsi zuen, espedientea Herrialdeko Epaitegiaren esku laga baino lehenago berari abisua eman behar ziolako.



Polizi italiarrak lehergailua aztertzen du robot baten laguntzaz. REUTER

# Indargabetuak espainiar bidai agentzietan jarritako bi bonba

**ERROMA**

Polizi italiarrak espainiar turismo agentzien aurka jarritako bi lehergailu indargabetu zituen atzo goizean Erroman, hiritar batzuen oharra jaso ondoren. Susmo guztien arabera ETA izan daiteke atentatu saio hauen egilea azken hilabeteetan espainiar interesen aurka Europan zehar hasitako kanpainaren barruan.

Lehergailu bat 'Ecuador' bidai agentziatik metro t'erdira zegoen jarrita motxila baten barnean. Bi polizik indargabetzea lortu zuten eztanda egin baino sei segundu lehenago. Motxilaren barnean Poliziak 200 gramo tritol, lau 'Kanping gas' bonbona eta lau pote aerosol aurkitu zituen, detonagailu eta tenporizagailu bati konektatuak. Bigarren lehergailua 'Melia' turismo agentziaren atean aurkitu zuen Poliziak, bidai poltsa baten barruan. Aurreko bonbaren antzekoa zen eta hamar minututan robot baten bidez indargabetu zuten. Falange Armada erakundeak, ETAren laguntza taldea bere esanetan, bere gain hartu zuen komunikatuan Milanoko Banco de Exterior de Españaren aurka jarritako lehergailuaren eztanda. Igandean zabaldutako komunikatu berdinean esaten zenez, ETAk, Espainiak Italian dituen interes ekonomikoen aurka ekiten jarraituko du. Maiatzaren amaieratik hamaika atentatu eta atentatu saio egin ditu ETAk Italian, zazpi Erroman, hiru Milanon eta bakarra Bolonian.

# PSOE-EA gobernuaren aukerek urriagoak dirudite bigarren bozketa egunean

## Gaurkoan ere UPN eta HB kontra izango ditu Urralburu sozialistak

**Gabriel Urralburu, PSOE eta EAko lehendakarigaiak, Nafarroako lehendakaritzari eusteko bigarren aukera izango du gaur. Aurrikuspenen arabera, Foru Parlamentuak bigarren aldiz errefusatuko du sozialista, UPN eta HBren botoekin.**

A.U. / **IRUÑEA**

PSOE eta Eusko Alkartasunak osaturiko koalizio gobernuak egunetik egunera aukera gutxiago dituela dirudi. Gabriel Urralburu sozialistak Nafarroako Gobernuko lehendakaritzari eusteko bigarren saioa egingo du gaur, eguerdiko ordu batean. Parlamentuko alderdi guztiek herenegungo bozketan emandako botoa aldatzeko asmorik azaldu ez dutenez, Urralburuk berriro huts egingo duela esan daiteke aldez aurretik.

Herri Batasunak «ateak oraindik zabalik» dituela adierazi zuen Patxi Zabaletak, baina, leitzarrak gogoratu zuen bezala, «bozketak lau dira». Jakina denez, Gabriel Urralburuk HBren abstentzioa behar du nahitaez eta talde abertzaleak bere jarrera negoziaketaren baldintzapean jarri du. Negoziaketarik ez dagoen bitartean, botoa ezezkoa izango dela argi utzi zuen HBk herenegungo eztabaidan.

Eztabaidan ikusi zenez, bi alderdien argudioak eta jarrerak aldaezinak dira. PSOE-HB negoziaketa guztiz baztertu ondoren, honako argudioak erabili zituen Urralburuk HBkoei zuzentzeko: bere programa UPNrena baino hobea dela nafarrentzat, eta bereziki euskaltzaleentzat, eta ona den gauza ez dela txar bihurtzen HBrekin ez negoziatzeagatik.



Urralburuk aukera urriak ditu Nafarroako lehendakaria izateko. JOXE

**TENTSIOAK GORA ETA BEHERA**

Patxi Zabaletak negoziaketa eskaeraren legitimitatea defendatu zuen, «gure botoak beste edozeinenak bezain jatorrak direlako». Aldi berean, PSOE-EA egitasmoa kritikatu zuen, aurrerakoia ez izateagatik eta euskararen inguruan aurkeztu diren neurriak bere iritziz ez direlako inolako lorpenak. Baina, gutzien gainetik, sozialisten «garantia falta» nabarmendu zuen leitzarrak.

Egunkari batek atzo argitaratu zuenez, HBren jarrerak tentsioak piztu ditu alderdi horren baitan. Informazio horren arabera, Patxi Zabaleta buru duen gutxiengoak nahiago du amore ematea eta abstenitzea, UPNren gobernua eragozteko.

UPNko lehendakarigai den Alliren ustez, tentsioak PSOEn daude. Eskuindarrak azaldu duenez, Urralburuk presioak jaso ditu Nafar Gobernuan karguak dituztenen aldetik HBrekin hitzegiteko. Badirudi, ordea, negoziaketaren aurkakoak nagusitu direla, Urralbururen inbestidura baino lehen HBrekin «hitzegitea» ontzat ematen bazen, orain elkarrizketa ere Parlamentuaren markora mugatu bait dute sozialistek.

# ETAk huts egin zuen Hondarribian kotxe bat lapurtzeko ahaleginean

**HONDARRIBIA**

Burua estalita zeramaten hiru ezezagunek huts egin zuten Hondarribian kotxe bat lapurtzen saiatu zirenean. ETAkide bezala identifikatu ziren hiru ezezagunek kotxe barruan zegoen bikotea zuhaitz batera lotzera zihoaztela, jabeak giltzak galdu zituen. Saiatu arren, ezin izan zuten 'Puentea' egiten eta ETAkideak ihes egin zuten, polizi iturriek Vasco Pressi esandakoaren arabera.

Gertakizuna ostegunean izan zen gaueko 11.30etan Hondarribiko faroaren inguruan. Burua estalita zeramaten hiru lagun bikote bat zegoen kotxera hurbildu ziren, eta armaz mehatxatu zituzten ETAkoak zirela esanez. Dirudienez, batek subfusila eta beste batek pistola zeramaten eskuan. Gertu dauden zuhaitz batzuetan katez lotu zituzten ETAkideek, baina bidean giltzak galdu zituen kotxearen jabeak. Komandokoek autoari 'puentea' egin nahi izan zioten baina huts egiterakoan alde egin zuten.

Ordu erdi pasa ondoren, bikoteak bere burua askatzea lortu zuen eta oinez joan zen. Une berean, ezezagun batek Sos-Deiak-era deitu zuen kotxe jabeen egoeraz ohartzeko. Erreskate taldea inguruetara iritsi zenerako bikotea aldegina zen.

Iturri polizialek uste dutenez, ETAk atentatua egiteko erabili nahi zuen kotxea. Azken egun hauetan erakunde armatuak sei kotxe lapurtu ditu Gipuzkoan helburu berdinekin, saio batzuk huts egin arren.

**FRANCISCO GIL HILOBIRATUA**

Atzo hilobiratu zuten Donostiako Polloeko hilerrian Francisco Gil Mendoza, Irungo atentatuan hildako gaztea. Tentsio handia nabari zen hilerrian bildutako senide eta lagunen artean. Hileta Hendaian ospatuko da ziurrenik senitartean, familiak hala erabaki duelako. Francisco Gilen familia aspaldi bizi da Hendaian, donostiarrak izan arren.

Francisco Gil atzo hil zen Irunen, burua estalia zeraman ezezagun bat bera eta anaia zeuden Urdanibia plazako aulkira gerturatu eta subfusil batez tirokatzen hasi zenean.

Francisco Gilek bi bala jaso zituen, bata buruan eta bestea bizkarrean. Alfredo Gil bere anaiak ihes egitea lortu zuen inolako zauririk gabe.

# Goardia Zibilak laugarren bonba bat lehetarazi zuen

**ZARAGOZA**

Goardia Zibileko Gedex taldeek Zaragoza-Madril trenbidean jarrita zegoen lehergailu bat lehertarazi dute. Lehergailua aipatutako trenbidearen 319,100 kilometroan zegoen, Alagon (Zaragoza) udalerriaren barne. ETAk mehatxatutakoaren artean dago Zaragoza-Madril linea.

Aragoiko Gobernu Ordezkaritzako Eferi adierazitakoaren arabera, Goardia Zibilak erdi lurperatutako pakete bat aurkitu zuen. Berehala, Gobernu Ordezkaritzak «segurtasun neurri guztiak» hartu zituen eta Renferi ohartarazi zion. Trenbide konpainiak trafikoa moztu zuen eta bidaiariak autobusez bidali. Gedexekoek eragindako eztandak ez zuen bidea kaltetu.

Atzokoa Espainiako trenbideetan eztanda egiten duen laugarren lehergailua da, ETAk 6 linea mehatxatu zituenetik.

*Intsumisioa*

# Goardia Zibilak Lezoko intsumiso bat detenitu zuen ostegun gauean Ibardingo mugan

## Intsumisoen kontrako azken atxiloketak salatu dituzte Kakitzat eta HBk

**Herenegun gauean intsumiso bat atxilotu zuen Goardia Zibilak Ibardingo mugan. Jose Mari Altzuguren 24 urteko lezotarrak Iruñera eraman zuten atzo eta Antsoaingo koartel militarrean giltzaperatu zuten. Azken atxiloketak direla eta, gobernuak intsumisoekiko daraman «politika errepresiboa» salatu dute talde desberdinek.**

**BILBO**

Egun berean intsumiso bi detenitu zituzten EAEn. Herenegun goizean, David Lorenzo Diaz intsumiso bilbotarra atxilotu zuen Poliziak. Atxilotua Indautxuko komisaldegira eraman zuten, eta han hatz markak hartu ondoren, Mungiako koartelean giltzaperatu zuen Polizia militarrak. Ordu batzuk geroago Jose Mari Altzuguren lezotarra atzeman zuten goardia zibilek Ibardinen. Beste gartzeleratze honekin hau lira jadanik egoera berdinean dauden Euskal Herriko gazteak.

Azken atxiloketa hauen bidez, «PSOE eta militarrek, derrigorrezko soldadutza arautuko duen lege berria inposatu nahi dute», Kakitzatek atzo igorritako oharrean salatu zuenez.




Gobernuak intsumisoekiko duen «politika errepresiboa» salatu du Kakitzatek.

Lege berriarekin, intsumisoen aurkako neurriak askoz gogorragoak direla ere azpimarratzen da, lege hori onartzekotan, intsumisoei ezarritako gartzela zigorra bi urte, lau hilabete eta egun batekoa izango bait da.

Gainera, erabaki guzti hauekin, intsumisoak gizartearen aurrean «kriminalizatzeko» gogoa ikusten du Kakitzatek Madrileko gobernuaren aldetik. «Gobernuko eledunen arabera, 'solidaritaterik gabeko gaizkileak' dira intsumisoak», azpimarratzen zuen oharrak.

Zigor hauen helburua intsumisoen jarrera itotzea da Kakitzaten arabera, hauek izan ditzaketen eskubide zibil guztiak ukatuz. «PSOE nahiz militarrek lortu nahi dutena, intsumisoei 'heriotz zibila' ezartzea da, hau da, dituzten eskubide zibilak kentzea», argudiatu zuen talde antimilitaristak.

**HB ERE ADOS** Bilboko Herri Batasunak ere bere elkartasuna adierazi dio atxilotua izan den David Lorenzo intsumiso gazteari, atzo argitara emandako agirian. HBren arabera, «intsumiso gazte hau, gobernu espainolak ohizkoa duen itxitasunaren eta jarrera militaristaren biktima izan da».

Honen aurrean, HBk udaleko eledunen bilera bat deituko duela iragarri du, David Lorenzo atxilotuaren aldeko proposamen desberdinak aurkezteko. Hauetatik lehenengoa intsumiso honen berehalako askatasunaren eskaera izango da, eta baita ere egoera berdinean dauden gazte guztiena.

### Kontzientzi eragozpena aukera legitimoa dela dio Apezpiku Kastrenseak

**IRUÑEA**

«Kontzientzi eragozpenaren aukera legitimoa da, eta beraz, bai gizarteak baita erakundeek ere errespetatu egin behar dute hori» adierazi zuen Jose Manuel Estepa Llaurens-ek, Espainiako Armadako Apezpiku Kastrenseak atzo Bilbon. Kontzientzi eragozpena Vaticanoko II Kontzilioak onartzen duela argi utzi zuen.

'Helduen Katekesia' hitzaldian hartu zuen parte Estepa Llaurensek atzo Iruñean. Nafarroako Unibertsitateak antolatutako Pastoralaren XXV Astea itxi zen hitzaldi honekin. Hala ere, bere mugen legitimitatea gainditu kontzientzi eragozpena gizarteari inposatzearen aurka azaldu zen.

Kontzientzi eragozpenaren gaia erabat alboratu ondoren, katekesiari buruz ihardun zuen. Bere ustez, katekesiak Espainian erabateko erreforma behar du, haurrak katekizatzeaz gain, hogeitabost eta berrogei urte bitarteko helduak ere katekizatzea beharrezkoa delako.

### Lau lagun hilik ezbehar ezberdinen ondorioz atzo Euskal Herrian

**DONOSTIA**

Egun tamalgarria izan zen atzokoa Euskal Herrian, eguraldi txarrak eraginda edo, lau pertsona hil bait ziren ezbehar ezberdinen ondorioz. Kataluniako senar-emazte bikotea hil zen goizeko zortziak hamar gutxiagotan Ablitasen (Nafarroa) izandako auto istripuan. Autoak bide bazterreko poste bat jo zuen errepidetik irten eta gero. Ondorioz, Eloy Alvarez Fernandez berrogeitamar urtekoa eta bere emaztea Maria Angeles Cabo Corredera berrogeitasei urtekoa hil ziren; Hospitalet de Llobregat-ekoak ziren biak. Beraiekin zihoan hamabi urteko alabak zauri larriak zituen.

Goizeko zazpietan beste auto istripua izan zen Ordizian (Gipuzkoa). Pegaso kamioiak eta frantses matrikulako autoak elkarren kontra jo zuten, eta istripuaren ondorioz, Victor M. hogeitamar urteko auto frantseseko gidaria hil zen. Bere bi seme-alaba ttikiek zauri larriak zituzten, eta emaztea berriz, onik atera zen ezbeharetik.

Matiena eta Abadino (Bizkaia) artean, bestalde, Vicente G.F. hogei urteko bilbotarra hil zen, bera zihoan motoa kamio baten azpian sartu ondoren. Arratsaldeko ordu bata eta hamabi minutuan gertatu zen.

Legorretan (Gipuzkoa) azkenik, Michael Lambrou hemeretzi urteko alemaniarra hil zen. Trenean zihoan gaztea, eta trena Legorretako tunelera sartzean ez zen horretaz ohartu eta tunelaren kontra jo zuen.

*Unibertsitatea*

# EHUko Ikasle Kontseilua ere «paktu zabalaren» alde agertu da arazoak konpontzeko

**DONOSTIA**

EHUko Ikasle Kontseiluak «behar beharrezkotzat» jo du Unibertsitatean akordio «serioa» lortzea, arlo horretako sektore guztiek parte hartuko dutena. Ikasleen erakunde hau bat dator, beraz, Ignacio Etxebarria Euskal Herriko Unibertsitateko Kontseilu Sozialaren presidenteak azken egunotan esandakoekin.

Inaxio Oliveri, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailburua ere aukera honen alde agertu da Emilio Barbera errektoreak hauteskundeak egiteko asmoa azaldu eta bere burua ez zuela aurkeztuko adierazi eta gero.

Xabier Mendozak, EHUko Ikasle Kontseiluaren idazkariak, ez du egokitzat jo Barberaren dimisioa, baina geroago azaldu duenez, «irteerak ez dio kalte gehiagorik egingo Unibertsitateari».

Kontseilu honek ez du oraindik inolako baloraziorik egin errektoreak joan zen astean jakin eraziriko erabakiari buruz. Deliberamenduaren arabera, Barberak hauteskundeak eratuko ditu irail edo urrian EHUko errektoretzarako eta ez da hautagai izango bozketa hauetan.



EHUko arazoak konpontzeko kontsentsu zabalaren alde dago Ikasle Kontseilua.

Gai honi irailean egingo duen batzarrean ekingo dio Kontseiluak.

Unibertsital hitzarmenaz erabat konforme agertu da Mendoza. «Unibertsitatean inoiz baino garrantzitsuagoa da gaur egun akordio hau. Kontua ez da errektorea ona ala txarra izatea; egiturek funtzionatzea baizik, eta horretarako ezinbestekoa da bere inguruan ahalik eta kontsentsurik zabalena izatea» eman du aditzera.

Ikasle Kontseilua, bestalde, Juan San Martin EAEko Arartekoarekin mintzatu da ekainean azterketak egin ezin izan zituzten ikasleen eskubideak defenda ditzan Unibertsitateko arduradunekin hitzeginez.

### Jaurlaritzak 'Martorell informea' inposatu nahi duela salatu du Bizkaiko CCOOek

**BILBO**

Osasun publikoko errekurtsoak gaizki kudeatu direla salatu du Bizkaiko CCOO sindikatuaren Osasun Langileen Federazioak. Beren ustez, Euskal Autonomi Elkartean 'Martorell Batzordearen' proposamenak inposatzen ari dira bitarteko sozialei galdetu gabe eta inolako azterketarik egin gabe.

Batzorde honek aurkeztutako proposamenen aurka dago CCOO sindikatuko Osasun Langileen Federazioa, «osasun publikoko errekurtsoak hobeto banatzearren moderazio bat eskatzeaz gain, zerbitzu askoren pribatizazioa proposatzen duelako 'Martorell Informeak'». Informea Espainiako Diputatu Kongresuak agindu zuen joan zen urtean lurralde honetako osasun egoera aztertu eta krisiari aurre egiteko moduak erabakitzeko.

Sindikatuak azpimarratu duenaren arabera, bitarteko eta tresnen kudeaketa txarra zor publikoaren ondorioa izanik, pertsonal publikoak betetzen ez dituen zereginak egiteko enpresa pribatuak kontratatzea, ez da irtenbiderik egokiena. Gastuak bikoiztu besterik ez dira egiten honela, CCOOen aburuz, eta gainera, etekinak eskuratzen dituena enpresa pribatua dela salatu du. Enpresa publikoak ordea, bide honi eutsiz gero, ez duela zerbitzu berririk lortuko salatu du CCOOek.

Sindikatu horren arabera, kargu publikoak beraiei dagokien lana egiteko gai ez direla esan nahiko luke gestioaren pribatizatzeak. Diru publikoaren gestio hobea ekarriko luketen ezkutuko arrazoi ekonomikoak egonik, ulergarria litzateke neurri hau CCOOen ustez, zerbitzu publikoen hobekuntza ekarriko ez badute ere.

*Ingurugiroa*

# Portu Sailak gezurtatu egin ditu EA eta HBk salatutakoak

I.E. / **BILBO**

Mundakako portuaren zabaltzeari buruz Eusko Alkartsuna eta Herri Batasuna alderdiek esandakoak, gezurtatu egin zituen Juan Jose Olabarria Eusko Jaurlaritzako Portu Saileko lehendakariak, gai horretaz atzo emandako prentsaurrekoan.

Izan ere, iragandako abuztuaren 6an, aurrez aipaturiko bi alderdiek, gogor salatu zuten Portu Sailak Mundakako porturako dituen egitasmoak. EA eta HBren arabera, proiektu honek Urdaibaiko biosferearen erreserbari hondamen nabaria ekarriko lioke, eta ez ditu bete horrelako kasuetan beharrezkoak diren zenbait biderapen.

Hauetako bat izango litzateke, beti ere aurreko bi alderdien iritziz, ingurugiroaren hondamen ikerketa. Gainera portua zabaltzea herritar gutxi batzuen onerako izango litzateke EA eta HBren ustez. Lan guzti hauen atzean Urdaibaiko erreserba 'Marbella' berri bat bihurtzeko asmoa egongo litzateke.

Olabarriak, aurrez esan bezala, atzera bota zituen EAk eta HBk egindako salaketa guztiak. Olabarriaren esanetan, salaketa hauek «gezurrezkoak» dira, eta «fede txarrez eginak» gainera. Portu Saileko lehendakariak azaldu zuenez, portuaren zabalkunderako egitasmoa Mundakako arrantzaleen kofradiak eta portuko erabiltzaileek eskatu ondoren egin zen, eta «sail honen eginbeharra da eskaera horiek betetzea».

Horrela, obra hauek Urdaibaiko biosfera erreserban egin dezaketen hondamena, gezurrezkoa zela adierazi zuen, «zati hori, inguru eraikigarrian bait dago kokatua». Ingurugiroan sortu dezakeen hondamenari buruz EA eta HBk eskatu duten ikerketa, legearen arabera bete beharrekoa ez dela errepikatu zuen behin eta berriz Portu Saileko lehendakariak. «Tontakeria izango litzateke aurrez legeak onartzen duela dakigun zerbait berriro lege horietara eramatea» gaineratu zuen.

# Goizuetak eta Ereñotzuk Urumea garbiaren aldeko martxa egingo dute bihar

## Udan eskualde horretan pilatzen den zabor meta salatu nahi dute horrela

**Bihar igandea ibilaldi bat egingo da Urumea garbiaren alde, uda partean eskualde horretan izaten den zabor pilaketa salatzeko. Eguerdiko hamabietan Goizueta eta Ereñotzutik —Hernani— irtengo diren talde bik Urumea ibaiaren errekurtsoen babes eta ordenamendua aldarrikatuko dute.**

**DONOSTIA**



Bisitariek zabor eta hondakinak uzten dituzte Urumea inguruetan.

Ibilaldia Hernaniko Eguzki taldeak, Ereñotzuko Olak auzo elkarteak, eta Goizueta eta Aranoko gazteek antolatu dute. Ekintza hau pasa den urtean ere eratu zen bertako zein kanpoko jendea ingurune honen egoeraz ohartarazteko.

Uda sasoian jende asko hurbiltzen da Urumea inguruetara eguzkia hartu eta ibaiko uretan murgilduz freskatzera. Honek kalteak eragiten dizkio alde horri kasu askotan, bertako talde ekologista eta hiritarren iritziz. Kolektibo hauek «kezkaturik» azaldu dira behin eta berriz «turismo mota honek gure ibaian eragiten dituen ondorioak direla eta». Honi buru egiteko, «neurri batzuk» hartu behar izan dituzte ibaia eta inguruak zaintzeko.

Urumea garbiaren alde iharduten duten pertsona hauek bi arlotan ekin diote lanari. Batetik, erakundeetara jo dute, Hernani, Goizueta eta Aranoko udalei arazo hauei «behar bezalako irtenbide eta konponbideak» bilatzeko eskatu bait diete. Hau «Urumearen errekurtso eta erabilera moten plana edo arautegia» izango litzateke talde hauen esanetan.

> ✓ Ekintza hau iaz ere antolatu zen bertako zein kanpoko jendea Urumea eta inguruko egoeraz ohartarazteko.

Beste alde batetik, «arazo honetaz kontzientziatzeko eta nork bere laguntza emateko» eskatu diete bertaratzen diren lagunei eta hiritarrei oro har. Gainera aholku batzuk egin dizkiete «Urumea erabiltzen dutenei».

Zaborrak bertan ez uztea, «baldin eta horretarako ontzi egokirik ez balego»; surik ez piztea, «sute arriskua bait dago eta gainera galerazia» eta kotxeak eta uretan ez garbitzea dira abiapuntuak Urumea txukun egondadin.

Trafikoari dagozkion aholkuak ere jakin erazi dituzte taldeok, poliki gidatzeko eskatuz. Autoak egokiro aparkatzea ere komenigarria dela azpimarratu dute, «kalean ezin bait dugu nonahi utzi».




Bertakoek ez dute nahi ibaia zabortegia bihurtzerik.

> ✓ Talde hauek «behar bezalako irtenbide eta konponbideak» bilatzeko eskatu die Goizueta, Hernani eta Aranoko udalei.

# HILDAKOAK

## BIZKAIA

### BILBO
**Mercedes Martin Gomez**, 80 urte.
**Ricardo Santander Revilla**, 67 urte.
**Isabel Elorz Rekalde.**
**Begoña Antepara Rigotti.**
**Maria Unzueta Agirrezabala.**
**Mercedes Vila Mercader**, 72 urte.

### AREATZA
**Maria Nieves Aranguren Goikuria**, 63 urte.

### GERNIKA
**Patxiko Olano Txakartegi**, 70 urte.

### GUENES
**Esteban Fernandez Hurtado**, 78 urte.

### KARRANTZA
**Gregoria Dehesa Santisteban**, 71 urte.

### SESTAO
**Esteban Fernandez Hurtado**, 78 urte.

## GIPUZKOA

### DONOSTIA
**Jesusa Bueno Caballero**, 84 urte.
**Maria Teresa Inza Martinez de Falcon**, 40 urte.
**Maria Paz Pagola Aramendia**, 73 urte.
**Julia Martin Blasco**, 74 urte.
**Carmen Elosegi Lizariturri**, 91 urte.
**Jose Ignacio de Olazabal y Bordiu.**

### ASTIGARRAGA
**Jose Joaquin Ollo Lujanbio**, 60 urte.

### AZPEITIA
**Plaxi Aranberri Iribar**, 20 urte.

### BILLABONA
**Jesus Garcia Saez de Asteasu**, 80 urte.

### ERMUA
**Miguel Gil Esparza**, 64 urte.

### HONDARRIBIA
**Trinidad Egaña Gallastegi**, 95 urte.

### IBARRA
**Iñaki Maiza Lete**, 21 urte.

### ONDARROA
**Maria Irusta Zabala**, 83 urte.

### OÑATI
**Jose Irizar Guridi**, 70 urte.

### PASAI ANTXO
**Angel Gaiton Diaz de Zerio**, 61 urte.

### ZUMAIA
**Pilar Abarcal Frauca.**

## ARABA

### GASTEIZ
**Fernando Martinez de la Hidalga Martinez de Albeniz**, 90 urte.
**Jesus Saez de Burangi Bergara**, 71 urte.
**Jaime Gorospe Saez de Camara**, 49 urte.

### DULANTZI
**Fermin Saez de Camara Ortiz de Zarate**, 68 urte.

## NAFARROA

### IRUÑEA
**Jose Luis Sanz Sanchez**, 54 urte.

### AGOITZ
**Cirila Orbaiz Iribarren**, 91 urte.

### AÑORBE
**Maria Jaurrieta Zabalegi**, 77 urte.

### AZAGRA
**Laura Diaz Regaira**, 70 urte.
**Rosinda Barasoain Berisa**, 86 urte.

## LAPURDI

### ANGELU
**Henri Lagiscarde.**

### HIRIBURU
**Adéle Perez Crespo**, 82 urte.

### LARRESORO
**Victor Laulhé**, 71 urte.

## NAFARROA BEHEREA

### DONAMARTIRI
**Jean Louis Castet**, 63 urte.

**ESKELAK HARTZEN DIRA: ARRATSALDEKO 4ak ARTE: (943) 46 90 22 4etatik 7etara: (943) 37 15 45**

BENEDICTA GANGOITI URUBURU

(Juan Etxebarria Ibarretxeren alarguna)

**Arañegun il zan, 92 urte ebazala**

Aren semea, Jose Luis; Ezkon alaba, Asuntxu Aranzabal (Luis Marian alarguna), M. Angeles Zamakona (Julion alarguna) eta Jone Aizpuru; Neba, Pedro; Illobak, Jon, Itziar, Txabi eta Imanol Etxebarria Aranzabal; Miren, Aitor, Jabier eta Ivonne Etxebarria Zamakona; eta Izaskun, Nerea, Asier eta Ibon Etxebarria Aizpuru; Ezkon neba arrebak, lobak, billobak eta senditarteko guztiak.

ESKATU EGITEN DABE beren adiskide guztiei otoi bat bere arimaren alde eta etorteko, GAUR 10, arratsaldeko zazpietan egingo dan illetara, LEKEITIOKO AMA JASOKUNDEAREN ELIZ NAGUSIAN.

AURREZ, ESKERRIK ASKO.

*Ingurugiroa*

## Eztabaida biziak gaur Bunuzen ingurugiroaz

L.E. / **BUNUZE**

Hartza eta Somporteko tunela eztabaidagai bizi izango dira gaur Bunuzeko Intxausetan egingo den 'Naturaren Festan'. Pirinioko Parke Nazionaleko hartzak eta Somporteko tunelak piztu 'gerraren' partaideek mahaingurutan aurkituko dute elkar. Informazio zehatz eta gogoeta alderdikariek orain arte nahasi duten egoera, une honetan larri dago.

11.00etan Hartzaren gaia aipatuko da. Honen salbatzeko arazoaren atzean dago Parke Nazionalari kendu zaion 'Europako Labela' eta eskualdeko hautetsien haserrea. Berrikitan Bielleko auzapezak, herriko artaldeak erasotzen dituen hartza hiltzea aipatu zuen. Jean Lassalle Kontseilaria eta Parkeko lehendakaria, Intxauspe diputatua RPRekoa eta Maitia PSekoa dira hizlari, animalia ikertzaile eta babesle diren Caussimon, Besson eta Raffinekin.

15.00etan Harrapariak aipatuko dira, eta bereziki gure eskualdeko saiak. Harraparietaz arduratzen den FIR erakunde publikotik Lecomte etorriko da eta Kurutxarri, Saiak elkartetik. Beraiekin Hardouin Izpuratarra eta Devisse Organbideska elkartekoa.

16.00etan Hondakin nuklearrak aipatuko dira, Angers diputatu ekologista, EDFeko ordezkari bat, eta Rufinoni Golfechen ikerketak egin dituenarekin.

17.00etan Lurralde antolakuntza, gaurko aktualitatearen bi adar nagusiekin zehaztuko da: Itsas Bazterren antolaketa eta Aspeko tunela eta trenbidearen arazoa. Abeberri Miarritzeko hautetsia, Destrade PSekoa, Colette Pince Pays Basque Ecologie elkartekoa, Lissar Berdeetakoa, Sarrailhet EMAkoa eta Bidart soziologoa mintzatuko dira. Bigarren lemarentzat SEPANSO Biarnokoa eta CRELOC trenbidearen aldeko elkartekoak hor dira DDE, Ekipamenduko Forgerie zuzendariarekin. Intxauspe diputatuak ere hor izan behar luke gai honen inguruan sortzen diren iritziak eztabaidatzeko.

Arratseko 9etan musikaldia izanen da Gilles Servat Bretainiako kantariarekin eta Michel Portal Jazzlari famatuarekin. Ekitaldi hau parada ezin aproposagoa izanen da, noski, gogoeten zabaltzeko. Arratsaldeko mahai inguruek, bestela bada ere, segida izanen dute gaueko musika saio hauetan.

# Iruñeko Alde Zaharreko Auzo Elkartearen lokala arriskuan dago

### Egoitza biharko hustutzeko eskatu dio Udalak erakunde honi

**Iruñeko Alde Zaharreko Auzo Elkartea lokalik gabe geldi daiteke Udalarekin akordio batera heltzen ez bada. Nafarroako hiriburuko elkarterik zaharrenak, horrela, etenaldia izango zuen bere historia luzean, hori ekiditeko modu franko baldin badago ere.**

A. BARANDARAN / **IRUÑEA**



**Auzo Elkarteak beste lokal bat nahi du berea botatzearen truke.** JOXE

Alde Zaharreko Auzo Elkartearen oraingo lokala, Jarauta kalean dagoena, bota beharrekoa da Iruñeko Plangintza Orokorraren arabera, eta Udalak iganderako hutsik egon behar duela adierazi zion joan den astean Auzo Elkarteari. Hala ere, Udalak ez dio inolako alternatibarik eskaini beste lokal bat bermatzeko, eta Elkartekoek errekurtsoa aurkeztu diote Udalari, epe hau luzatzearren.

Atzo adierazi zutenez, lokal zaharra botatzearen alde daude, «bere egoera kontutan hartu ondoren», baina beste lokal bat lortzeko eskaerei Udalak «ez entzutearena» egin ziela salatu zuten. Elkarteak lokal bat ordaintzeko baliabiderik ez du, baina Alde Zaharrean, azaldu zutenez, badaude aprobetxagarriak izan daitezken etxe asko.

Elkarteak zinegotzi eta udal teknikariekin elkartu eta elkarrizketatu da, eta bere ordezkariek azaldu zutenez, «denak lokala lortzearen beharraz jabe dira». Hala ere, erabakia alkateak edo Maribel Beriain Hiritar Eragintza ordezko zinegotziak hartu behar dute, eta «askotan hitzegiteko eskaera luzatu badiegu ere» oraindik ez dutela erantzunik jaso azaldu zuten.

Hain zuzen ere, zenbait lokalak proposatu dituzte Auzo Elkartekoek, eta haien artean, OSCUSekoa egokienetakoa zela adierazi zuten, «%10 erabilera bait du gaur egun». Beren esanetan, lokal asko hutsik daude bertan, «baina sartuz gero, arautegiaren zenbait aldaketak egin beharko liratake, gure lokalak erabiltzen dituzten taldeen iharduerari egokitu ahal izateko».

## Golfeko lanetako zaindari bat tiroka hasi da Basusarrin

XAN GOENAGA / **BAIONA**

Kanbotik Baionarako bidean, Basusarriko golfa eraikitzen ari den gunera hurbildu zen auto baten kontra tiroka hasi zen zaindari bat abuztuaren 6tik 7rako gauean, goizeko ordu batean.

Ipar Euskal Herriko hainbat gune turistiko bezala, Basusarriko golfa gau eta egun zaintzen dute, eraikuntza lanetan ari diren enpresek ordainduriko begiraleek. Tiroka hasi dena, «Agence tous risques privés», berriki, uztailaren 22an Baionan muntatu zen begirantza enpresakoa da. Dirudienez, Ainziart azkaindar gazteak sortu enpresa horrek, ondasun garraioen zaintzeko agindua zuen baina ez tokien begiratzeko. Gau hartan beraz, zaindaria guztiz legez kanpo zegoen Basusarriko golfan.

Tirokatua izan zen autoaren bila dabil Polizia. Basusarriko golfa eraikitzen ari diren laneko tresnen aurka Iparretarrak taldeak jadanik bi atentatu burutu ditu. Begirantza enpresakoen iritziz, IK-koak liratekeen autoan ziren bi gizonak, poliziak aldiz ez du baztertzen, bidaiari arrunt batzuen aurka eraso egin zuenik zaindariak.

# Caribera bidaiatzea dute gustokoena nafarrek

**IRUÑEA**

Atzerrira bidaiatzeko orduan Caribera joatea eskatzen dute nafar gehienek. Santo Domingo eta Cancun (Mexico) dira nafarrek gustokoenak dituzten herrialdeak Iruñeko bidaia agentzia askotako arduradunek adierazi dutenez.

Florida, Thailandia, Mexico, Brasil, Caracas, Jamaica eta Europa erdialdeko herriak ere atseginak dira nafarrentzat. Espainiara bidaiatzeko orduan, Canarias eta Baleares irlak eta Costa Dorada-ra bideratu dira aurten. Penintsula Iberiarrean barrena, hotel plazaren bat hutsik aurkitzen zaila da Kantauri itsas bazterreko herrietan. Zonalde honetako hotel arduradunen hitzetan «plazak betetzeko ez dago agentzietara jo beharrik. Bestela ere, plaza guztiak betetzen dira». Zonalde honetan dagoen hotel eskasian legoke horren arrazoia. Gutxi daudenez plaza guztiak betetzen dira, Espainiako garestienetakoak izan arren.

Ezkontza bidaian doazen gazteek jotzen dute batez ere, Santo Domingo eta Cancun-era. Bi herrialde hauetara joateko eskaria iaz hasi zen, orduantxe jarri bait ziren 'charter' hegaldiak eta, era berean, behera egin zuten prezioek. 140.000 eta 180.000 pezeta inguru balio du hamabost egunerako Caribera joateak. Hegazkina, luxozko hotela eta pentsio erdia sartzen dira prezioan.



**Eguzkia eta hondartza dute gustokoa nafarrek.**

## Iruñeko Udalak ez du AEKrekin zuen kontratua berrituko

A.B. / **IRUÑEA**

Iruñeko Udalak bere funtzionarioak euskalduntzeko AEKrekin zuen kontratua ez berritzeko erabakia hartu du, Santiago Cervera Zerbitzu Orokorretako ordezko zinegotziaren bidez. Horrela, bi erakundeen artean zegoen hiru urterako kontratuak ez du segidarik izango, eta hemendik aurrera, euskara ikasi nahi duten langileek Nafarroako Diputazioaren euskaltegian egingo dituzte ikasketak.

1989ko martxoaren zazpian sinatu zuten kontratua AEK-k eta Udalak, eta aurten zen bukatzekoa. Bertan, ehun bat langilek hartu dute parte azkeneko ikastaroan, egunero bi orduz. Udalak, kontratuaren arabera, ordu bat ordaintzen zien langileei, eta beste ordua ikasleek beraiek ordaindu behar zuten.

Ofizialki ez badu ezer ere jaso, AEK erakundeak horrelako erabakia har zezaketelako susmoa bazuen, baina oraindik ez du balorazioarik egin. Hala ere, Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundeak diru sarrera garrantzitsua galduko duela esan daiteke.

BILBOKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BILBAO

ASTEBURUKO IHARDUERAK

**Abuztuak 10, Larunbata**
12.30ean: MUSIKA
UDAL BANDAren
Kontzertua DEUSTON

**Abuztuak 11, Igandea**
Goizez: TXISTULARIEN
UDAL BANDA
URI ZAHARREAN
12.30ean: MUSIKA UDAL
BANDAren Kontzertua
Areatzako Kioskoan

**SAILEKO ORDEZKARIA**
**KULTURA ETA TURISMO SAILA**



GASTEIZEN

# Celedonek atsedena hartu du

Celedonek atsedena hartzea erabaki zuen bart, eta abuztuaren 4ean etorritako bidetik itzulbidea egin zuen goizeko ordubatean. Gasteiztarrek, Celedon bezalaxe nekatuta, ez zuten azken bidaitxoa galdu nahi izan, eta eguraldiaren oztopoa gaindituz, bete egin zuten Andramari Zuriaren enparantza. Txanpainak eta argiak lagundu zioten Celedoni atsedeneko bidaian, eta San Miguel elizako kanpandorrean ezkutatu zenean, Salbeak eman zion azken agurra urtea eta urtea etorri Andramari Zuriaren jaietan gertatu ohi den bezala.

Nekatuta baina azkeneko parranda egiteko txosnetara abiatu zen jendea, tabernariak ere guztiz nekatuta bait zeuden ordu horietarako. Txosnetako giro alaiak ikusita ez zirudien amaitzeko gogoak zeudenik. Hala eta guztiz ere, goiza heldu zenean kartoi, plastiko eta mekanotuboz eraikitako etxetxo hauek berehala desagertzen hasi ziren Floridako parketik.

Jadanik blusak ere gordeta daude. Edo garbigailuan hobe esanda. Bost egunetako izerdiak, kalimotxoak, gin-kasak, tomate tantakak eta talko hautsak desagertarazteko makina bat lan egin beharko dute askok eta askok, laster —360 egun barru— berriro ere janzteko.

Izan ere, atzo 'zikin eguna' ospatu zuten blusek. Egun osoan, eta batez ere zezenetarako joan-etorrian denetarik jaurti zioten inguruan zebilen edonori, eta noski euren buruei ere. Horrela ikusirik, batek ez zekien zein zen blusa eta zein ez. Ekintza hau ohitura bilakatzen ari da urteotan.

Gaur Jose Angel Cuerda alkateak baloratuko du aurtengo jaiek eman dutena. Celedonek San Migueleko dorrean atsedena hartzen duen bitartean udal agintariek pentsatu beharko dute zer egin daitekeen jai giroak aurrerantzean ahultzen jarrai ez dezan. Betidanik jaietako ardatza izan den blusa batzordea bitan zatitu da, eta batzuei zein besteei entzunda, ez dirudi konponbide erraza duenik. Ea bada atsedenak buruak lasaitu eta akordioa ekartzen digun.

Jaiak amaituta, Gasteizek ere atsedena hartuko du. Egun hauetan hain beteta egon diren erdigunekо kaleak auzoak bezain hutsik agertuko dira, eta horrela izango da berriro Forjas Alavesas eta Michelingo sirena hotsak jo arte.

Bitartean, batzuk Benidormeko hondartzara, eta beste zenbait Zestoako bainu etxera abiatuko dira. Andramari Zuriaren jaiekin nahikoa ez dutenek, Bilbon, Donostian eta Euskal Herriko beste hainbat lekutan parrandari ekiteko aukera izango dute, baina Gasteizen ikusitakoaren arabera Zestoak sekulako arrakasta izango duela ziur gaude. Hondar hori uzten dute besteak beste Euskal Herriko jaiek ●



OLALDE

Gasteiztarrek, Celedon bezalaxe nekaturik, ez zuten azken bidaiatxoa galdu nahi izan, eta eguraldiaren oztopoa gaindituz, bete egin zuten Andramari Zuriaren enparantza. Txanpainak eta argiek lagundu zioten Celedoni atsedeneko bidaian.

## 'Txapela' jantzita amaitu ziren Matxete plazako bertsoaldiak

Alde Zaharreko Matxete enparantza euskal txokoa bihurtu da Andramari Zuriaren jaietan. Bertan, trikitixa eta bertso saio paregabeak eskaini dituzte Gasteizko trikitixa eskolak eta Euskal Herriko bazter guztietatik etorritako bertsolariek. Atzo, Anbel Enbeita eta Ricardo Gonzalez de Durana 'Oreitiako urretxindorra' arabarraren txanda izan zen jaietako ekitaldiekin bukatzeko.

Jaia aprobetxatzea, eguraldia, Javier Rojo alkateorde sozialistaren soldata, ligatzeko gogoak eta biok arabarrak zirela —bertso botikan ere denetarik dagoela esan zuen Enbaitak— ekarri zuten gogora Gonzalez de Duranak eta Enbeitak, bertso saioei amaiera emateko.

Eta bukatu, txapelaz jantzita bukatu zen. Zeruko odeiek euria iragartzen zuten arratsaldeko ordu bata t'erdietan, eta udal arduradunek lekua estaltzea erabaki zuten. Toldo hori zegoela jakin balu Sebastian Lizasok, lasai asko erreko zukeen puroa sonbrilaz arduratu gabe, iragan abuztuaren 5eko ekitaldian.

Egunero, euskaltzale mordoa bildu dira Matxeteko enparantzan bertsolarien esanak arretaz jarraitzeko. Bertsolari belaunaldi berriak — laster 'beteranoen' parean izango direla erakutsi dute, eta entzuleak pozik atera dira, bertsoak entzuteaz gain ardo eta sagardoa edan eta txorizoa eta gazta dastatzeko aukera izan bait dute bertako txosnetan.

Aurten bertsolariak gizonezkoak izan dira eta emakume bertsolarien falta nabaritu dute bertsozale batzuek. «Arantzazu Loidi edo beste emakumeren bat falta izan da» zioen saiorik galdu ez duen batek. Loidi iaz izan genuen Matxeteko enparantzan, eta ez litzateke harritzekoa izango 'Olinpiadetako urtean' beste bueltatxo bat emango balu ●



Arabarren txanda atzo. OLALDE

## KRONIKA FRESKOA

✓ **GESALTZAKO BANDA & HERTZAINAK.** Josu Zabala jaunaren ideia izan omen zen, ostegun gauean Hertzainak taldeak eman zuen kontzertuan egin zutena. 'No Time For Love' kantaren musika Gesaltzako bandak jo zuen tronpeta, gaita eta honelako instrumentuen bidez. Gariren ahotsa zen Hertzainakekoek jarri zuten bakarra. Hantxe zegoen ere Jose Maria Bastida 'Txapinete' bandaren zuzendari. Publikoak harriduraren harriduraz hartu zuen, baina txalo ugariz saritu zuen xelebrekeria eder hura. Baliteke zuen herriko plazan folk eta rock batzen dituen mota honetako 'ikuskaria' ikusteko aukera izatea.

✓ **PLAZA BERRIKO AUZOKIDEEN HASERREA.** Hertzainak taldearen kontzertua bitartean, Plaza Berriko auzokide talde batek hango balkoi batera atera eta pankarta antzeko zerbait erakutsi zuen. Ikusleak ez ziren ohartu, arreta gunea talde gasteiztarraren musikan zegoelako, baina auzokideak haserre omen daude Plaza Berrian gauerdian egiten dituzten kontzertuengatik. Gari abeslariak hitz batzuk egin zituen inork ezagutzen ez zuen kontu honi buruz: «Barkamena eskatu behar diegu Plazako auzokideei, baina gu musikoak gara, eta Arabakoak garenez, kanta hau egingo dugu», esan zuen Garik azkeneko kantei ekin baino lehenagoko aurkezpenean.

✓ **DUTXAK, 39 PEZETA.** Gasteizko Correria kalean dagoen dutxa etxea oso ona eta garbia da, hona etorri eta etxerik gabe daudenen ustez. Bere artesania saltzera etorri den afrikar batek esan zuenez leku hauek egotea asko eskertzen dute bera bezala kotxean bizi behar dutenak, berak azaldu zuenez «leku batzutan aste guztian egoten gara dutxatzeko toki bat izan gabe».

✓ **OLINPIADETATIK ZIRKORA.** Nadia Petrovak 1976. urteko olinpiadetan hartu zuen parte. Nadia Comaneccik irabazi zuen olinpiadan bera hogeigarrena izan zen, baina hortik gutxira belaunean izan zuen lesio batek gimnasiatik aldendu zuen Petrova. Bi urtez kirolik egin gabe egon behar izan zuen eta gero «mundu horretan jarraitzeko gogoak nituen eta zirkoan sartu nintzen» azaldu zuen bulgariarrak. Bere zirkoarekin Gasteizen ari zela istripu bat izan zuen asteartean, lesio larria ez den arren «okerrena bi hilabeteetan lanik egin gabe egon beharra» dela esan zuen.

✓ **EURIAREN MENPE.** Denok dakigu nolakoa den Gasteiz eguraldiari dagokionean. Ura behar denean, euririk ez, eta nahikotxo dagoenean, urtegiak gainezka egiten du. Jaietan berdin gertatzen da beti, eta zaila da bero handia egin duen jaiak gogoratzea. Aurten ere, goibel hasi, bero izugarria gero, eta bukatzeko, lokatz izugarri txosnetan eta euritakoa nahiz berokia kalera irteterakoan.

GASTEIZEN

# Zeruan isladatzen dugun su festetako irudi hori

LUIS KARLOS GARCIA / **GASTEIZ**

Jai orotan zeruak zeresan haundia baldin badu, are gehiago Gasteizen. Zerutik dator Celedon abuztuaren 4ean eta zerurantza doa 9an. Panpinatxoa bera, aterkia irekita, jaitsi eta igo egiten da, bertoko ohitura zerua goibeldu eta euria egitea dela jakitun. Azkenik, su festetako eszenatoki bihurtzen da gauero zeru gasteiztarra, non kolorezko distira harrigarriak, une batez, lurrean gabiltzanok isladatzen saiatzen diren. Su festek zeruraino eramaten gaituzte irudimenezko bidaian.

Gasteizko jaietan abuztuaren 4eko gaueko 10etan hasi ziren, Salbearen ostean bota zituzten suzirien bitartez baina, 5ean izan zuten benetako hastapena su festek Arriagako San Juan parkean, Pirotecnia Valecearen eskutik. Hurrengo egunean ezagun batzuen bisita izan zen, Areatzako Astondoa familiakoek beren eskaintza Gasteizko zeruan jarri bait zuten. Caballer Llorens eta Pirotecnia Zaragozana etorri ziren gero, eta atzo gauez, su festak izan ziren baita ere, Andramari Zuriaren jaien amaiera iragarri zigutenak.

Gasteizko su festak ezin dira Bilbo edo Donostiakoekin konparatu, ikugarritasun maila txikiagoa dute eta. Ezein kasutan, urte honetan ikusi ditugunek fantasiazko munduan prantatu gaitutze, batez ere naturaren alderdi bikaina den San Juan parkeak ematen dituen abantailez baliaturik. Inguruotan botatzen jarraituko dute datozen urteetan, baina Jose Angel Cuerda alkateak Salburuan egin nahi duten parkea aipatu zuen etorkizuneko eszenatoki bezala ●



San Juan parkeak dituen abantailez ederki baliatu dira su festak aurten. OLALDE

Aldapan
JAIAK

## Jende gutxiago eta salsa asko

L.L.A. / **GASTEIZ**

Aurten Gasteizko jaietan jende gutxiago egon dela asko nabaritu da Aldapan. Asteburu osorik egon ez dela eta, ohizkoa baino jende gutxiago etorri da inguruko herrietatik. Horrela, igandean bildu zen jendetza ikusita, arraroa egiten da taberna batzutara sartu eta arazo handirik gabe zerbait eskatu ahal izatea.

Aldapako tabernetan dantzatzera bultzatzen duen musika egoten bada ere, aurtengoa salsaren urtea izan da zalantzarik gabe, izan ere aurten Ju- an Luis Guerraren musika baino ez da entzuten. Taberna batetik bestera joatean abesti edo behintzat disko berdina aurkitzea ez da batere zaila.

Tabernetako musikatik aparte kalean egiten den musika ere entzun daiteke Aldapan. Taberna batetik besterako metro gutxiak egitean reggae, heavy eta fanfarreak entzuteko aukera dago.

Kutxi kalearen erdialdean reggae musikaren abeslari ezagunenen kantak abesten duen talde egoten da. Aldaparen igoera amaitzen den tokian heavya entzuteko tokia bihurtu da azken urteetan De Kalle hirukotearen eskutik. Eta guzti hau blusekin doazen fanfarreen musika ahaztu gabe.

Afaltzeko ordua heltzen denean, Matxete enparantzan Arabako produktuak saltzen dituzten txosnetan zerbait jan eta Errioxako ardoa edo Astigarragako sagardoa hartzen den bitartean, trikitrixa entzuten afaldu eta atseden har daiteke. Gero Aldapako tabernetara bueltatzeko ordua da, laurak arte. Orduan, txosnetarako bidean, Zapan geldialdi bat egiteko ordua izaten da.

# Tartekako argiune bakanak baino ez plazako arratsalde goibeletan

J.A. / **GASTEIZ**

Ez du korrida ikusgarririk dastatzeko paradarik eman bukatu berri den 1991ko Gasteizko Andramari Zuriaren feriak. Itsusi hasi zen eta ondorengo korridek zeru ilunean argiune bakan eta txiki batzuk baino ez dituzte eskaini.

Osteguneko korridako zezenak izan ziren benetako korrida osatu zuten ia bakarrak. Sevillako Peralta anaiek ekarritako boskoteko zezen guziak txalotu zituzten plazaren laurdena baino betetzera iritsi ez ziren zaletuek. Peraltatarren zezen horiek izan ere, itxura ederrekoak etorri ziren denak eta muletaren bila joateko gogo ikaragarria erakutsi zuten. Benetako zezenak.

Arratsalde horretan ikusitakoak izan ziren baita ere toreatzaileen aldetikako gauzarik politenetarikoak. Zezenen mailarik ez zuten eman arren, bihankakoek —Emilio Muñoz, Juan Mora eta Joselito— belarri bana eraman zuten. Jarraipenik gabeko lanak egin zituzten hirurek ere, baina tarteka detaile oso politek argitu zuten arratsalde goibel eta hotza.



Litrik ez zuen jakin zezena hiltzen. EFE

Baina gauza politak ezezik, itsusi amorratuak ere ikusi ditu bost arratsaldeotan Gasteizko zezenplazara hurreratu denak. Asteleheneko korridan, Litri zazpi —7— aldiz saiatu zen ezpataz zezena hiltzen eta beste hainbestetan —7—, deskabelloaz. Hiru abisu eta zezenzaleen bronka ikaragarria. Zezena hiltzen jakin ez zuen toratzaile berak nahiko lanak izan zituen plazatik bizirik ateratzen. Lehendabiziko korrida hartan Cepedaren ordez etorri zen Poncek ederki asko toreatu zuen bere aurrenekoa. Harekin merezi zituen bi belarrietatik bakarra eman zioten eta hurrengoarekin merezi ez zuena eman zitzaion.

Gainontzean ezer aipagarri gutxi.



Emilio Muñozek belarri bat jaso zuen Peralta anaien korridan. EFE

## Santamaria ausarta

Ausardia handiko lana egin zuen —batipat lehendabizikoarekin— Jeromo Santamaria Biasteriko toreatzaileak asteazkenean izan zuen korridan. Ruchena ganadutegiko zezenetatik onena zen akaso Santamariaren lehendabizikoa, eta faena aberatsa egin bazion ere, ezpata eta deskabelloarekin oso baldar ibili zen eta ez zuen jendearen animo eta txalorik ez zen beste saririk eraman. Bigarrena zaila zuen eta ez zuen lan onik egin.

LEITZAN

# Hemen ez da txantxarik



K. GOITIA / LEITZA

Dagoeneko Santiburtzioak heldu zaizkigu. Udak badu abaida handiaz pasatzeko ohitura madarikatua eta guk ezer gutxi egin dezakegu horren aurka. Denbora ahalik eta hoberen pasatzea litzateke alternatiba bakarra; zoroak bezala ibiltzea, hau eta hura eta inon direnak ikustea. Azkenean nekatuta, porru eginda, umore txarrez eta petralduta amaitzeko. Ez da txiki txikia gure buruari ematen diogun estutasuna, udarako egiten ditugun plan zoragarriekin —adjetiboa zentzu txarrean ulertua, noski.



Eskerrak udan festa ugari dauden. Gure burutazioak pikutara bidaltzeko tentaldia inoiz baino sendoagoa azaltzen zaigu. Malibura joateko asmoak garagardoan zirriborro bilakatzen dira eta askatasunaren zirrarak gure gorputza goitik behera zeharkatzen du. Metamorfosia, hori da hitzik egokiena; metamorfosia jasaten dugu festak hurbiltzen direnean. Lotsa lotsagabekeria bihurtzen da eta barruan daramagun tristurak hanka egiten du.

Guzti hau kontutan hartu dute festen antolatzaileek Santiburtzioak prestatzerakoan. Gustu finenak asetzeko buruhauste ikaragarriak pairatu ondoren, inoiz egin ez diren jaiak antolatu dituzte gure arduradun sakrifikatuek. Dena den, arazorik larriena parrandazalearen eta festazale zintzoaren gustuak bateratzea da: batak hau nahi badu, besteak ordu horietan lo egitea nahiago du; eta besteak goiz jaiki nahi badu, batak eguerdiko ordubiak arte tripaz gora egon nahi du. Betiko kontua...



Gustu finenak asetzeko buruhausteak pairatu ondoren, inoiz egin ez diren jaiak antolatu dituzte arduradun sakrifikatuek.

Festak antolatzeko orduan mundu guztiari atsegin zaizkion ekitaldiekin hasi behar da: entzierroak, txarangak eta berbenak.

Hauek denon gustokoak dira, eta hala ez izatekotan hobe komenturen bat aurkitzea, ihardun izpiritualak ez daude hain gaizki.

Ekitaldi hauek prestatutakoan, betidanik egin diren ospakizunekin segiko dugu: ingurutxoa, ezpatadantzariak, haurrei agintea ematea, meza nagusia... Horiek sakratuak dira. Ingurutxoak eta ezpadantzariak kentzekotan, zer geratzen zaigu?

Jadanik errazena egina dago. Bertsolariak eta herri kirolak jende askorentzat garrantzitsuak badira ere, beti sortzen dute halako kezka berezia: eguraldia ona izango ote da, jendeak bazkaldu aurretik edo bazkalostean joatea nahiago izango du, joan zen urtean jendearen erantzuna epela izan zen... Hori musean jokatzea bezala izaten da, ordagoa bai ala ez.

Kirola ere ezin da ahaztu: futbola, txirrindularitza eta pilota. Hauek gure hiru kirol maiteenak izanik, festak dira urteko lehiaketen azken partiduak ikusteko garairik egokiena. Arrakasta handia izaten dute ekitaldi hauek: jende ezaguna elkarren artean lehian ibiltzeak erakargarritasun berezia beti izan du.

Haurrentzako ekitaldiak behar beharrezkoak dira. Festa guztiak etxetik irten gabe pasatuz gero egongelan far west-eko gotorlekua eraiki edo erratzekin hockey partidua joka dezakete. Hobe dute buruhandiekin txantxetan ibili eta etxeko altzairuak bakean uztea ●

## Gaur ezer ere ez galtzeko

- **12.00etan** ezkilak jo eta suziria botako da festei hasiera emateko.
- **16.00etan** txirrindulari jubenilak ziztu bizian ibiliko dira.
- **19.30etan** Gaubela taldearekin dantzaldia eskeletoari astindutxoa emateko.
- **24.00etan** Gaubelakoak beste astindutxoa gustora emango dizute.
- **03.00etan** ligatzea nahi baduzu Ingurutxora gonbidaturik zaude.

## Gorde indarrak biharko

- **07.30etan** diana txistulari eta txarangarekin.
- **09.00etan** entzierroa eta zezenak plazan.
- **10.30etan** meza nagusia udal batzordea eta dantzariekin.
- **12.00etan** Aurrerako ezpatadantzariak plazan.
- **12.30etan** pilota partiduak ikusgai.
- **17.30etan** kontuz ibili zezenekin plazan.
- **18.30etan** konpartsa eta erraldoiak herriko kaleetan.
- **20.00etan** dantzaldia Akelarre taldearekin.
- **24.00etan** dantzaldiaren bigarren saioa.



**Ez dute ez bitaminaren beharrik**

dantzan ari diren mutil hauek. Sasoia soberan dute hanka puntan saltoak eta bueltak emateko Aurrera elkarteko ezpatadantzariek. Ikuskizun ederra urtero meza nagusiaren ondoren egiten den dantza bitxi hau. Gaztaroa da izan ere garairik aproposena halako akrobaziak egiteko. Gero artritisa eta beste mila gauza direla eta edozein hasten da komediak egiten. Ez dadila gazterik falta ikuskizun hau urtez urte errepikatzeko.

## TTANTTOAK

**✔ INGURUTXORIK EZ DA FALTAKO.** Ohi den bezala Leitzako festetan ez da ingurutxorik faltako. Ohiturei eutsi behar zaiela esan zuenari kaso eginez, aurten ere dantza egiteko aukerarik egongo da. Gaur, gaueko hirurak aldera, ligatzeko ingurutxoa egingo da. Garagardoarekin azti ibiltzen direnak ez diote bikoteari oinik zapalduko eta beharbada bila ari ziren amodiarekin topo egingo dute. Azukre koxkorrarekin aspaldi topo egin zutenek berriz, datorren ostegunean bere ingurutxoa izango dute. Zer ote du ingurutxoak hain goxoa izateko...

**✔ BIHOTZ TRISTEAK ALAITZEKO.** Norbaitek bihotz tristerik badu ez dezala itxaropena galdu. Aurtengo festen antolatzaileek haietaz errukitu dira eta inon diren musikalariak inguratu dituzte samina gozotasun bihurtzeko. Naygi, Haritza, Gau Bela, Arkaitz eta nola ez, Joselu Anaiak plazan jo eta ke arituko dira doinu kilikagarriak nahiz sentiberak zure belarrietan ipiniaz. Negar malkoren bat isuriko duzu malenkoniak eraginda.

**✔ FESTAK BAI KIROLA ERE BAI.** Herriko kirolzaleak ez dira aspertuko Santiburtziotan. Osasunak ligan lortutako postuak eta Indurainen arrakastak Tourrean egarriz utzi ditu herriko zaletuak. Haiek asetzeko lehiaketa ugari izango da Leitzan. Gaur arratsaldeko lauretan txirrindulari jubenilak lehian ibiliko dira. Ostegunean Larbando futbol zelaian hirugarren mailako partidua eta Nafarroako harrijasotzaileen txapelketa egingo dira. Hauek ez dute bitaminen beharrik.

**✔ DANTZARIAK ETA BERTSOLARIAK.** Aurrera elkarteko ezpatadantzariak arin arin dabiltza. Beren trebezia ikusteko aukera izango dute herritar guztiek biharko meza nagusia entzun ondoren. Bertsolariek gauzak lasaiago hartzen dituzte. Dena dela, ezin dira lo gelditu eta buru argia izateaz gain albokoaren desafioak nondik joko duen antzeman behar dute. Lizaso, Euzkitze, Peñagarikano eta Mañukorta ez dira edozein moduko bertsolariak. Elkarren artean ziria sartzen ez dira erraz nekatzen.

**✔ AURTEN MAGO ETA GUZTI DUGU.** Aste kulturalean gurekin egon zen Rafa Aldasoro berriro ere herrian izango dugu. Oraingoan ere arrakasta handia izango duela inork ez du zalantzan jartzen. Usoak, untxiak, zapiak eta beste mila gauza desagertzen dira bere kapelan gero berriz azaltzeko. Trikimailu politak egiten badaki mago honek. Izan ere, eskuak beti dira begiak baino azkarragoak. Badaezpada ez gehiegi inguratu edo desagertzeko zorian egongo zara. Auskalo non azaltzen zaren gero...

# Angel Alduntzin oroimenean bizirik

Angel Alduntzin, Leitzako txistulari ofiziala izan zena, duela hamar urte joan zitzaigun. Herritarrengan zuen ospeak bizirik dirau eta haren oroimena ahaztezina bihurtu da jadanik. Joan zen maiatzean omenalditxo bat egin zitzaion. Dena dela bera bezalako gizon batek gehiago merezi zuelakoan, Patxi Perurenak lan bikaina aurkeztu digu 'Plazaola' herri aldizkarian. Bertan zenbait leitzarrek Angel Alduntzinekin izan zituen solasaldiak eta gorabehera bitxiak azaltzen zaizkigu. Herritarrengan zuen gizon jatorra eta umoretsuaren fama argi eta garbi geratzen da 'Plazaolako' erreportaian.



Inguruko herrietara irteten laster hasi zen eta behin Bergaran, 'Leitzako pasakallea' zelakoan 'Oriamendiren martxa' karlista jo eta ez zen zalaparta gutxitxo izan.
CARLOS AGIRRE

KOLDO GOITIA / LEITZA

Angel Alduntzin, herriko txistulari ofiziala eta Leitzako pertsonaia famatuenetakoa, duela hamar urte hil zen; haren oroimena berpiztu nahian, Patxi Perurenak 'Plazaola', herriko aldizkarian biografia paregabea argitaratu du. Hori dela eta leitzar ospetsuaren bizitza eta beste zenbait historiak eskaini ditugu inguruetako jendeek jakin ditzaten.



Angelen aita Argentinako Juarez herrian jaio zen. Patagoniako lurrak utzi eta Leitzara, aitonaren jaioterrira itzuli zen. Lurralde haietatik etorri ondoren, bere lehengusuarekin ezkondu eta Lesakene baserrian bizi izan zen. Han jaiotakoak ziren Angel eta bere bi arrebak: Luisa eta Bernarda. Urteak joan ahala Angel bera ere ezkondu eta lau seme-alaba ekarri zituen mundura.

Haurtzaroan ezagutu zutenek lizar edo gaztain adaskarekin egindako txilibitua ezpainetatik kendu ezinik gogoratzen dute. Bederatzi urte zituen bere aitak ebanozko txistua opari gisa eman zionean; hil arte berarekin eramango zuen. Txistuaren aurreneko notak Ramon Olazarena, elizan organoa jotzen ibiltzen zenak irakatsiko zizkion Angeli.



Behi zaintzen zebilela ere txistua jotzeari ez zion uko egiten, eta hala, ikasten hasi eta bi urte pasa ondoren, Leitzako txistulari zaharren pieza guztiak buruz ikasiak zituen. Inguruko herrietara irteten laster hasi zen eta behin Bergaran, Leitzako pasakalea zelakoan Oriamendiren martxa karlista jo eta ez ziren zalaparta gutxitxo izan.

Inazio Baleztenak karlisten himnoak irakatsi zizkion eta hari esker Gil Robles, Javier de Borbon y Parma eta Espainiako Alfonso XIII erregearen aurrean ere txistua jo zuen. Inazio Baleztenak Nafarroako dantzak asko maite zituen eta bertako piezak Europa osoan zabaltzeko asmoa inoiz ez zuen ezkutatu.

Gerrateko gorabeherak pasa ondoren, Leitzako txistulari ofiziala izatera heldu zen, Pastain Zaharrari txanda hartuta. Txistuarekin aritzeaz gain, Angelek atabala eta batez ere jota oso luzeak jotzen zituen. Halako batean Ibarrako festetan zebilela, neskaren batek 'napar kaxkarra' deitu omen zion. Hura esatea falta Angeli jotarekin hasteko. Bi ordu eta laurden geratu gabe txistua jo eta ke ibili ondoren, azkenean bertako alkateak isil erazi zuen.

Inguruko herrietara urtez urte hutsik egin gabe joandakoa zen Angel. Eratsungo jaietara ia berrogei urtetan joan zen, Arribera hogeitabi urtetan, Azpirozera hamairu urtetan eta horrela ibili zen beste herrietan ere. Azpiroztik Errazkinera etxetik pasa gabe hamaika urtetan joan zen, 1948. urtean errazkindar batzuk eskatu eta geroztik ohitura hartu zuelako.

Inguruetan bera bezalako txistularirik ez zegoen. Elizondo aldean bazen Maurizio Elizalde izeneko beste bat, baina izaeraz eta txistua jotzeko moduaz erabat desberdinak ziren biak.

Mauriziok mutildantzak eta doinu lasaiagoak maite zituen eta Angelek, berriz, alaitasuna pegatzen zuten piezak. Behin elkar topatu zuten Irurzungo festetan eta esan bezala, txistua eskuan hartzeko modua ere desberdina zuten ●

## Gerrako oroimenak ezin ahaztu

K.G. / LEITZA

Gerra zibilean nazionalekin borrokatu zuen Angelek eta bere familia karlista izanik Inazio Baleztenaren laguntza ere jaso zuen. Inaziorekin tratu handia zuenez sarritan lortzen zituen etxera joateko baimenak, batez ere txistua jotzeko aukera zuenean. Dena dela, urte haiek oso gogorrak izan ziren eta zenbait gertakizun bizi guztirako gogoan gelditzeko zitzaizkion Angeli.

Alejandro Lizasoren hilketa, esate baterako, benetan tamalgarria izan zen. Alejandro zen inguruko txistularirik onena eta Angelen lagun mina. Gerratean biek zuten txistua jotzeko ohitura eta arrisku handia izan arren ez zioten gainontzeko egiten emandako aginduei. Halako batean Angelek bezperan jotako abestia errepika zezan eskatu zion Alejandrori. Txistua jotzen hasi orduko erreketek tiro egin eta Alejandro hil zuten.

Gertakizun harek betirako hunkitu zuen. Bere errua izan zelakoan ez zuela berriro fusilik hartuko agindu eta, ehizean ere inoiz ez zen ibili Angel. Txistua jotzeko grina, ordea, ez zuen gerratean galdu. Bere txistua hain maitea izanik, Anjelek bizia ere arriskuan jarriko zuen. Behin eskubonba batek kanpamendu guztia sutan jarri zuen. Angel txistua han zegoela konturatu zenean, zuzenean joan zen haren bila. Eskuratu zuenean han ibili zen karlisten himnoa jotzen etengabe.

Gerraostean politika bere bizitzatik baztertu zuen. Herria zatiturik zegoen eta berak nahiago zuen txistua jo eta gainontzekoak alde batera uztea. Nazka ematen zion politika kontuekin aritzeak; halako kontuek ezin ikusia eta gorrotoa ekarri zuten herrira.



CARLOS AGIRRE

Haurtzaroan ezagutu zutenek lizar edo gaztain adaskarekin egindako da ko txilibitua ezpainetatik ken du ezinik gogoratzen dute. Bederatzi urte zituen bere aitak ebanozko txis tuaa opari gisa eman zionean.

## Angel eta bere zakurrak

K.C. / LEITZA

Angelek zakurrak gustora zaintzen zituen. Dena dela, berak bat bakarra ekarri zuen eta harek kamioi baten azpian bukatu zituen bere egunak. Nahiko ezaguna da Leitzan kamiolariari Angelek emandako erantzuna. Kamioilaria zakurra eskuetan zuela Angelengana joan zen eta hau eta bestea kontatzen hasitakoan ederra bota zion txistulariak: «Redios, il indokela ta zakurrekin eldu aiz onera, botazak nai doken tokire i, nik ez dit zakur il bearrik».

Zakur harek 'Ttiki' zuen izena. 'Iudi' izeneko bat ere izan zuen. Nahiz eta beste baserri batekoa izan, beti Angelengana jotzen zuen, harek bezain ondo inork ez bait zuen tratatzen. Dena dela, 'Toni' izan zen Angelen zakurrik famatuena. Zakur hura herrian oso famatua egin zen. Berez ez zen Angelena, baina behin inguratu zitzaion eta harrez gero, beti ibili zen jabearen ondoan.

'Tonik' beti laguntzen zion Angeli. Eztaiak zeudenean han joaten zen zintzo zintzo zakur beltz hura. Ez zegoen Leitzan eliza eta korua ezagutzen zuen zakurrik, 'Toni' ezik. Leitzan zakur erlijioso bakarra hura zen. Beste batean Angelen zerrikumeak Iruñeko Pamplonica fabrikara eraman eta han azaldu zen 'Toni'. Beste batean Angel Tolosako dentistarengana joan eta Toni hantxe. Zakur harena aparteko kasua zen.

'Toni' zahartu zenean desagertu egin zen. Azkenaldira atakeak izaten zituen eta hiltzeko gutxi gelditzen zitzaionean arrastorik utzi gabe joan zen. Angelen lagunek esaten dutenez, pena handia hartu zuen txistulariak bere adiskidea galdu zuenean.

# Langabezia jaitsi egin da EAEn eta igo Nafarroan aurtengo uztailean

## Hegoaldean 2.566 langabetu gutxiago izan dira azken hilabeteotan

**Joan den uztailean langabetuen kopurua % 2,23 gehitu da Nafarroan eta Euskal Autonomi Elkartean (EAE), berriz, % 2,43 jaitsi da. Madrileko Lan Ministeritzako datuen arabera, langabeziaren murrizketa erritmoa geldiagotu egin da hilabete honetan.**

**BILBO**

Joera zeharo ezberdinak eman dira Hegoaldean uztaileko langabeziari buruzko datuei dagokienez. Nafarroako Foru Komunitatean (NFK) langabezia igo egin da eta EAEn ,aldiz, behera egin du. Madrileko Lan Ministeritzak INEMen jasotako datuak ezagutzera eman zituen atzo, eta horien arabera, Hegoaldean lanik gabe 151.889 pertsona zeuden azken hilabetean.

Datu horien arabera, EAEn uztailean ekainean baino 3.134 langabetu gutxiago izan dira. NFKn, berriz, alderantzizko joera eman da eta azken hilabete honetan langabetuak aurrekoan baino 568 gehiago izan dira.

EAEn, langabetuak guztira 125.825 dira Madrileko Lan Ministeritzaren arabera, hau da, populazio aktiboaren % 14,59 langabezian dago Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban. Herrialde horietan aurtengo uztailean iazkoan baino 11.931 langabetu gutxiago zenbatu ditu INEMek. Nafarroari dagokionez, pasa den uztailean 26.064 langabetu izan dira guztira.

Aurreko urteetan langabezia tasak joera ezberdinak izan ditu uztailean EAEn. Horrela 1988an langabetu kopurua % 0,43 jaitsi zen, 1989an, berriz, % 2,8 eta iaz % 2,61. Datu horiek langabeziaren jaitsiera erritmoa geldiagotu egin dela erakusten dute.


Industria sektoreak lanpostuak galtzen jarraitzen du Euskal Herrian. VILLAGRAN

**Langabeziaren bilakaera 1991ko ekainetik uztailera Hego Euskal Herrian**

| | ekaina | uztaila | aldea | portzentaia |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 16.899 | 16.946 | + 47 | + % 0,28 |
| Gipuzkoa | 41.624 | 40.586 | - 1.038 | - % 2,49 |
| Bizkaia | 70.436 | 68.293 | - 2.143 | - % 3,04 |
| Nafarroa | 25.496 | 26.066 | + 568 | + % 2,23 |
| Guztira | 154.455 | 151.889 | - 2.566 | - % 1,66 |
| Sektoreak (EAE) | | | | |
| Nekazaritza | | | - 86 | - % 7,32 |
| Industria | | | - 962 | - % 2,83 |
| Eraikuntza | | | + 20 | + % 0,29 |
| Zerbitzuak | | | - 118 | - % 0,23 |
| Aurreko lanposturik gabe | | | - 1.988 | - % 5,59 |

**ERAIKUNTZAN LANGABEZIA IGO DA** EAEn ekonomiako sektore guztietan langabezia jaitsi egin da uztailean, eraikuntzan ezik. Nekazaritzan % 7,32ko jaitsiera izan du langabezia tasak eta uztailean ekainean baino 86 langabetu gutxiago dago. Industriari dagokionez, 962 pertsona langabetuen zerrendatik atera dira eta INEMek % 2,83ko beherakada eman dela iragarri du.

Zerbitzuetan aritzen diren langileen artean 118 atera dira langabeziatik eta tasa % 0,23 jaitsi da. Era berean, aurretik lanik egin ez dutenen artean langabezia % 5,59 jaitsi da, 1.988 langabetu gutxiagorekin.

Eraikuntza sektorean bakarrik igo da EAEn langabezia tasa. % 0,29 igo da sektore horretako langabezia tasa, hau da, ekainetik uztailera bitartean 20 lagun gelditu dira lanik gabe.

EAEn guztira 46.852 gizon eta 78.973 emakume izan dira langabezian joan den uztailean. Lehenean langabezia tasa % 2,68 jaitsi den bitartean, bigarrenean % 2,28 egin du behera. Pasa den urteko datuekin alderatuta, 5.562 gizon eta 6.369 emakume gutxiago daude langabezian.

25 urtetik beherakoei dagokienez, % 4,58 jaitsi da langabezia ekainetik uztailera. Langabezia utzi duten horietatik 972 gizonezkoak izan dira eta 825, berriz, emakumezkoak. 1990eko uztailetik hona 2.841 gizonezko eta 5.433 emakumezko gutxiago daude langabezian.

INEMen jaso diren lanpostu kopurua 17.626koa izan da azken hilabetean, pasa den urteko uztailean baino 240 gehiago, alegia.

✓Hegoaldean 151.889 langabetu zeuden joan den uztailean, ekainean baino 2.566 gutxiago.

Emakume langabetuen kopuruak % 2,28 egin du behera, gizonezkoena % 2,68 jaitsi den bitartean.

## Gaurtik FEVEren tarifak % 5,5 garestiagoak izango dira

**BILBO**

Gaur jarriko ditu FEVE tren konpainiak tarifa berriak indarrean. Prezio berrien arabera garestiagoak izango dira Bizkaia, Castilla-Leon, Cantabria eta Galizia aldeko bidaiak.

Tren konpainiaren iturriek aditzera eman dutenez, bidaiarien garraioak % 5,5eko prezio igoera izango du eta merkantzien kasuan ere antzekoa izango da. Bidaia laburren kasuan, txartel normalen salneurria bidaiari eta kilometroko 6,02 pezetakoa izango da gaurtik aurrera. Joan-etorri txartelari dagokionez, berriz, bidaiari eta kilometroko 10,47 pezeta balioko ditu.

Bidai luzeetan ordea, txartel normalaren balioa 6,11 pezetakoa izango da bidaiari eta kilometroko. Joan-etorri txartelaren prezio berria bidaiari eta kilometroko 10,63 pezetakoa izango da.

## BASEen eraketa Jaurlaritzak bultzatu behar duela dio ELAk

**BILBO**

ELA sindikatuko iturriek atzo aditzera eman zutenez, Borondatezko Aurrikuspen Sozial Entitateen (BASE) eraketa «bultzatu» beharra dago. Horretarako Eusko Jaurlaritzaren parte hartzea «ezinbestekotzat» jo zuten sindikatukoek.

ELArentzat entitate hauen hedaketarako «komenigarria» litzateke BASEen tratamendu fiskala «hobetzea» batetik, eta bestetik pentsioen sistema osagarri hau negoziazio kolektiboaren bitartez aurrera eraman ahal izateko batzorde hirukoitzaren osaketa proposatzen du.

BASEen bi alderdi positibo azpimarratzen ditu ELAk, lehenengoz langileen pentsioen osagarriak izatea eta bigarrenez Euskal Autonomi Elkartean (EAE) inbertsio orokorrak egin ahal izateko fondoa osatzea.

## Iberiak Venezuelako abioi konpainia erosi du

**CARACAS**

Iberia espainiar konpainia buru den partzuergoak VIASA Venezuelako abioi garraio konpainia pribatizatzeko lehiaketa irabazi zuen atzo, Holandako KLM nagusi zen taldea erretiratu egin zen eta. Iberiak 145,5 milioi dolar (16.000 milioi pezeta eta 800 milioi libera) eskaini zituen VIASAren akzioen % 60 eskuratzeko. Dirutza hau Venezuelako Banco Provincial-en laguntzarekin ordainduko du.

Iberia buru den partzuergoaren eskaintzaren arabera, Venezuelako enpresaren kapital osoa 242,5 milioi dolarrekoa da. Espainiar konpainiarekin lehiatzen zuen taldeak garestiegi eritzi zion gobernuak finkatutako gutxieneko prezioari.

Arturo Cardelus Iberiako zuzendari nagusiak erosketa honetaz adierazi zuenez, hemendik aurrera espainiar konpainiak prozesua negoziatuko du lurralde horretako gobernuarekin, bere konpainiarentzat «ahalik eta abantaila gehienak lortzearren». VIASA erosita, Iberiak balio erantsi handia lortzea espero du bidaiari zein zama garraioarekin eta Amerika eta Europa arteko hegaldi gehikuntzarekin. Sinatutako akordioaren arabera, VIASA pribatizatzeko kapitalaren gainontzeko % 40 Venezuelako estatuak eta enpresako langileek ipiniko dute.

igela



UDAKO LIBURUAK

GALBIDEA
James M. Cain

IHESA
JimThompson

## Coruñako armadoreentzat, beren untziak hobe zaintzen dira EAEn

**SANTIAGO**

Coruñako Arrantza Armadoreen Elkarteko lehendakaria den Jesus Echeversen ustetan, Eusko Jaurlaritzak arrantza sektoreari eskaintzen dion laguntza «oso egokia» da eta «jarraitu beharreko bidea erakusten dute». Galizan, berriz, «instituzioen laguntza eskasak», beste arrazoi batzuen artean, sektoreak bizi duen egoera larria sortarazi dute Echeversen esanetan.

Coruñako armadoreen lehendakariak 'Galicia Economica' aldizkariari eginiko adierazpenetan azpimarratzen duenez, «galiziar barko ugari Euskal Autonomi Elkartera (EAE) saltzearen arrazoia gure herrian armadore izatea errentagarria ez delako ematen da».

Echeversek azaltzen duenez, errentagarritasun falta «laguntza instituzional urriak, deskargatzerako orduan ditugun zalantzak eta portuaren garestitzeak» eragin dute. Armadore galiziarraren iritziz, Gasteizko Gobernuak arrantza sektorearen alde eta Gran Solen arrantzan ari den flotagatik «apostu egin du laguntza eta inbertsioak bultzatuz». VII. zonaldea deritzonaren «agortzea» azpimarratzen du Echeversek Galiziako flotaren errentagarritasun galeraren beste arrazoi bezala. Bere ustetan, «gehiegizko arrain harrapaketak» egin dira untzi galiziarrak ohituraz arrantzatzen duten Irlandako ur hauetan.

Petrolioa munduko ekonomia mugitzen duen gairik nagusienetarikoa bada, berriki gertatzen hasi den CAMPSAren deuseztapena eta petrolioaren monopolioaren bukaerak garrantzia hartuko du, orain arte erregaien monopolioa izan duen enpresa desagertzen denean, milioi askotako negozioa noren esku geratuko den ikusteko dago eta. CAMPSAren akziodun nagusiak diren Repsol, Cepsa, Petronor, Petromed eta Ertoil konpainia birfintzaile handiek aukera guztiak dauzkate, legezko monopolioa izan dena, Merkatu Bateratuarekin negozio hori 'de facto' berauen esku geratzeko eta konpetitzaile txiki eta atzerritarrei gauzak zailak jarriko zaizkie.

# CAMPSAren oinordekoek ez dute petrolioaren negozioa galdu nahi

## Konpainia hau desagertzen denean birfindegi handiek 'de facto' eutsiko diote monopolioari

J. AIARZA / **DONOSTIA**

Repsol, Cepsa, Petronor (Repsolen esku) Petromed eta Ertoil konpainia birfintzaileetako arduradunek CAMPSA Espainiako petrolio monopolioaren konpainia arrendatarioaren heriotz epaia sinatu dute. Horren ondorioz, akziodunek konpainian zeukaten partaidetzaren araberako aktibo banaketa egin dute: Repsol CAMPSAren kapitalaren % 65,96ren jabe da, Cepsak % 17,85 du, Petromedek % 9,17 eta Ertoilek % 7,02. Gasolindegi banaketarekin, Repsol birfindegi nagusiak 2.300 hornitegi inguru eskuratu ditu.

CAMPSAren akziodun nagusiak diren konpainia birfintzaile hauek Espainiako Ekonomia ministroaren arbitraia behar izan dute. Horren zergatia, enpresa honen banaketa aktiboak (erregai hornitegiak) banatzeko orduan, pastelaren zatirik onena ahora zeinek eramango ote zuen erabakitzeko lehia zen.

**MONOPOLIOAK GALERAZITA DAUDE** Zatirik goxoena (hoberen kokaturik dauden gasolindegien jabetza) Repsol akziodun nagusiak hartu duela ikusirik eta enpresa hau Estatuaren eskutan dagoela kontutan hartuta, desmonopolizazioaren izenean egin den guzti honek benetako merkatuaren liberalizazioa eta enpresa pribatuen arteko konpetentzia librea izango ote den, gutxienez, zalantzan hartzeko moduko kontua da.

Sei urteko epea eman zitzaion espainiar Estatuari erregaien inportazioa, banaketa eta, azken finean, merkaturatze sarean zerabilen monopolioari bukaera emateko. Erromako Paktuaren filosofiak Europako enpresen arteko konpetentzia librea bermatzearena da. Beraz, Europako Komunitateko kideak diren lurraldeetako enpresen konkurrentzia librea oztopatuko lukeen inolako monopoliorik erabiltzea galerazten du.

Ildo honetatik eta sei urteko epe hori aurtengo urte bukaeran beteko denean, monopolioa administratzen zuen Campsaren aktibo banaketa joan den uztailean gertatu zen.

Baina Campsaren banaketak monopolioa bukatzeko helburua badu ere, hau ez da praktikan gertatzen, oraindik indarrean dagoen monopolio legea dela medio, Espainiako gasolindegi gehienak behartuta daude birfindegi handiei erregaia erostera, honek erabateko merkatu askatasunik eza ekarriko duelarik.

**KONPETENTZIARI TRABAK JARRI** Duela 65 urtetik indarrean dagoen Monopolio legea eguneratzeko eta Merkatuaren liberalizazioa bazetorrela ikusirik, Estatuak araudi beria egin zuen 1988. urtean. Araudi horren helburua CAMPSAren eskutan ziren gasolindegiak babesteko eta beste enpresen sarrera ahalbideratzea zen. Azken honetarako, gasolindegi sare paraleloa sortu zen, edozein hornitzaileri erosteko askatasun teorikoa zeukaten gasolindegi pribatuentzako.




CAMPSAren gasolindegi gehienak Repsolen eskutara pasa dira monopolioaren bukaerarekin. ANDER GILLENEA

Araudi haren ondorioz, gasolindegi batetik bestera egon beharreko distantzia ere aldatu egin zen, monopolio sareko CAMPSAren gasolindegiez gainera sare paralelokoak ere egoteko, distantzia hauek % 50 murriztu zirelarik.

Hau ikusirik, monopolio enpresaren jukutria sare paraleloko gasoldindegi autonomoak bereganatuz joatea izan zen, CAMPSAk edo Repsolek berek sare paraleloan hornitegiak eraikiz, beste inorenak erosiz edo epe luzeko kontratuen bidez bereganatuz.

Merkatu askatasunak ekarriko zuen europar banatzaile uholdearen arriskuaz ohartaraztea zen argudioa, sare paralelo horretan sartutako gasolindegiak bereganatzeko, negozio hauen iraunbizitzeko modu bakarra zela argudiatuz. Horrela, sare paralelo honetan egin ziren estazio gehienak Repsol eta beste birfindegien eskutan geratzen dira, merkatu liberarekin etorriko zirenei lekua janez. Gauzak horrela, Espainiako birfintzaileek monopolioa 'de facto' mantentzea lortuko zuten, eta operadore (petrolio inportatzaile eta banatzaileak) txiki edo atzerritarrentzako lekua murritza da oso.

Era honetan, gaur egun Espainian gasolindegi bat inpintzea ez da jadanik negozio ona. Birfindegi handientzat bai ordea, barne merkatua kontrolatzen duten neurrian ez bait dute kanpora saltzera irteteko behar handirik.

# Euskal petrolio konpainiak: dauden guztiak ez dira

J.A. / **DONOSTIA**

Petrolioren ustezko desmonopolizazioaz aurrerago esandakoa eta Repsolen garapen izugarria argiro erakusteko, petrolioaren inportazioa eta banaketan diharduten euskal konpainien kasuak ditugu, Petronor, Noroil eta Esergi Gipuzkoako elkarte txikia, alegia.

Petronor osatu zenean euskal entitateen kapitalak parte garrantzitsua zuen. 1989. urtean euskal kutxek kapitalaren % 10 zuten hain zuzen ere; Bilbao Vizcaya Bankuak, % 21,90; 'Petroleos de México-k' % 34,29 eta, Repsolek, % 32,85. Gaur egun, ordea, Petronor Repsolen eskuetan dago BBV eta PEMEX-ekin egindako negozioak direla medio, eta Repsol Petronor kapitalaren ia % 90en jabe da, BBKren % 10 eskasaren aurrean.

Petronorek (eta, beraz, Repsolek) kapitalaren % 70 eta EEEk (Euskal Energi Erakundea) % 30 dutela, duela hiru urte sortu zen Noroil euskal konpainia petrolio banatzailea. Enpresa honen sorrera eta helburuak arras ilunak dira eta susmo txarrak sortarazi ditu, batez ere bi arrazoirengatik. Lehenik, Petronorek berak sortu zuelako, bere banatze sarea propioa duela. Bigarren, enpresa pribatuei konpetentzia egingo dion kapital publikoz osatutako petrolio banaketarako enpresa delako. Noroil sortuz geroztik protestak izan dira konpainia txikien aldetik.

**ESERGI ELKARTE OPERADOREA** Duela hamar urte sortu zen Esergi elkartea. CAMPSAren monopolioa bukatu behar zuela ikusirik, Gipuzkoako hogei bat enpresarik bat egitea erabaki zuten. Helburua, 1992. urtetik aurrera merkatu librean aritzea zen, Europan diren beste gasolindegi pribatuen antzera.

Horretarako, Esergiko arduradunek Brusselera jo zuten argibide bila eta, beranduago, beharrezkoa zuten opoeradore baimena lortu zuten Estatutik. Baimen hau eskuan, enpresari txiki hauek erregaia inportatzeko zenbait gordailu besterik ez zuten behar. Izan ere, enpresa birfintzaileak ez dira gaur egun erabat beharrezkoak, petrolio gordinaren birfinketa lurralde ekoizle berek egiten dute, jadanik gasolina superra, arrunta eta gasolioak bukatuta esportatzen dituzte.



Petronor-en birfindegia Somorrostron (Bizkaia).

Elkarte honetako iturriek EGUNKARIAri azaldu diotenez, elkartea sortuz geroztik «ez zaie lan egiteko erraztasun handiegirik eman eta bai lege trabak jarri». Honen atzean, petrolioaren monopolioa duten konpainien interesen defentsa egon liteke, nolabaiteko konpetentzia egin liezaiekeen elkarte autonomo honi porrot eginarazteko. Egun, Esergik operatzen du eta Bilbo, Baiona eta Santanderreko portuetako petrolio gordailuetan hornitzen dira baina, monopolio legea dela medio, oraingoz ezin ditzute elkarteko bertako gasolindegiak hornitu, monopolio legeak gasolindegi ia guztiek birfintzaile handiei erostera behartzen dituztelako. Honen ondorioz eta paradoxikoki, elkarte honetako kide gehienek konpetentziari erosi behar diote erregaia.

Oaindik indarrean dagoen monopolio legea dela medio, gasolindegi gehienak behartuta daude birfindegi handiei erostera

Birfintzaileak ez dira gaur egun erabat beharrezkoak, petrolio gordinaren birfinketa lurralde ekoizle berek egiten dute

# La Riojako Gobernu autonomoaren egoitzaren aurkako bonba Logroñon

## Misterio osoa bi kilo amonal zituen pakete baten inguruan

**Lau pertsona zauritu zituen La Riojako Gobernu autonomoaren egoitzan, Logroñon, atzo goizean jarritako bonba baten leherketak. Eztanda Gobernu etxearen posta zerbitzuan gertatu zen, eta bi kilo amonalez osaturiko bonba-pakete bat izan zen eragilea. Paketearen jatorria ez da ezagutzen.**

DONOSTIA

Polizia espainolak eta Barne Arazoetarako Ministeritzak emandako lehen datuen arabera, goizegi da esateko nork bidali zuen bonba. Pakete batean zegoen bonba, kilo t'erdi edo bi kilo leherkarirekin, amonala hain zuzen.

Baina itxura denez, bonba ez zegoen ondo egina, aldez aurretik egin bait zuen eztanda. Paketea zela, eta ez gutuna, baieztatu zuen Poliziak, baina ez zekiten nola heldu zen Gobernu etxe barrura, postaz ala bestela, mezulariren batek edo utzita.

Leherketa gertatu zenean inork ez zeukan paketea esku artean, inork ez bait du eskuetan zauririk izan. Eztanda goizeko 11.15etan Gobernu etxearen posta zerbitzuan gertatu zen eta zauriturik larrienak, posta banatu ohi duen Enrique Villar funtzionariak (45 urte), bizkarrean eta buru atzekaldean izan zituen zauriak. Antza, nonbait geldi zegoela egin zuen eztanda paketeak.

La Riojako Gobernu autonomoa PSOEren eskuetan dago, baina oso gutxigatik. Maiatzaren 28ko hauteskunde autonomikoetan 16 diputatu lortu zituen PSOEk Legebiltzarrean, 15 PPk eta bi Partido Riojano (PR) alderdi erregionalistak. PRk PSOErekin paktua egin du eta ziurtatu dute sozialistek agintea, aurreko



Logroñoko zaurituetako bat, Gobernu etxetik ospitalerantz eramatean. GRACIA

legealdian bezala. Logroñoko udala, ostera, Partido Popularraren eskuetan dago.

**LEHENDAKARI SOZIALISTAREN ADIERAZPENAK** Norentzat zen paketea ere ez dago argi, txikituta bait zegoen. La Rioja Gobernuak agiri bat kaleratu atzo arratsaldez, ekintza kondenatuz eta La Riojako herritarrei «tolerantzia» eskatuz. Atentatuaren arrazoia ez dago batere argi, orain arte ez bait du inoiz mehatxu edo atentaturik izan La Riojako gobernu autonomoak.

Gobernu errioxarreko lehendakariak, Jose Ignacio Perez Saenz sozialistak, Gobernu etxean segurtasun neurri handirik ez zegoela onartu zuen. «Uste genuen erakunde hau ez zegoela inoren ikusmiran, baina konturatzen naiz oker geundena. Jende honek ez dio inori barkatzen», esab zuen Perez Saenzek, baina ez zuen aipatu siglarik edo susmorik. «Ekintza terrorista lotsagarri eta basatia izan da, eta berdin dio ze sigla dauden atzean».

> ✓ Bonba aldez aurretik lehertu zen, Poliziaren arabera, eta inork ez zeukan paketea esku artean eztanda egin zuenean.

La Riojan eta Logroñon ez da inoiz gertatu horrelako atentaturik. «Beti egiten dugu protesta horrelako gertakariak izaten direnean, eta orain, geu izan garenean bonbaren helburua, ez daukat hitzik gertatu dena adierazteko, beti baketan bizi izan den lurraldean bait gaude», esplikatu zuen La Riojako lehendakariak.

Gobernuaren etxea hustu egin zuten agintari eta funtzionari guztiek, Poliziako leherkari adituek arakatu zezaten ea bonba gehiago ba ote zegoen. Handik metro gutxira, Logroñoko Justizia Jauregia ere hustu zuten eguerdiko 12etan (leherketa izan eta hiru ordu laurdenetara) bonba abisua jaso bait zuen Poliziak. Ez batean eta ez bestean ez zen lehergailu gehiagorik aurkitu. Justizia Jauregian lau ezkontza atzeratu behar izan zituzten bonba abisua zela eta.

Lau zaurituetarik hiru kalean zeuden atzo bertan. Enrique Villar posta banatzailea ere ez dago oso gaizki, azaleko zauriak besterik ez bait ditu.

### Gobernua bigunegia da mediku objektoreekin

MADRIL

UGT sindikatuak mediku objektoreentzat, soldadutza egin nahi ez dutenentzat bezalako gogortasuna eskatu du. Abortua ez praktikatzeko eskubidea daukate medikuek, baita zentro publikoetakoek ere, eta objetore direla esatea baino ez dute behar. Medikuntza publikoko mediku ia guztiek uko egiten diote abortuak egiteari ihesbide horri eskerrak, baina ez mediku pribatuek. Dohainik izan beharrean negozioa eratu da Espainiako klinika pribatuetan. Askotan, mediku plurienplegatuek egiten dute eragozpena. UGTk salatzen duenez, «zerbitzu militarrean kontzientzia eragozpenaren kontrako neurriak hartu ditu Gpbernuak, baina medikuen kasuan ez du antzerako neurririk aplikatzen».

### Ekologistek zigorra eskatu dute piromanoentzat

SEVILLA

Andaluziako elkarte ekologistek suteak pizten dituzten piromanoen kontrako legedi gogorragoa eskatu dute. Ekologisten iritziz, hogei urterako gartzela zigorrak eta 50 milioi pezetako isunak ezarri behar zaizkie sute-eragileei. Andaluzia da aurten suteek gehien kaltetu duten eskualde espainiarra Valenziarekin bat.

Gaur egun, biktima edo zauriturik gabeko sute baten eragilearen zigorra ez da sei urte baino luzeagoa. Hamabi urtekoa da pertsonentzat arriskua izan denean. Gainera, oso zaila izaten da frogatzea piromanoaren errua.




**CLARO** erosi nahi du Ruiz Mateosek, eskandaluzko egunkaria itxi egin denean. Rumasa kasuko enpresari polemikoak aste honetan kaleratzeari utzi dion Claro egunkaria erosi nahi du adierazi zuenez. Claroko 400 langileak kalean geratu dira, egunkarien jabeek, Madrileko Abc eta Alemaniako Bild egunkarien argitaratzaileek, galera gehiago ez dutela izan nahi erabaki ondoren. Langileak entzerratuta daude egunkariaren erredakzioan protesta gisa eta argibide eske.

## Autonomien zorpetze publikoa gero eta kezkagarriagoa da

MADRIL

Estatu espainoleko hamazazpi autonomi elkarteak zorretan daude. Zorpetzea gero eta handiagoa da eta, ekonomilarien iritziz, etorkizun hurbilean arazo larria bihurtu daiteke hau autonomientzat. Dagoeneko, Murcia, Cantabria eta La Riojako administrazio autonomoek dauzkaten dirusarreren erdia zorren interesak ordaintzeko erabili behar dute.

Gobernu zentralak abisu eman die autonomi elkarteei, ez dezatela zorra gehiago handitu, Estatuak ez duelako interesak kitatzearen ardura hartuko aurrerantzean. Baina oraingoz ez dirudi jaramon handirik egiten dietenik administrazio autonomoek eta gastuak neurriz kanpo handitzen dituzte urtetik urtera. Iaz, % 15eko neurrian handitu ziren autonomien gastuak, bizimailaren edo estatu zentralaren aurrekontuen hazkundea baina tasa askoz ere handiagoa.

1,1 bilioi pezetako zorra dute dagoeneko autonomiek (58 miliar libera). Hego Euskal Herriko zorrak ez dira oso handiak, konparetzekotan, Nafarroan 5.800 milioikoa da eta EAEn 68.000 miliokoa. Andaluciak du zorrik handiena (262.000 milioi), baina kasu larriagoak dira elkarte txikiagoetakoak, Cantabria edo La Riojakoak esaterako. Gainera, zorra kasu askotan epe laburreko prestamoekin egiten dute elkarte hauek (ez Euskal Herrikoek) eta horrek interesak lehenago kitatzera behartzen ditu. Zorra sortzen duten prestamoak banketxe pribatuek ematen dituzte batez ere.

### Helikoptero istripua misil jaurtiketa ariketa batean

DRAGUIGNAN

Istripu bat gertatu zen atzo Cote d'Azur-eko herrixka batean, Draguignan-en, Frantzia hegoaldean, ariketa militar batzuetan parte hartzen ari zen helikoptero britainiar bat behera etorri zenean. Helikoptero barruko militarretako bat hil egin zen eta beste bi zauritu, hirurak britainiarrak. Puma helikopteroa Canjuers-eko baseko misil jaurtiketa ariketa batean ari zen parte hartzen eta erori zen eskualde menditsu batean, ezagutzen ez diren arrazoiengatik.

# Kroazia prest dago bere gutxiengo serbiarrarekin negoziatzeko

## Lurralde osotasuna eztabaidatzen ez den bitartean ahal duena egingo du

**Kroaziako Gobernua prest dago edozein konpromezu politiko hartzeko, bere lurralde osotasuna eztabaidan jartzen ez bada. Jugoslaviako Lehendakaritza Kolegiatuak suetena deklaratu zuenetik, borrokak baretu egin dira Kroazian, noizean behin enfrentamendu txikiak badaude ere. Lehendakaritza jugoslaviarrak eraturiko Estatu Komiteak agintari kroaziar eta gutxiengo serbiarren ordezkariak bildu zituen Eslavoniako Dalj herrian.**

DONOSTIA

Zdravko Tomac-ek, Kroaziako lehendakariordeak atzo adierazi zuen «Gobernu hau bakea lortzeko edozer gauza egiteko prest dagoela, baina gerrarako ere prest dagoela, ez bait da ahaztu behar herri honi eraso egin diotela». Horregatik, gutxiengo serbiarrarekin negoziatzeko prest agertu zen bai bera, bai Gobernu kroaziarra ere.

Bestalde, borrokarik gogorrenak egon ziren herrian bildu ziren atzo kroaziar eta serbiar ordezkariak Estatu Komitearen artekaritzarekin, Esloveniako uztabiltzearekin amaitzeko tregua lortzeko helburuarekin. Lurralde hau nekazaritzatik bizi da batez ere, eta Jugoslaviako bihitegitzat jotzen dute. Horrezgain, komunikazioak eta trafikoa normaltasunera bueltatzeko ere bildu zituen Estatu Komisioak Kroaziako gatazkaren bi aldeak.

Atzo amaitu zen baita ere, Lehendakaritza Kolegiatuak bi aldeei beren gerra prisioneroak askatzeko jarritako epea, baina askatu dituzten ala ez, oraindik ez dago berririk.

Herenegun gauean, Goardia Nazional kroaziar bat hil zuten gerrilari serbiarrek, baina horren ondoren berriro baretu egin ziren borrokak. Osijek-en, Eslavoniako hiriburuan tiro batzuk egin zituzten bi aldeek, inongo kalterik sortu gabe. Banija eta Krajina-n, Kroaziako beste bi puntu gatazkatsuenetan, ez zen borroka berrien notiziarik iritsi.

**ZIGOR EKONOMIKOAK KRAJINARI** Azken bi lurralde hauetako herri serbiarren aurkako zigor ekonomikoak ezarri ditutze agintari kroaziarrek. Krajinan, joan den martxoan Kroaziatik bereiztu eta Serbiari lotu zitzaion lurraldean, trenbide komunikazio guztiak eten ditu Zagrebek. Agintari kroaziarrek adierazi dute neurri honek aurrera egingo duela «Krajinak ohostutako 32 gari bete bagoi eta fosfatoz bete 60 ibilgailu eta hiru kamioi itzultzen ez dituzten bitartean».

Duela hilabete batzuetatik gaurdaino, Krajinari dagozkion dirusarrera guztiak Zagreben geratu dira, baina uste da, lurralde hau Serbiak sarritan hornitu duela janari eta diruz.

**CSCE-K ERABAKI BERRIAK** Europako Segurtasun eta Kooperaziorako Kontseiluak (CSCE) «suetena errespetatu dadin azken deialdia» egin zuen, atzo bileraren lehen egunaren ondoren hartutako erabaki moduan. Bost orduko eztabaiden emaitza den agiria onartu zuten gainera CSCEko 35 partaideek «alde guztiek errespetatzen duten sueten iraunkor, oso eta eraginkorra» eskatuz.

Horrez gain, herenegun begirale talde bat bidaltzeko hartu erabakiaren xehetasunak zehaztu zituzten atzoko bileran, aho batez Europako Komunitatearen (EK) proposamena onartu eta gero. Atzo hartzekoa zen erabakia Eslovenia eta Kroaziara gutxienez 200 eta gehienez 500eko begirale misioa ezartzea zen. Jugoslaviaren ekimenez talde honetan Txekoslovakia, Canada, Polonia eta Suediako ordezkariak izango dira.

Jiri Dienstbier Atzerri ministro txekoslovakiarrak garrantzitsuena «Jugoslaviarrak beraien artean ados jartzeko bidea aurkitzea» dela adierazi zuen. Arazoak paneuropar zentzua hartzen duela Europaren kasuan azpimarratu zuen ministroak eta honen kausaz estatu europar guztiak presio bide zenbait jartzea beharrezkoa dela azaldu zuen, «behin-behineko laguntza eman edo zerbitzuak eskaintzearekin batera».

Nejco Nejcev, Bulgariako ordezkaritzako buruak esan zuen, gatazkarren irtenbidea aurkako aldeen adostasunaz gainditu behar dela. Mazedoniako erreferendumari buruz, errepublika horrek hartzen duen edozein erabaki errespetatuko duela, bestalde, Jugoslabiarekin lurralde arazorik ez duela gaineratuz. Estatu Batuetako Estatu Departamentuak, bestalde, Jugoslaviako estatubatuarrei, batez ere Kroazia eta Esloveniakoei, «ahal duten azkarren» bertatik alde egiteko aholkua eman zien, egoera geroz eta txarragoa dela argudiatuz.



Armada jugoslaviarraren tanke bat Kroaziako kaleetan zehar.



**ALBANIA**ko milaka errefuxiatu Bariko estadioan itxaroten ari dira, daude gauez matxinada egiten saiatu ondoren, Italiako Gobernuak berriro bere herrialdera noiz eraman zain. Bari-Paleseko aireportutik irten zen atzo lehen hegazkina errefuxiatuekin eta laster operazioak jarraituko du itsasoz. Italiako ordezkaritza bat Albaniara joan zen «legez kanpoko neurrigabeko emigrazioa» ezin dutela utzi adierazteko eta arazoa konpontzeko laguntza eskaintzeko.

# McCarthyk Yihaden proposamena igorriko dio NBE erakundeari

DONOSTIA

John McCarthy bahitu britainiar askatu berriak igandean eman diezaioke Javier Perez de Cuellar Nazio Batuen Erakundeko lehendakariari Yihad Islamiarra Libanoko erakunde integristaren mezua. Adituen arabera, bahitu mendebaldarrak askatzea eskainiko du Yihadek mezuan, Israel eta israeldarren aldeko milizien eskuetan dauden xii presoak libre uztearen truke.

Itxura denez, integristen asmoa Israelek Abdul Karim Obeid imanaren askatasuna lortzea da, Libanoko hegoaldeko Khiam presondegian dauden 350 gartzelaratuekin batera. Israelek ordea edozein negoziaketaren aurretik 1982tik hona desagertu diren zazpi militarrean berri «exigitu» du, bahitu eta presoen arteko trukearen aurrean aldeko jarrera erakutsiz.

«Bahitu eta presoen trukea negoziaketa sekretuen fritua da ohiz, baina orain ez dago antzerako harremanik terroristekin», azaldu zuen Moshe Arens Defentsa ministro kontserbadore israeldarrak. Israelek sei alditan izan ditu honelako negoziaketak 1968tik.

Siria eta Iranen artekaritza garrantzitsua izan da prozesu honetan, Britainia Handiak herrialde biekin erlazio diplomatikoak duela gutxi jaraitzea bezala. Naser Kadur Siriako Kanpo Arazoetarako ministroak bahituen askatasuna lortzeko asmoa agertu zuen herenegun, eta Iranek, atzerrirako zabalkuntza komertzialen eraginez antzeko jarrera du, «Al Shira» libanoar aldizkariak argitaratu duen bezala.

Siria eta Iranen laguntza duen irtenbide egitasmo hau, hutsala gertatu daiteke «Atxilotuen Babeserako Erakundea» talde integristak Jerome Leyraud sendagile frantziarra bahitu ondoren. Ekintza honek agerian jarri ditu iraniarren aldeko mugimendu integristaren barne banaketak, jarrera erradikalagoen proiektuaren aurkako mehatxuekin. «Bahiketa baieztatzen bada, ez du lagunduko mendebaldeko bahituen askatasuna lortzeko», adierazi zuen Perez de Cuellarrek, Frantziako Atzerri Ministeritzaren baieztapenaren berri izan baino lehen. Polizia libanoarra eta Armada siriarreko inteligentzia zerbitzuak Leyrauderen bila segitzen dute atzotik. Atxilotuen Babeserako erakundeek frantziarra hil egingo dutela adierazi dute, Yihadek beste bahitu bat askatzen badu.

## Lituaniak armekin babesteko eskubidea aldarrikatu du

VILNA

Lituaniako agintariek armen bidez defendatzeko eskubidea aldarrikatu dute, beharrezko gertatuko balitz, eta populazioari dei egin diote «arma fondo» bat osatzeko autodefentsa eta muga postuetako indarrak hornitzeko. Vilnako agintariek hartutako neurri honen arrazoia igaro den uztailaren 31n Medininkay muga pasabidean izandako borroka da, 9 lituaniar mugazain hildako eragin zituena.

Lituaniako muga eta aduana pasabideak trintxera eta alanbre hesiz ari dira babesten. Lituaniako Fiskalia Nagusiak «baimen ofizialik gabe ditutzen arma, munizio eta lehergailu guztiak» arma fondora emateko eskatu zien hiritarrei, muga eta aduana postuetan segurtasuna areagotzeko.

Erabaki honen beste helburu bat errepublikako biztanleek egin ditzaketen SESBko Armada edo Barne Ministeritzako indarren aurkako ekintzak eragoztea da. Orain arte lituaniarrek Medininkayko gertaeraren aurkako protesta bidea erahilketen ustezko errudunak diren errepublikatik SESBko Barne Ministeritzako tropa bereziak (Omon) kanporatzea exigitzea izan da. Lituaniako prentsak Omon eta antzerako «indar erresprisiboen presentzia» azpimarratu du arma fondo sortzeko argumentu nagusi gisa.

## Jordaniak Irak eta kurduen arteko negoziaketak bultzatu nahi ditu

DONOSTIA

Turkiako Armada kurduen errefuxiatu kanpamendu irakiarren aurka erasoak egiten ari den bitartean, Jordania Irakeko Gobernua eta kurduen ordezkariak egiten ari diren negoziaketa elkarrizketen aldeko agertu zen atzo.

Jordaniako Hussein erregeak horrela azaldu zion atzo Jalal Talabani-ri, Kurdistaneko Batasun Patriotikoko buruzagiari. Saddam Hussein lehendakari irakiarra eta kurduen ordezkariak Kurdistan irakiarrean lurralde autonomo bat eratzeko negoziaketetan dabiltza, eta azken berriek diotenez, bide onetik doaz negoziaketak.

Baina Turkiak ez du etsitzen eta atzo adierazi zuen kurduak birrindu arte jarraituko duela erasoekin. Hildako eta zauritutakoen berririk eman ez bada ere, asko izan daitezkeela adierazi dute iturri batzuek.

## Ezaguna zen arren IRAko bi presok ihes egin zuten

**LONDRES**

Britainia Handiko gobernua iskanbilatik iskanbilara dabil azken hilabeteotan, eta orain beste bat du aurrean. Brixtoneko gartzelatik Irlandako Errepublikar Armadako (IRA) bi kidek ihes egin zuten joan zen uztailaren 7an Barne ministeritza britainiarrak eta presondegiko zuzendariak, aldez aurretik bazuten arren planaren berri.

Reg Withers, Brixtoneko gartzelako zuzendariak Nessan Quinlivan eta Pearse McAuley IRAko kideen asmoak jakin zituen, horiek funtzionari bat mehatxatu zutenean. Zuzendariak beste zentru batera bidali zuen funtzionaria eta Barne ministeritzari adierazi zion gertatutakoa, IRAko kideak segurtasun handiko toki batera igorri zitzan.

Ministeritzak ez zuen ezer egin «tokirik ez zegoelako beste zentruetan». Azkenean Quinlivan eta McAurse presoak ihes egin zuten pistola batekin kaperatik irtetzen ari zirela, aurrikusita zegoen bezala. Ministeritzak ikerketa bat hasi zuen berehala eta orain arte ez da emaitzarik ezagutzen «segurtasun arrazoiengatik».

Withers adina baino lehenago jubilatzera behartua izan zen eta horren ondorioz piztu dira Presondegi Zuzendarien Erakundearen kritika gogorrak. Oposizio laboristak ere arazoa arduragabekeriaz salatu du Gobernu britainiarra. Kenneth Baker Barne ministroak salaketa guztiak ukatu zituen asteartean.

# Estatu Batuek lurralde okupatuak uzteko exigituko diote Israeli

### Defentsa Ministeritzak hiru ezarkuntza berri eraikiko dituela iragarri du

**Estatu Batuetako Gobernuak Israeli lurralde arabiar okupatuetako ezarkuntzekin amaitzeko exigituko dio urrian egitekoa den Ekialde Erdiko bake konferentzirako gonbidapenak bidaltzean. Era berean EEBBek herrialde arabiarrei duela berrogei urtetik Israeli jarritako boikota baztertzeko ere eskatuko diete.**

K.ALDABE / **DONOSTIA**



Ehkolot ezarkuntza israeldar ireki berriko atea.

Haaretz egunkari independiente israeldarrak eman zuen horren berri atzo eta izena gordetzea eskatu zuten agintari israeldarren iturriak aipatu zituen. Azken berriek diotenez, George Bush eta Mikhail Gorbatxovek, EEBBtako eta SESBko lehendakariek babestutako bake konferentzia urrian egingo da eta ziurrenik Europako herrialderen batean.

EEBBek Israeli egin beharreko exigentziak ez dituela beteko adierazi zuen herenegun Ariel Sharonek, Israeleko Etxebizitza ministroak. «Israelek ez du kontzesiorik egingo eta ez du ezarkuntzekin amaitzeko inolako konpromezurik hartuko» adierazi zuen Sharonek.

Israelek Ekialde Erdiko bake konferentzira joango dela esan eta bi egun beranduago, Yitzhak Shamirrek, lehen ministro israeldarrak Ekholot ezarkuntza berria eraikitzeko baimena eman zuen Zisjordanian, 1982tik base militar israeldarra zen lekuan.

Haaretz egunkariaren arabera, Defentsa Ministeritzak, Israelek 1967ko «sei eguneko gerran» konkistatutako Gazzah eta Zisjordaniako lurraldeen administrazioa eramaten duenak ezarkuntza berriak egiteko asmoa dauka. Ginat Harmanoaj, Elisha eta Katzif ezarkuntzak dira, Hebron, Jerico eta Bianamin herrialdeen inguruetan.

**LABORISTAK KONTZESIOEN ALDE**

Kiriat Arba, Ariel, eta Maale Adumingo ezarkuntzek ezik, beste 150 inguru ezarkuntzetan gutxi gorabehera bi milioi judu bizi dira, gehienak etxe prefabrikatuetan. Sharon jeneralak duela gutxi iragarri zuen, datozen bi urte hauetan 13.000 etxebizitza eraikiko dituela Gobernu israeldarrak ezarkuntza juduetan. Horrekin, israeldarren kopurua % 40 igoko da palestinarrek Estatu independientea eraiki nahi duten lekuan.

1967az geroztik, gerra ondoren, «EEBBen jarrera ofiziala izan da Israelek lurralde okupatuak itzuli behar dituela, eta jarrerarik ez du aldatu oraindaino» adierazi zuen aste honetan Ezer Weizman jeneralak. Weizman, Zientzi eta Teknologia ministro ohia eta oposizio laboristako diputatua, Isralek bake konferentzian parte hartzearen alde mintzatu zen eta Palestinaren Askatasunerako Erakundearekin (PAE) negoziatzeko eskatu zion Gobernu israeldarrari. Weizmanek, 1979n egiptoar eta israeldarreen arteko bake negoziatu zutenetarikoa izan zenak, Yitzhak Shamirren Gobernuari Zisjordania eta Gazzahko lurralde okupatuetatik aldegiteko aholkua eman zion. Bere eskakizunean, Golan gainetatik aldegitea ere sartzen zen. Lurralde hori Siriak eskatuko du urriko bake konferentzian.

## LABURREAN

### TXINA: Produkzioa igo egin da uholdeak izan arren

Txinako industria produkzioa % 13.4 igo zen uztailean, aurreko hilabetearekin alderatuta eta uholdeak izugarrizko kalte ekonomikoak eragin arren. Kalteak nabariagoak izango dira datozen hilabeteotan ekonomilarien arabera, eta igoerari garrantzia kendu diote. Jiangtsu eta Anhui bi probintzia kaltetuenetan produkzioa % 1.3 jaitsi zen eta % 3.1 igo. Sektore kaltetuena nekazaritza izan da eta atzerriarko merkataritza hobetu egin da ●

### EEBBtako kongresukideak heriotz zigorra proposatu

Howard Coble Estatu Batuetako Kongresuko droga kontsumo eta trafikoaren aurkako batzordeko kideak drogatrafikariei heriotz zigorra ezartzearen alde agertu zen batzorde brasildar baten aurrean. Cobleren esanetan, droga kontsumoa gutxitu egin zen lege zorrotzak jarri zituzten Estatuetan. Brasileko Legebiltzarreko kideek EEBBtako kongresuko kideekin harremanak estutzeko asmoa agertu zuten. Coble Polizia agintariekin elkarrizketatu zen Rio de Janeiron ●

### ITALIA: 12.500 milioi dolar abiadura handiko trenarentzat

Italiako Estatuak hainbat kontratu sinatu ditu Fiat, Eni, Iru eta orotara 29 enpresekin abiadura handiko trenaren proiektua bultzatzeko, 12.500 milioi dolarreko inbertsioarekin. Egitasmo horrek Torino, Bologna eta Venezia Milanorekin, Bologna Firenzerekin eta Erroma Napolirekin lotuko ditu 1.000 kilometro trenbiderekin. Lanak 1992ko martxoan hasiko dira eta lehen epealdikoak 1996an bukatuko dira, Erroma-Napolirekin ●

### EEBBtako sendagileari desertzioa egitea leporatu diote

Yolanda Huet-Vaughn sendagile militarra desertzioaz salatu zuen herenegun EEBBtako Epaitegi Militar batek, Golko Pertsikoko gerratean parte hartzeari uko egin ziolako. Epaia entzun ondoren Huet-Vaughnek kontzientzia eragozle aitortu du bere burua eta erabakia «zuzena» dela esan du. Bost urteko gartzela zigorra ezar dakiokete eta baita Armadatik kanporatu ere ●

## nazio arazoak / gutxiengoak

**Israel**

# Yitzhak Shamirren lagun xiitak

### Alauitak

Israel eta arabiarren artean negoziazioak hasten badira, Golan eskualdearen etorkizuna izango da mahai gainean jarriko den gaietako bat. 1967an irabazi zion Israelek lur pusketa hori Siriari, eta 1981ean anexionatu egin zuen. Gaur egun, hiru komunitate bizi dira 1.290 kilometro karratuko (Nafarroa Beherea baino txikixeago) eskualdean: Drusoak (13.500 bizilagun), israeliar juduak (11.000 inguru) eta Alauitak (1.400). Azken etnia hori da Israeleko gaurko gutxiengo bitxietan bitxienetarikoa.

Alauitak sekta musulmana dira, xiismoaren adarretik banandutako korrontea. Ez dira oso ugariak inon, ez bada Sirian: 600.000 lagun dira han, populazioaren % 6, gutxi gorabehera, baina oso boteretsuak dira. Armada eta Gobernuko elitea alauita da, Hafez el Assad lehendakaria bezala. Frantziak Siria izan zuenean kolonia gisa, alauiten gutxiengoa erabili zuen indar militar gisa —«zipaio» gisa— eskualdea kontrolatzeko. Independentziarekin, eutsi egin diote botereari alauitek.

Golan eskualdean hiru herri alauita zeuden 1967an Israeleko inbasioaren unean. Bi herri suntsitu zituzten israeliarrek eta bertako biztanleek ihes egin zuten Siriara. Beste herrian, Ghajarren, bizi dira orain Israeleko alauitak, 1.400 lagun.

Israelek «ondo zaindu» ditu alauitak. Hasieran Ghajar Libanon integratzeko proposatu zieten, baina ez zuten hori onartu alauitek. 1981ean Israelek Golan anexionatu zuenean, bertako biztanleei «israeliar» bihurtzeko aukera eskaini zien eta alauitek onartu egin zuten. Beraz, gaur egun israeliar xiitak dira Ghajarreko biztanleak. Ondo integratuta daude alauitak Israeleko bizitzan, langabeziarik ez dago euren artean eta gehienek zerbitzu lanetan dihardute inguruko *kibbutz* juduentzat. Ez dira ondo konpontzen Golaneko beste arabiarrekin, drusoekin (beste sekta xiita bat). Horiek ez dute onartu israeliar bihurtzea, eta gatazkan daude gero eta ugariagoak diren judu eta *kibbutzekin*. Alauitak «traidore eta kolaboratzaileak» dira drusoentzat. Golan Siriara itzultzen bada ere, zer pentsatuko ote dute hango anaia alauitek?




I. MARTIARENA

■ ***Sirian*** musulman sunitak dira nagusi, baina 1.200.000 xiita inguru daude. Horietarik erdiak dira alauitak, gero drusoak daude eta ismailita batzuk ere bai, xiismoaren beste sekta baten jarraitzaileak.

■ ***Israeleko*** estatuan ere 87.000 inguru xiita daude, kuriosoa bada ere. 83.500 dira drusoak eta gehienak Galilea eskualdean bizi dira, Golan lurralde okupatuetakoez gain (azken horiek ez dira legez israeliarrak). Alauitak 1.400 dira.

TXIRRINDULARITZA

# Goi mailako partaidetza Donostiako Klasikan

## Lejarretak eta Indurainek gogor borrokatu beharko dute italiarren kontra

**Gaur goizeko hamaika t'erdietan emango zaio irteera Donostiako Klasikari. Partehartzaileek 238 kilometro egin beharko dituzte Gipuzkoan zehar Boulebarreko helmugara iritsi aurretik. Helmugatik 29 kilometrora dagoen Jaizkibel mendatea, lehen mailakoa, izango da karrerako puntu nagusia.**

PELLO AIESTARAN / **DONOSTIA**

Donostiako Klasikak hamaikagarren edizioa beteko du gaurkoarekin eta aurtengo Munduko Kopako zazpigarren proba puntuagarria izango da. Klasika 1981 urtean korritu zen lehen aldiz eta izugarrizko gorakada izan du azken urte hauetan. Antolatzaileek egindako lanari esker, nazioarteko proba handien artean kokatzea ere lortu du eta ondorioz, munduko txirrindulari onenak ikusteko aukera izango dute gaur Gipuzkoa osoko zaletuek.

Ibilbideak ez du aldaketa handirik izan urte hauetan eta oso gogorra gertatuko da, aldapa ugari bait dago karrera guztian zehar. Guztira lau izango dira partehartzaileek igo beharko dituzten mendateak: hirugarren mailako bat (Orioko gaina), bigarren mailako bi (Azkarate eta Udana) eta lehen mailako bat (Jaizkibel).

**INDURAIN SASOI BIKAINEAN** Jaizkibelgo gaina izango da dudarik gabe, karrerako punturik garrantzitsuena. Bertan erabakitzen da urtero zein izango den Klasikako irabazlea edo gutxienez, azken aukeraketa gogorra egiten da. Izugarrizko erasoak ikusteko aukera izango da mendate honetan, hau bait da tropeletik ihes egiteko egokia den azken puntua

Iazko edizioan Miguel Indurain nafarra izan zen karrerako protagonista nagusia. Banestoko txirrindulariak Jaizkibelgo aldapetan egin zuen eraso eta faborito guztiak atzean uztea lortu zuen.

Azken kilometroak bakarrik egin zituen Banesto taldeko txirrindulari Atarrabiarrak eta Boulebarreko helmugara ia hiru minutuko aldearekin sartu zen.

Tourreko azken irabazlea Munduko Kopako proba bat eskuratu duen lehen euskalduna da, eta gaur bera izango da '1' zenbakia eramango duen txirrindularia. Atarrabiakoak denboraldi bikaina egin du orain arte eta garaipena lortzeko faboritoen artean agertzen da. Gainera, bidea ezagutzea abantaila handia da, karreran taktika egokiena aukeratzeko.

Berarekin batera Fede Etxabe, Iñaki Gaston eta Pello Ruiz Cabestany izango dira, euskal txirrindularien artean, irabazteko aukera gehien izango dutenak.

Marino Lejarreta berriztarrak ere aurrean egoteko aukera izan dezake, faboritoen artean agertzen ez den arren. Tourraren ondoren forma berreskuratzea lortu badu, ONCE taldeko txirrindularia karrerako protagonista nagusienen artean egongo da dudarik gabe, ederki ezagutzen bait du proba. Ez du alferrik hiru alditan irabazi.



I.MARTIARENA

**DONOSTIA-DONOSTIA** klasikak Gipuzkoa osoa zeharkatuko du, ohizkoa bihurtu den ibilbidetik. 238 kilometroko karreran Orio (3), Azkarate (2), Udana (2) eta Jaizkibel (1) izango dira 208 txirrindulariko tropelak gainditu beharko dituen mendateak. Alderdi Ederretik 11.15etan irtean eta Bulebarrean amaituko da karrera, arratsaldeko 5.15ak aldera. Jaizkibelgo mendatea izango da puntu erabakiorrena, helmugatik 30 kilometro eskasera, eta bertan apurtu beharko luke tropelak. Ordurako aurreneko selekzioak egina izan behar luke, eta mendateko maldetan indarrean dagoenak eraso egin beharko du, garaipenaren bila abiatzeko. Jaizkibeletik behera ere aurreneko postuetan zatiketa egon daiteke, jaitsierak horretarako aukera ematen du, eta normalena Bulebarrera garailea bakarrik iristea litzateke.


Kutxa
gipuzkoar
udaren alde

Gaur, **kutxa** Sari Nagusia Klasikoan.



**Kutxak** laguntza eskaintzen dio Donostia-Donostia Klasikoaren ospakizunari, Sari Nagusia emanez. Kirol-gertakizun handia, gipuzkoar uda jai zoragarri bihurtzen duena. **Kutxak** animoak opa dizkie lehiakide guztiei gailentasunaren erronkari eusteko.

kutxa
gipuzkoa donostia kutxa
caja gipuzkoa san sebastián

## TXIRRINDULARITZA




Marino Lejarreta hiru aldiz sartu da garaile Bulebarrean. JOXAN GOYA

# Marinok hirutan irabazi du Donostia-Donostia Klasika

**DONOSTIA**

Donostia-Donostia Klasikak maila handiko irabazleak izan ditu orain arte korritu diren hamar edizioetan. Horien artean, Marino Lejarreta bizkaitarra da garaipen bat baino gehiago lortu dituen txirrindulari bakarra, hiru, hain zuzen ere. Berrizkoa izan zen 1981ko edizioa irabazi zuena, Klasikako lehena, alegia. 1982an eta 1987an ere berak eskuratu zuen garaipena Donostiako Bulebarrean. Horrez gain, 1981n eta 1982an mendiko sailkapena ere irabazi zuen.

Marinok izugarrizko karrerak egin ohi ditu urtero uda partean, baina dirudienez momentu honetan ez dago sasoirik onenean. Teorian, Berrizkoa ez dago faborito nagusien artean, baina, hala ere, kontutan hartzeko txirrindularia da. ONCEko txirrindulariaren ustez, italiarrak dira faboritoak Klasika irabazteko. «Italiarrak forma onean helduko dira eta baita Burgoseko Itzulian izan direnak ere».

Claude Criquelion (1983), Niki Ruttiman (1984), Adrie Van Der Poel (1985), Iñaki Gaston (1986), Gert-Jan Theunisse (1988), Gerhard Zadrobilek (1989) eta Miguel Indurain (1990) izan dira Bulerbarrean irabaztea lortu duten gainontzeko txirrindulariak. Garaileen artean, Niki Ruttimanena izango da hutsune bakarra. Beste guztiak bertan izango dira, batzuk, Claude Criquelion belgiarraren kasuan bezala, azkeneko aldiz, denboraldiaren amaieran konpetizioa uzteko erabakia hartu bait du. Marino Lejarreta eta Adrie Van Der Poelentzat ere azken aldietakoa izango da.

### Palmaresa

1981 Marino Lejarreta (Teka)
1982 Marino Lejarreta (Teka)
1893 C. Criquelion (Splendor)
1984 Ruttiman (La Vie Claire)
1985 Van der Poel (Kwantum)
1986 Iñaki Gaston (Kas)
1987 M. Lejarreta (Orbea)
1988 G. Theunisse (PDM)
1989 Zadrobilek (7-Eleven)
1990 M. Indurain (Banesto)

### Zaletuen mitoak

1981ean Donostia-Donostia Klasika hasi zenetik, Marino Lejarreta berriztarra izan da karrerako sinbolo nagusia. Hiru aldiz irabazle (1981, 1982, 1987), behin bigarren (1986), bi aldiz mendiko sailkapenaren irabazle, Marino izan da orain arte korritutako hamar edizioetan garaipena errepikatzea lortu duen txirrindulari bakarra.

Gaur jokatuko den karrera oso garrantzitsua izango da Berrizkoarentzat, momentu larriak pasa bait ditu azken aldi honetan. Marino ez dago bere egoerarik onenean, baina karrera ona egiteko desiatzen dago, moralaren aldetik beharrezkoa bait du denboraldi amaieran emaitzak lortu ahal izateko.

Marinok hamaika urte daramatza txirrindularitza profesionalean eta denbora honetan euskal zaletu guztien mito bihurtu da. Iazko Klasikaren eta batez ere Tourreko garaipenaren ondoren, Miguel Indurain ere zaletuen sinbolo bihurtu da eta bera izango da dudarik gabe karrera honetako gizonik garrantzitsuena datozen urteotan. Gipuzkoako zaletu guztiek Donostiako Klasikako bi sinbolo hauek batera ikusteko eta, batez ere, animatu ahal izango dituzte gaur.

## FUTBOLA

# Lemoaren kontra jokatuko du gaur Athleticek Arlonagusian

## Saez pozik dagó azken boladan zurigorriek erakutsitako mailarekin

**Athletic gogor ari da prestatzen aurredenboraldian, eta behe mailetako talde bizkaitarren kontrako partiduetan maila polita erakutsi dute zurigorriek. Hori da behintzat Iñaki Saez entrenatzailearen iritzia. Gaur Lemoa izango dute aurkaria, Arlonagusian, eta Saezek hamaikako finkoa erabiliko du; Barakaldoren kontra jokatu zuen desberdina, hala ere.**

RAMON BASALDUA / **BILBO**

Bigarren B mailako Lemoa taldearen kontra jokatuko du gaur Athleticek Arlonagusian. Iñaki Saez pozik dago, bere jokalariek Barakaldoren kontra iragan asteazkenean erakutsitako jokoa ona izan zelako. Lasesarren gertatu zen bezala, zurigorrien entrenatzaileak hamasei jokalari besterik ez ditu eramango Arlonagusiara. Beste alde batetik esan behar, hamasei gizon hauek ez direla Barakaldon egon ziren berdinak izango. Dena den Saezek hamaikako finko bat erabiliko du gaurko partiduan ere.

Athletic gero eta hobeto dabil eta Saezek prest eduki nahi du bere taldea, datorren asteazkenean Logroñesen kontrako partidurako. «Ondo aritu ginen Barakaldoko partiduan eta erritmo bizia mantendu genuen lehiaketa guztian zehar. Defentsan egin genuen lan serioari esker, Barakaldokoek ez zuten gola lortzeko aukera bakar bat bera ere izan», adierazi zuen Iñaki Saezek Lezaman.

Badirudi Athletic taldeak bide ona hartu duela eta Saezek, Barakaldon jokatutako partiduan izandako helburu berberak ditu gaur Arlonagusian. «Barakaldon erakutsitako joko maila mantentzea gustatuko litzaidake gaur Arlonagusian Lemoaren kontra. Datorren astetik aurrera partidu gogorrak ditugu eta pixkanaka pixkanaka, taldeak hobera egin beharko luke», esan zuen Saezek.

Lesionaturik dauden jokalariei dagokienez, Oskar Tabuenkak minduta du ezker eskua, zapaldu egin bait zioten Barakaldoren kontrako partiduan. Valverdek eta Alkortak arazo batzuk dituzten arren, prest egongo dira jokatzeko, entrenatzaileak beharrezkoa dela uste badu behintzat. Azkenik, Ripodas, Mendiguren eta Aiarza gero eta hobeto daude eta onerako bide horretan jarraitzen badute, nafarrak eta Valladolidetik etorritako gizonak, taldearekin jokatzeko aukera izango dute datorren astean.



Iñaki Saez San Mameseko zaletuei garaipenak eskaintzeko gogoz dago. BASALDUA

# Osasunak ez zuen garaipenik lortu Valentziako Torneoan

A.B. / **IRUÑEA**

Aurredenboraldi honetako lehendabiziko azterketa serioa bazen ere, txantxetan hartu beharko Osasunak Valentzia aldean jokatu zuen txapelketa, azken postuan gelditu bait ziren gorritxoak. Honveden aurka hutsean berdindu ondoren, Levanteren kontra jokatu zuten ostegun gauez, bat eta huts kontrako emaitzarekin. Esan behar da ordezko asko zeudela Zabalzak atera zuen hamaikakoan, baina, hala ere, ez ziren finegi ibili.

Zabalza kexu agertu zen partidua bukatzerakoan, gogor samarra izan zela eta, baina gorritxoek garbi erakutsi zuten oraindik asko falta zaiela bete betean eta jokoan behar den bezala egoteko. Aipatzekoa da Stevanovicek, arazo fisikoak gorabehera, partidu osoa jokatu zuela, oso fin aritu ez bazen ere. Alde txarra, dudarik gabe, epaileak erakutsitako txartelak. Osasunako sei jokalarik jaso zuten txartel horia, eta Txomin Larrainzarri gorria erakutsi zion Burrueco Moreno jaunak. Gehiegitxo txapelketaz kanpoko partidu batentzat.

Bestalde, Urbanek bere selekzionatzailearen deia jaso du berriro ere, eta abuztuaren 14an, taldeak oneritzia emanez gero, Frantziaren aurka arituko da Poloniarra. Ondoren, Suedia eta Holanda izango dute arerio.

Esan behar ere Nuñez altsasuarra iazko Osasunaren hirugarren atezaina talderik gabe dabilela, Granadatik itzuli ondoren. Jokalaria bertara joan zen jokatzeko asmoz, baina baldintzak ez zirela onak eta, itzultzea erabaki du, eta zerbait atera arte, Promesasekin arituko da entrenatzen.




Jan Urban poloniarra. C. VILLAGRAN

ARRAUNA

# Erreka faborito Euskal Herriko Txapelketan

## Itsasoaren egoerak zerikusi handia izan dezake Donostiako estropadetan

**Pasai Donibaneko trainerua da urrezko domina eskuratzeko faborito nagusia, gaur Donostian jokatuko den Euskal Herriko Txapelketan. Gipuzkoako Txapelketan gertatu zen bezala, itsasoaren egoerak zerikusi handia izan dezake. San Pedrok eta Oriok indarrean daudela erakutsi behar diete Sanjuandarrei.**






**Pasaitarren arteko lehia iragarrita dago aurreneko postua eskuratzeko, Erreka eta Libia igartzen bait dira bi traineru indartsuenak.**

RAMON BASALDUA / DONOSTIA

Hamabi ontzi izango dira gaur Donsotiako estropada eremuan, Euskal Herriko Txapelketaren lehen ihardunaldian parte hartzeko. Gipuzkoako Txapelketan lehen lau postuetan sailkatu ziren ontziak dira faboritoak, Bizkaia eta Gipuzkoako seina trainerurik onenak biltzen dituen txapelketa honetan. Bizkaitarrek ez dute zereginik San Juan, Orio, San Pedro eta Arraun Lagunak traineruen aurrean. Dena den, Zierbenak ustekaberen bat emateko gai dela frogatu zuen Bizkaiko Diputazioak antolatutako banderan.

Txanden zozketan gertatutakoaren arabera, Pako Prietok entrenatzen duen Pasai Donibaneko Erreka ontzia, eta Julian Osaren San Pedroko Libia, elkarrekin arituko dira hirugarren txandan, Santurtzi eta Ur-Kirolakekin batera. Pasaiako ontziek nahiko izango dute hurrengo eguneko finalerako sailkatzearekin, izan ere bertan erabakiko bait da Euskal Herriko txapeldun berria. Iaz Sanjuandarrak txapeldun izan ziren arren, Sanpedrotarrek lortu zuten garaipena aurreko lau edizioetan.

> Lau traineru baino ez dira ageri Euskal Herriko Txapelketa irabazteko aukeran, eta laurak gipuzkoarrak dira.

Bizkaitarrek aspalditik dakite, ez dutela dominarik lortuko. Hori dela eta, euren helburu nagusia Nerbioi-BBK Banderan parte hartzeko txartela eskuratzea da. Estropada honetako antolatzaileek esan dutenez, Euskal Herriko Txapelketan hiru posturik onenak lortzen dituzten traineru bizkaitarrak izango dira Nerbioi-BBk Banderan arituko direnak. Taldeetako arduradunak ez daude konforme hala ere, eta bost talde sailkatzea eskatu dute. Lutxana, Algorta, Arraun Lagunak eta Kaiku izango dira bigarren txandan arituko diren ontziak. Arraun faboritoa den arren, lan gogorra egin beharko du Bizkaitarra eta Algorta atzean uzteko. Hirugarren txandari dagokionez, hauexek dira parte hartuko duten ontziak: Orio, Arkote-Bermeo, Zarautz eta Zierbena. Ikusi egin beharko galipoak zer egiteko gai diren, eta nola amaitzen den Zarautz eta Arkote-Bermeoren arteko lehia. Gogoratu, gaurko lau denborarik onenak biharko finalean izango direla eta hurrengo laurak, kontsolazio txandan. Gainontzeko laurak ordea, txapelketatik at geratuko dira.

> Gipuzkoako Txapelketan bezala, Kontxako estropada eremuan itsasoa erabakiorra izan daiteke.

**Txandak**

**Aurrenekoa:**
Orio
Arkote-Bermeo
Zarautz
Zierbena

**Bigarrena:**
Lutxana
Algorta
Arraun Lagunak
Kaiku

**Hirugarrena:**
San Juan
San Pedro
Santurtzi
Ur Kirolak

# Ardanza: «Zortzi onenen artean sartzea dugu helburu Algortan»

R.B / DONOSTIA

Andres Sanchezek entrenatzen duen Algortako Opel Karealde ontziak sekulako estropada egin zuen Bizkaiko Txapelketan. Algortakoek brontzezko domina lortzeaz gain, Kontxarako sailkatze estropadan parte hartzeko aukera eskuratu dute. «Oso garrantzitsua izan da guretzat Bizkaiko Txapelketan egin dugun lan bikaina. Ordura arte nahiko zorte txarra izan dugu, estropadetako balizak zozketatzerakoan. Niretzat ez da ustekabea izan. Algortan goi mailako koadrila batu dugu eta gure unerik onena, Bizkaiko Txapelketatik gora etorriko da. Gure helburua, Euskal Herriko Txapelketan, iragan asteburuan Santurtzin erakutsitako maila agertzea da. Hori lortzen badugu, zortzi onenen artean sartuko gara zalantzarik gabe», adierazi zion *EGUNKARIA*ri Anselmo Ardanzak, Algorta taldeko idazkariak.

Andres Sanchezen mutilek ez dute lan erraza izango zortzi onen artean sartzeko, Euskal Herriko trainerun onenek hartuko bait dute parte estropadetan, Gipuzkoa eta Bizkaiko Txapelketetan txartela lortu zuten hamabiek. Orio, San Juan, San Pedro, eta Arraun Lagunak alde batera utzi eta Zierbena, Zarautz, Kaiku, Santurtzi eta Arkote-Bermeo izango dira bere arerio nagusienak. Algortak estropada onak eta txarrak egin ditu. Ikusi egin beharko asteburu honetan zer gertatzen den.









Orio, Arraun Lagunak eta Zierbena izango dira pasaitarren etsai nagusiak. CARLOS VILLAGRAN

# Santos: «Osteguneko emaitzak ez ziren normalak izan, itsasoagatik»

RAMON BASALDUA / BILBO

Aurten Pasai San Pedroko Libia ontziak ezin izan du azken lau urteotan lortu izan zuen Gipuzkoako Txapelketa eskuratu, Pasai Donibaneko Erreka nagusi izan bait zen ostegunean, Kontxako estropada eremu berrian jokatutako txapelketan. Dena den, Pasai San Pedroko delegatuan den Jose Manuel Santosek ez dio garrantzi handiegirik eman estropada honi. «Ostegunean jokatutako estropada ez zen ohizkoa izan. San Juan eta gu batera sartu ginen hirugarren ziabogara eta azken luzean 41 segunduko aldea atera ziguten. Bestalde, Orio ere gure atzetik zetorren arren, gu baino hamabi segundu gutxiago behar izan zituen estropada burutzeko. Nire ustez, San Juan eta San Pedroren artean parekotasun handia dago eta zertxobait atzerago daude Orio eta Arraun Lagunak. Asteburuan jokatuko den Euskal Herriko Txapelketa guztiz desberdina izango da, itsasoa hobeto badago bederen. Iaz geu izan ginen Gipuzkoako txapeldun eta San Juanek eskuratu zituen Euskal Herriko Txapelketa eta Kontxako estropada. Ea bada aurten, eurek Gipuzkoako Txapelketa eskuratu dutenez, Euskal Herrikoa eta Kontxa guretzat diren», esan zigun San Pedroko delegatuak. Ez dago gehiago eskatzerik, eta erronkaren zailtasuna ezagutu arren, saiatu gabe behintzat ez dira geratuko.

## SASKIBALOIA

Atzokoa egun handia izan zen Iñaki Almandozentzat. Askatuak taldeko lehendakariak une latzak pasa behar izan ditu, babesle faltan kluba desagertzeko zorian izan bait da. Bizi ahal izateko Gipuzkoako Diputazioaren eskaintza onartu behar izan dute, eta sponsorizazioaren truke 'Leitzarango Autobidea' izena eramatera makurtu. Atzo ordea honen trazatu alternatiboaren gaineko akordioa lortu zuten Diputazioak eta Lurraldeak. «Horren zain nintzen», adierazi digu lasaitasuna oraindik berreskuratu ez duen lehendakariak.

# Almandoz: «Leitzarango Autobidea izena onartzea kontraesana izan da niretzat»

## Askatuak taldeko lehendakariak bizitzako unerik latzenak pasa ditu

X.MAKAZAGA / **DONOSTIA**

**EGUNKARIA.—** Zer suposatu du Askatuak taldearentzat, eta zeuretzat, 'Leitzarango Autobidea' izena onartu behar izateak?

**ALMANDOZ.—** Batez ere, neure buruarekin nolabaiteko kontraesana. Taldea sortu eta Askatuak izena jarri genionean, geure kluba aske izateko helburua erakutsi nahi izan genuen. Politika kontuetatik aske, batez ere. Taldearen nortasunean, askeak izatea zen geure ikurra. Baina guzti horren ondotik, garaia iritsi denean, eta hil ala biziko egoeran, makurtu beharra izan dugu. Eta geure buruarekiko kontraesana argia izan da, geure ustetan talde batek ez bait luke horrelako gauzarik egin beharko. Egoera latza zen ordea, klubaren bizia jokoan zegoen, eta hortik datozkit zalantzak

**EGUNKARIA.—** Hartu berri duzuen erabakiak Askatuak taldea betirako markatu al du?

**ALMANDOZ.—** Ziur ezin dezaket ezetz esan, baina ezta baietz ere. Bolada batean agian horrela izango da. Diputazioaren proposamena, eduki dugun informazioa ondo aztertu eta gero onartu dugu. Bazter guztietan galdezka ibili eta alde guztiekin hitzegin eta gero, Leitzarango Autobideak ekarri dituen gatazkak eta eztabaidak azkar bukatuko ziren ustea izan dugu. Eta ustea egi bihurtu da, Diputazioa eta Lurraldea Leitzarango Autobidearen trazatu alternatiborako ados etorri direnean. Horrexegatik, gaurkoa guretzat egun handia da.

**EGUNKARIA.—** Gipuzkoako Diputazioa eta Lurraldearen arteko akordioa zuentzat oso berri ona izango zen... Horren zain zineten, ezta?

**ALMANDOZ.—** Berri oso ona, eta espero genuen akordioa gainera. Bazter guztietan sokormiran ibili eta gero, gaur bertan —atzogatik— lortuko zutela espero nuen.

**EGUNKARIA.—** Pentsa liteke, Diputazioaren nahia afera honetan Askatuak taldeari laguntzea baino, gai gatazkatsuan beren erabakia defendatzea izan dela. Zeuk nola ikusten duzu hori?

**ALMANDOZ.—** Ez dakit, izan liteke horrela izatea. Nik lehendik ere ezagutzen nuen Eli Galdos, eta lagundu izan gaitu. Baloraziorik ezin dut egin, oraindik ere zertxobait nahastuta bait nago. Azken finean, zalantza horiek bazterrean utzita dauzkagu, gaur egun oso handia delako. Bai guretzat, baina baita guztiontzat ere. Leitzarango Autobidearen alde zeudenentzat, aurka zeudenentzat... Euskal Herriarentzat horrelako gai gatazkatsuari hain irtenbide egokia topatzea, nik uste pozgarria dela.

**EGUNKARIA.—** Askatuak taldeko bazkideek Diputazioaren proposamena atzera botatzeko erabakia hartu zuten aurreneko Aparteko Batzarrean, baina bigarrenean ia guztiak onartzearen alde agertu ziren. Hain argi al zenuten akordioa helduko zela?

**ALMANDOZ.—** Hain garbi ez. Ez dut uste inork hain garbi izango zuenik. Baina horren susmoa bagenuen, eta gugan sinesteko eskatu genien bazkideei, zuzendaritzari 'fedezko botoa' emateko.

**EGUNKARIA.—** Zer pasa zaizue burutik azken egun hauetan?

**ALMANDOZ.—** Denerako prest agertu gara, eta burua galtzeko zorian ere ibili gara. Bigarren batzarrean ezezkoa atera izan balitz, taldea 'saltzeko' aukera genuen. Hainbeste asteren ondotik aurrera egiteko erabakia hartuta genuen. Beste irtenbiderik ezean, hamasei urteko lana hutsean geratzeko arriskua ere pasa zitzaigun burutik. Badira hori baino gauza txarragoak munduan.

**EGUNKARIA.—** Diputazioaren sponsorizazioa onartu arren, argi utzi nahi izan duzue 'Leitzarango Autobidea' lema ez duzuela zuena egiten, Askatuak ez dela mezu horren partaide...

**ALMANDOZ.—** Guk ez dugu azaldu nahi izan aurka edo alde geundenik. Talde bezala izan dugun jarrera, politika kontuak tartean ez liratekeela sartu behar defendatzea izan da. Iritzi guztietako jendea dago klubean, zuzendaritzan zein bazkideen artean, eta geure lotura saskibaloia da. Eta ordaina garestia izan da, aurrera egiteko makurtu beharra izan bait dugu.

**EGUNKARIA.—** Gogorra egingo zitzaizun makurtu beharra...

**ALMANDOZ.—** Puff! Nire bizitzako unerik larriena izan da, eta oraindik ere ez zait pasa. Behin baino gehiagotan egin dut negar egun hauetan.

**EGUNKARIA.—** Datozen bi urteetarako desioren bat?

**ALMANDOZ.—** Beno... Gizarte kontuetan, Diputazioak eta Lurraldeak eman diguten adibidea eredu bihurtzea; elkarrizketa bait da gauzak konpontzeko bidea. Eta kirol munduan, lehenbailehen ACB Ligara sailkatzea eta hor sendotzea. Ez argazkietan edo egunkarietan gehiago azaltzeko, baizik eta Gipuzkoako mutil eta neska gazteek eredu on bat izan dezaten.



**Iñaki Almandozek makurtu beharraren gogorra aipatu digu.** C. VILLAGRAN

> Bazkideei gugan sinestea eskatu genien, zuzendaritzari fedezko botoa emateko, Leitzarango Autobidearen gatazka konponduko zen susmoa genuelako.

> Nigar ere egin izan dut azken egun hauetan. Latza da oso hamasei urteko lana hutsean geratzeko arriskuan ikustea, baina gaurkoa egun handia da.

### SOSLAIA

### *Hamasei urte eta gero...*

*Hamasei urte darama Iñaki Almandozek Askatuak taldean. Klubaren sorreran parte hartu zuen, eta hurrengo urterako Lehendakari izendatu zuten. Saskibaloian kluba maila gorenean izan eta gero, azkenetakoak «bizitzako egunik txarrenak» izan dira Almandozentzat. Negarrari ere ezin izan dio eutsi. Atzo, ordea, pozik zegoen —«egun handia da gaurkoa»— Diputazioak eta Lurraldeak Leitzarango Autobidearen trazatu alternatiboaren gainean akordioa lortu zutelako. Behingoz, usteak ez dira ustel.*

## LABURREAN

### ALUSTIZA-ZEZEAGAk erraz irabazi zuten atzo La Blancan

Alustiza eta Zezeagak 22-12 irabazi zioten Retegi II eta Aldazabal IIari La Blancako torneoaren barruan jokatutako partiduan. Martin Alustizak koadro erdiko abantaila izan zuen sakatzerakoan eta hiru tantu egitea lortu zuen, Erasungoak bat egiten zuen bitartean. Zezeagak partidu bikaina jokatu zuen eta atzeko koadroetan nagusitzea lortu zuen. Aldazabal II izan zen, partehartzaileen artean, lanik eskasena egin zuena. Alustizak defentsa bikaina erakutsi zuen berriro ere Retegiren kontra ●

### BERGER azkarrena Hungariako lehen entrenamenduetan

Gerhard Berger austriarra izan zen azkarrena atzo egin ziren Hungariako F-1 Sari Nagusiko entrenamenduetan. McLaren taldeko gidariak 1.18.238ko denbora egin zuen, zirkuitoko markatik hurbil eta Ayrton Senna brasildarrak goizean lortutako lehen tokia eskuratu zuen. Entrenamendu hauetako gauzarik aipagarriena Ricardo Patrese (Williams - Renault) italiarraren istripua izan zen. Patresek ez zuen kalte handirik jasan, baina seigarren postua besterik ez zuen lortzerik izan ●

### HENRY IRAZOKIren egoerak hobera egin zuen atzo

Henry Irazokiren egoerak onera egin zuen atzo, Donostiako Arantzazuko Ama eritetxeko sendagileek ezagutzera eman zutenez. Realeko jokalaria hasi da edariak hartzen eta hitzegiten. Era berean, Irazokiren beso eta zangoen mugikortasuna eta aurpegiko traumatismoak sortutako handituak ere hobetu dira. Lagun batekin motoz zihoala, istripu larria izan zuen Irazokik joan zen igandean, eta buru hezurreko traumatismoa izan zuen horren ondorioz ●

### GORLIZ-PLENTZIA igeriketa proba bihar ikusgai

Gorliz-Pentzia igeriketa probaren bigarren edizioa jokatuko da bihar, Bizkaiko Diputazioko Kirol Zuzendariak atzo adierazi zuenez. Probak 2.200 metroko ibilbidea izango du eta Igeriketa Federazioko lizentzia duten guztiek har dezakete parte. Irteera Plentziako portuan izango da eta bertan 350 igerilari egotea espero dute antolatzaileek, horien artean Espainiako zenbait igerilari ezagun. Proba honek 800.000 pezetako (40.000 libera inguru) aurrekontua du ●

## Joxemiel Barandiaranen osasun egoerak gero eta hobea dirudi

**DONOSTIA**

Azken egunetan hobera egin du Joxemiel Barandiaranen osasun egoerak. Atzoko parte medikoak ere berretsi egiten zuen, Joxemiel gero eta hobeto dagoela. Hala ere arnas bihotz gutxiegitasuna ez da desagertu. Ofizialki adierazi ez bada ere, bi egun barru Arreta Intentsiboko Unitatea utz dezake etnologo ataundarrak, eta gelara pasa. Joxemiel Barandiaranen nahia Ataungo 'Sara' bere baserrira itzultzea da.

Zortzi egun daramatza ingresaturik Donostiako Arantzazuko Gure Ama eritetxean. Egunero bezala atzokoan ere bisita ugari hurbildu zen bertara. Besteak beste Bizkaiko Diputatu Nagusia den Jose Alberto Pradera eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultur Diputatua den Maria Jesus Aranburu izan ziren atzo Joxemiel Barandiaran bisitatzen.

Donostiako 52. Musika Hamabostaldia

## Antigoaleko musika zikloa gaur hasiko da Santa Teresa komentuan

**DONOSTIA**

Antigoaleko musikari eskainitako ziklo berezi eta berria antolatu da aurten Donostiako Musika Hamabostaldian, gaur hasi eta hilabete honetako larunbat guztietan jarraituko dena. Lekua ere berezia eta berria dela esan daiteke, zikloa bera den bezalakoxea: Santa Teresako komentua, XVI eta XVII mendeetako edifizio ikusgarria, orain dela gutxi berriztatua.

Gaurko ekitaldian, Ametsa abesbatza irundarrak Joanes Antxietaren konpositore azpeitiarraren obrak abestuko ditu, Jose Manuel Tiféren zuzendaritzapean.

Ondoko egunetan, honako abesbatza hauek arituko dira ziklo honetan: abuztuaren 17an, Ensemble Organum talde frantziarra, 24ean Jon Baguesek zuzentzen duen Capilla Peñaflorida, eta 31n Prahako Musika Bohemikoa taldea. Ziklo Donostiako Musika Udal Kontserbatorio Nagusiko Bandako Ganbara Taldeak Ch. Gound eta Wolfgang Amadeus Mozarten obrak eskainiko ditu gaur, gaueko 8etan, Donostiako Udaletxeko Batzar aretoan.



Santa Teresa komentua. C. VILLAGRAN

Jose Luis Marcoren zuzendaritzapean, iaz ekin zion lanari ganbara talde honek, publiko zabalari nahiko ezezaguna zaion musika mota hau landu eta zabaltzeko asmoz. Izan ere, Euskal Herrian oso gutxi landu izan da, oro har, kamera musika.

Donostiako Musika Udal Kontsebatorioko ikasleek osatzen dute talde hau, eta beren heziketarako oso baliagarria izan ohi da horrelako lanetan aritzea.

FESTA — Nafarroako jaialdiak

## Musika era ezberdinak eta antzerki emanaldi bat Zangotzako egitarauan

### Atzo aurkeztu zituzten herri honetan ikusiko diren lau ekitaldiak

**Atzo egin zen Nafarroako Jaialdien barne Zangotzan egingo diren emanaldien aurkezpen ofiziala. Mozarten musika, tangoa eta Aragoiko musika herrikoia entzun ahal izango dira bertan, 'Las Veneno-ren' emanaldia ikusteaz gain.**

**IRUÑEA**

Nafarroako Jaialdietan W.A. Mozart-en omenez antolatu diren emanaldien barne, datorren astelehenean Zangotzan abestuko du Iñaki Fresan tenore nafarrak. Aurtengo Jaialdietan Zangotzarako aukeratu diren lau ikuskarietako lehena izango da hori.

Iñaki Fresan tenore baritonoak, Maite Askunze pianojolearen laguntzarekin, Mozarten lieder eta operako ariak eskainiko ditu. Kantaldia gaueko bederatzietan izango da, El Salvador elizan. Pablo Sarasate kontserbatorioan ikasiak dira biak, Fresan eta Askunze, eta kanpoan kontzertu asko emanak. Asteartean zerbait arinagoa izango da Zangotzako emanaldia. 'Las Veneno' taldearen eskutik iritsiko da antzerki-kabareta, gaueko bederatzietan Labrit zineman.

**TANGOA ETA ARAGOIKO MUSIKA**

Pepa Giralte, Montse Alentorn eta Gracia Olayok euren bigarren lana, 'Veneno pa'tí' taularatuko dute. Hirukote madrildarrak gatz piskat jarriko du, ohizko umore eta ironiarekin. Dozena bat sketch eskainiko ditu Las Veneno taldeak, Ferran Rañeren zuzendaritzapean. Irribarrea, musika eta erotismoa dira hirukote madrildarrak publikoa probokatzeko erabiltzen dituen arma pozoinduak. Asteazkenean tango gaua izango dute Zangotzara hurbiltzen direnak. Ordu berean eta Labrit zineman berriro, Cholo Agirre eta Alejandro Barlettak benetako tangoa ekarriko digute Argentinatik. Musikaz gain, munduko tango dantzari bikote onenez gozatzeko aukera egongo da.

Zangotzako egitarauari bukaera emateko, ostegunean La orquestina dal Fabirol taldeak 'Zorras, pollos y villanos' kontzertua eskainiko du. Aragoiko musika herrikoia jotzen duen talde hau iazko Folk Jaialdietan saritua izan zen. Taldearen izenak, fabirol izena duen musika tresna batean du oinarria.



Iñaki Fresan eta Maite Askunze astelehenean izango dira Zangotzan.

LIBURUAK Hontza
Okendo, 4 - 20004 DONOSTIA
Telf: 42 82 89 / Faxa: 43 12 56

HAMABOST TABERNA
GIRO JATORRA
Konstituzioa, 15 DONOSTIA

ARGIA
Industrialdea, 1 eta 2
20160 Lasarte-Oria
TF. (943)371545,(94)4244663
FAXA: (943)365493

Musika Hamabostaldia 52 Quincena Musical


ANTZINAKO MUSIKA ZIKLOA
AMETSA KORUA
Zuzendaria: JOSE MANUEL TIFE
JOANES DE ANTXIETAren obrak
SANTA TERESA KONBENTUA
Abuztuak 10
17.00 orduetan

# blausta ! (9)

## Kanposantuan

Edorta Jimenez

Bugattia aparkatzekotan dagoela, kanposantu aurrean aspaldiko 'Montesa' motorra ikusi du Jose Maria Ik. 'Montesa' pottoka beltza, bekaizkeriazko begiradak sortarazten zekizkiena, hantxe dago, berri moduan. Jose Maria IIak ondo gordeta eduki du urteotan. Aita eta semearen arteko gatazkaren irudi, B & M, makina zahar eta aldi berean dotore biak elkarren alboan arrats gorriari begira dagoz.

Itxita dago hilerriko burdinezko atea. Orman gora egin eta beste aldera jauzi, ez du beste biderik ikusten Iak. Duela hamar egun, abuztuaren batean, zerura igotzea adinako eritziko zion *gaina* hura erraz gaindutu du orain. Gaur jada gizon eginda dagoen agureak hirurogei urte ditu, aitzitik.

— Ez joat burua hautsiko ba berton —pentsatu du salto egin bitartean.

Barrenetxea sendiaren panteoiaren aurrean lurreratu da. Hor aurrerago hilerriko kapila dago eta ezkerretara gudatekoak lurperaturik dagozen aldea. Iparmendebaldeko ormaren atzean ostantzekotan da oraintxe eguzkia, itsasaldean. Errainuek oztaozta uzten dute erdirekitzen Iari. Hango hilobien artean halako itzal bat antzeman du, azkenean ere.

— Arrastion, aitta —aitari euskaraz egiten dio IIak, txikitan izandako ohituraren indarrez—; hemen nago, zure deiari erantzunda.

IIak binaka edo hirunaka erosten ditu janzkiak. Buruhauste gutxiago, esaten dio emazteari. Hala bada, ispiluak isladaturik bezala dagoz bata bestearekin aurrez aurre aita-semeak, zeren bart gauean IIIak aititari ekarri zion trajea eta IIak aldean duena, bat bera direla esan daiteke. Horretaz gain, adin bera ematen dute biek, bibote berdintsu horiekin. Izan ere, hirurogei urte zahar dena, bietariko gazteena, eta beste horrenbeste urte gazte dena, zaharrena, bizitzako bektoreek bat egiten duten puntuan dira biak.

— Ikusten joat ba etorri haizena. Esateko daukadana arin esatekoa dok. Ez hadi nire bila ibili. Aldatu egin joat testamentua, eta kittu —eskuak praketako poltsikoetan sartuta, 'Muertos por Dios y por la Patria' dioen hilobian jezarri da IIa.



— Baina, zu, benetan gure aita zara ala? Ez zara orain dala bi astekoa.

— Tentel halakoa, ez dok hire burua ikusten nirean? —geldi geratu da, burua tente, semeari begira—. Egunero gaztetuten nok apurtxoren bat. Halan segitu ezkero, laster desagertuko nok. Halan da ze, testamentu barria egin joat. Asiloan sartu ninduzuen, erruki barik, ze, ni beti izan nok ona baina tentela, ez dok? Halantxe esan jeustak hire seme alproja horrek esaten dokela heuk. Semeari izena Jose Maria ipintzea be, badok gero! Txiste ona, benetan. Zuek ni asiloan sartu eta etxea-eta, zuontzat. Ederto! A, eta Bugattia, ni hil orduko, salduta! Ez haiz hi makala, ur handitako arraina, ze hire izena esan eta ez ieustek inon kobratzen. Ba, akabo, ez jagok testamenturik hiretzat.

— Zeuk daukazu nire karneta, Bugattian ahaztuta itzi nebana, ezta? Emoidazu.

— Iso, hik aterako dok berri bat eta, itzistak hau niri, ze nirea zahar geratu dok —barre algaretan hasi da Ia—. Karneta, testamentua,... paperen ardura itzela hartzen dok hik gero!

— Kanposantua ez da barre egiteko lekua.

— Praketan kaka dariala hago, ezta? Hi, ez haiz baliente makala hi. Hildakoak hilda jagozak, biziok bizirik. Beldurti kakati hori, defuntuen ikara izatea be!

— Balio barik itziko dot testamendu barria. Alferrik zabiltza.

— Ene, bai? Eta zelan egingo dok, ba?

— Halantxe —pistola atera du IIak.

— Tira, gordeik trasto hori, deskuidoan tiro egin eta hildakoren bat berpiztu ez dagian —barreka esan du Iak.

— Nigaz etorriko zara berriro Gure Etxeara.

— Hara! Ez esan. Guretxea e? A-si-lo-a, semetxoa, a-si-lo-a. Zaharrontzako aparkalekua, txatarrategia, autorik konpontzeko balio ez dauen garajea, horixe dok zuen Guretxea hori, aittu dok? Nire karrozeria barriz, gero eta hobeto jagok. Hirea joak zahartzen.

Jose Maria IIa izututa dago, su-txakurrak piztu bait dira horko alboko hilobian.

— Ez hadi ikaratu, mutil, su-txakurrak dozak. Baten baten hazurrak zuritzen jabiltzak arrak hor behean. Eta, zera, kendu egik pistola hori nire muturretatik. Neuk be neurea jaukat hemengo poltsikoan.

— Halan bada, hobeto, ze tiro egingo dot nik —esan eta tiro egin du IIak.

— Astakilo hori!

Huts egin du behin eta bigarrenean halakorik ez egiteko ahaleginetan ikusten da semea.

— Ez deustak beste biderik itxi —eskua poltsikotik atera eta tiro egin dio aitak semeari.

Balak erdi bi egin dio bihotza. Behera ailegatu baino lehen gorpu, lehendik besteren batentzako aitzurturiko zuloan jausi da blausta! Jose Maria Harribarruena IIa, herrian Ekarribarrura esaten izan diotena, ur handitako arraina.

Gorpuari lepoa eman eta alde egin du Jose Maria Harribarruena Lehenak. Zirgit ere ez du egin. Sistema endokrinoak ahazturik bide du aitatasuna zer den, arean.

Behin kanpoan, Pan Americako lepo zorroa atera Bugattitik eta Montesan zaldun abiatu da gaueko iluntan barrena.

## txipiroi esnea



Egilea: Pu Songling
Ipuinaren izenburua: 'Zhutxeng-eko gizon bat'
Itzultzailea: Xabier Kaltxakorta
Liburua: 'Pu Songling-en ipuinak'
Argitaratzailea: Labayru ikastegia
Orrialde kopurua: 164

Sun Jingxia-k, Zhutxeng-eko letratua, bere barrutitik bidalapur batzuk igaro eta gizon bat hil ebela kontatu eustan. Ja ia lepamoztua itxi eben, burua bular ganean zintzilik ebala. Alde egindakoan, hildakoaren morroiak hilotza hartu eben lurperatzeko. Baina hari-harietan egoala igerri eben, arnas izpiren bat baeukala, eta bertoragotik aztertueran eztarzuloa ez egoala osotoro erdibitua konturatu ziran. Burua bere lekuan ondo jarri eta etxera eroan eben. Biharamunean lanturu eta adiaka ekin eutsan eta urte erdigarrenean sendatuta egoan, emon eutsoen kontuzko elikadureagaitik.

Hamaika bat urte geroago, gizonori aldarte onean egoala bere bi-hiru lagunekaz, euretariko bati besteoi barre eragin eutsen konturen bat otu jakon. Gizonorrek barre eta barre ziharduan, eta barrearen barreaz samako epaia zabaldu eta burua jausi jakon. Odola borboka, txirrian erion. Lagunak hil zala onartzeaz ganera ez eben ezer egin ahal izan.

Bere aitak barre eragilea salatu eban. Baina guztien artean hiletetarako dirueskea egin eta aitak salaketea erretiratu eban.

54 55

# Pianojole gazteak, ezinbestean atzerrian ikasiak

Donostiako Musika Hamabostaldian Interprete Gazteen Zikloa egin da Miramar Jauregian. Miguel Angel Herrero donostiarra, Javier Perez de Azpeitia beratarra, Amaia Epelde azkoitiarra eta Patxi Aizpiri donostiarrak Mozarten Pianorako Sonaten Integrala jo dute. Donostiako kontserbatorioan ikasiak dira laurak eta ondoren atzerrian ikasitakoak.



Oinarrizkoa Donostian ikasi badute ere, atzerrian trebatu dira. Lauren artean Mozart-en pianorako sonaten integrala jo dute Donostiako Miramar Jauregian.

CARLOS VILLAGRAN

## Herrero: «Mozart-en obrak jotzeak ematen du beldurrik handiena»

IÑAKI BASTARRIKA / **DONOSTIA**

**EGUNKARIA.—** Asteartean jo zenuen, zer moduz? **MIGUEL ANGEL HERRERO.—** Pozik nago, bildurra bait nuen, ez nengoen urduri, baina ez nekien zer gerta zitekeen. Oso gauza arriskutsua da, Mozart da jotzeko beldurrik haundiena ematen duena. Musika idatzita dagoen modua, hain da argia, oso erraz igartzen dira akatsak, lau notarekin geniala den musika egin behar duzu eta duen mamia atera, hain da sinplea, oso zaila da musikari esanahia ateratzea eta jotzea eta zeure buruarekin seguru zaudela azaltzea.

**EGUNKARIA.—** Zeinekin prestatu dituzu lan hauek?

**M.A. HERRERO.—** Maria Angeles Renteriarekin eman ditut eskola batzuk Madrilen, gainontzean neuk landu ditut etxean.



Miguel Angel Herrero. C. VILLAGRAN

**EGUNKARIA.—** Zein izan da zure ibilia atzerrian?

**M.A. HERRERO.—** Pianoko bederatzigarren maila egin ondoren Alemaniara joan nintzen, Friburgora eta lau urtez egon nintzen Robert Alexander Bohnke irakaslearekin. Orain urte bete etorri nintzen hona eta etorri bezain laster eskaini zidaten Hamabostaldiko lana eta oso pozik jarri nintzen, nitaz ahaztuta egongo zirela uste nuen, baina ez.

**EGUNKARIA.—** Alemaniako esperientzia nolakoa izan da?

**M.A. HERRERO.—** Guztiz baikorra, oso ona. Ez da irakasle arekin ikasten dena soilik, erabateko musika giroan ibiltzea oso garrantzizkoa da, horixe bait da betidanik amestutakoa.

**EGUNKARIA.—** Zer aukera du hemengo ikasle batek?

**M.A. HERRERO.—** Oso gutxi. Espainia mailan irakasleren bat bada ona, baina ikasle horrek ezin ditzake hartu pianoa ikasi nahi duten guztiak. Irten egin behar da, baina zaila da irtetzea, diru asko behar da, jende askok ez du baliabiderik eta ez dago guztientzat dirulaguntzarik.

**EGUNKARIA.—** Zeu nola irten zinen?

> Orain urte bete etorri nintzen hona eta etorri bezain laster eskaini zidaten Hamabostaldiko lana eta oso pozik jarri nintzen, nitaz ahaztuta egongo zirela uste nuen, baina ez.

**M.A. HERRERO.—** Nire gurasoek ordainduta irten nintzen, azken urtean Foru Aldundiak 400.000 pezetako (20.000 libera) dirulaguntza eman zidan, baina horrek ez du ezer ere irauten, sei hilabete inguru, besterik ez.

**EGUNKARIA.—** Orduan hemengo ikasle batek nekez irten dezake kanpora.

**M.A. HERRERO.—** Bai, oso nekez. Ni zorionekoa izan naiz, nire gurasoek diruz laguntzeaz gain musika ikasteko erabakia onetsi eta bultzatu dute. Ezagutzen dut nik jendea, gurasoek eragozpenak jartzen dizkiona. Hogei urteko gazte batek ez du dirurik eta hara joan eta ikasketak ordaintzeko lana egin behar baduzu, ez duzu ikasteko denborarik.

## Amaia Epelde: «Unibertsitate ikasketa da musika Europan»

IÑAKI BASTARRIKA / **DONOSTIA**

**EGUNKARIA.—** Lauron artean Mozarten Pianorako Sonaten Integrala jo duzue, jotzeko garaian zer nolako obrak dira Mozartenak?

**AMAIA EPELDE.—** Oso zailak dira jotzeko, beste konpositoreek, Chopinek, beste konpositore erromantikoek edo kontenpoaneoek libertade gehiago ematen dute jotzeko momentuan. Mozartek oso erregela estuak ditu jotzeko, horregatik erregela horietara zuzendu behar duzu. Oso sinplea da berez, baina sinpletasun hori atera behar diozu, erakutsi egin behar duzu gai zarela.

**EGUNKARIA.—** Noiz hasi zinen kontzertu hau prestatzen?

**AMAIA EPELDE.—** Bi hilabetetan prestatu dut, New Yorken beste programa bat joz ihardun nuen.

**EGUNKARIA.—** Kanpoan asko ibilia zara, esango al diguzu nondik nora ibili zaren?

**AMAIA EPELDE.—** Donostian zortzigarren maila bukatu nuenean, lehen saria eta ohorezko matrikularekin, Madrilera joan nintzen eta hiru urtez ikasi nuen Fernando Puchol-ekin, bederatzi eta hamargarren maila egin nuen berarekin. Hamargarrena ohorezko matrikularekin bukatu nuen. Gero gobernu sovietarrak dirulaguntza eman zidan lau urtez Leningradoko konserbatorioan ikasteko, oso esperientzi ona izan zen, han oso kultura handia dago, jendeak asko daki, irakasleak oso onak dira, baina aldaketa politiko hauekin ekonomia oso gaizki dago eta orain bi urte t'erdi hasi ziren ikasle atzerritarrentzat gauzak zatartzen, ni orain urte t'erdi etorri nintzen. Gero Vienan eta Parisen ikasten ibili nintzen. Ondoren EEBBetara joan nintzen nire gurasoek finantziatuta eta sei hilabete eman nituen han. Orain dirulaguntza bat eman dit Espainiar-Iparramerikar Batzorde Bateratuak eta orain berriz noa EEBBra masterra egitera.



Amaia Epelde. CARLOS VILLAGRAN

> New York-en masterra atera dezaket, Europan ez dago masterrik. New York oso hiri kulturala da eta maila ona dago.

**EGUNKARIA.—** Zer dago EEBBetan Europan egin ezin daitekeena?

**AMAIA EPELDE.—** Han masterra atera dezaket, Europan ez bait dago masterrik. Ez da hori bakarrik, New York oso hiri kulturala da, zirkulo itxiak daude, baina maila ona dago, irakasle onak eta merezi du joateak.

**EGUNKARIA.—** Kontsebatorioan dauden gazteentzat zer irtenbide ikusten duzue hemen eta kanpoan? Zer aholkatuko zenieke?

**AMAIA EPELDE.—** Aukera baldin badute joan daitezela atzerrira, askoz gehiago ikasten da kanpoan. Hemen berriz, kontzertuak ematen dira, baina noiz? Bat orain eta bestea hemendik hamabost egunetara, ez dago erritmorik, ez dago kulturarik. Atzerrian kultura handia dago eta horrekin ikusi egiten duzu nola jotzen den eta asko ikasten duzu. Viena, Alemania eta Frantzia oso toki onak dira.

**EGUNKARIA.—** Hemen zer falta dela uste duzu?

**AMAIA EPELDE.—** Irakasleek txiki txikitatik erakutsi beharko liekete haurrei. Nik Soviet Batasunean ikusi dut umeei nola erakusten zaien, umea lau urterekin hasten da piano ikasten, ez oso serio, jolas gisa. Orduan umea gustora hasten da musika ikasten; hemen berriz oso serio ikasten da, oso zorrotz, eta umeak ez du musika gustoz hartzen. Hortaz gain, hemen musika hobby gisa hartzen da. Horrela kulturak ezin du inola ere gora egin. Europa guztian ikasketa unibertsitarioa da musika, hemen ez. Nik dena aldatuko nuke, hasi jendea mentalizatzen, musika kultura dela, hau ere garrantzitsua dela eta karrera bat dela ohartaraziz. Gero irakasleek umeei txiki txikitatik ongi erakusten hasi, jolas eginez, baina tekinikoki eta kulturalki ongi erakutsiz.

**EGUNKARIA.—** Orain EEBBetara zoaz, zer asmo dituzu aurrerantzean?

**AMAIA EPELDE.—** Orain urte beterako beka dut New Yorkera joateko, masterra egin nahi dut, bi urte behar dira horretarako eta bigarren urterako dirulaguntza lortzen saiatuko naiz. Hori bukatutakoan lehiaketa batzutara aurkeztu nahi nuke eta kontzertu batzuk eman.

BILINTX LIBURUDENDA
DONOSTIAN Euskal gaiak: Fermin calbeton, 30 Tel.: 420930
Gai orokorrak: Esterlines, 10 Tel.: 420224/420080
IRUNEN: Republica Argentina, 4 Tel.: 626817
TOLOSAN: Arostegieta, Tel.: 673533
BERGARAN: Ibargarai, 14 Tel.: 764050

XALBADOR LIBURUDENDA
Comedias, 14
Tel.: 224167/229981 FAXA: 211061
31001 IRUÑEA

URRETXINDORRA LIBURUDENDA
Iparragirre 26
Tel.: 4240228/4244396 FAXA: 4244235
48011 BILBO

EUSKAL LIBURU GUZTIAK eta GAI OROKORRETAKOAK ⇨ DISKAK, KASETAK, KONPAKTOAK ⇨ JOKU DIDAKTIKOAK ⇨ BIDEOAK

# Hamasei antzerki emanaldi ikusi ahal izango dira Bilboko jaietan

## Euskarazko obra bat bera ere ez da ageri programatutakoen artean

**Antzerki emanaldi ugari izango da aurten Bilboko festetan, euskaraz aritzen den talderik ezin ikusiko bada ere. Antzerki espainiarreko aktore ezagun asko izango dira Bilbon ondorengo egunotan taularatuko diren hamasei obretan.**

**BILBO**

Aktore nagusiak Iñaki Miramon eta Amparo Larrañaga dituen 'Una pareja singular' ('Bikote bitxia') antzezlanaren estreinaldia izan daiteke hamasei obren arteko aipagarriena. Astoria katea izan da obra hau Bilbora ekarri duena. Jean-Noel Fenwich-ek idatzia da lan honen gidoia, eta Parisen oso arrakasta handia izan zuen, orain dela bi urte, frantsesezko bertsioak.

Gainerakoan, Madrilen estreinatu eta arrakasta handia izan duten lanak dira Bilboko jaietan ikusi ahal izango diren gehientsuenak. Aktore nagusiak Ana Diosdado, Maria Luisa Merlo eta Manuel Tejada dituen 'Trescientos veintiuno, trescientos veintidós' ('Hirurehun eta hogeitabat, hirurehun eta hogeitabi') izeneko lana ere Astoria kateak ekarriko du, Manuel Tejadaren 'Palomas intrépidas' ('Uso ausartak') bezalaxe.

Arriaga antzokian ikusi ahal izango diren emanaldi nagusiak Adolfo Marsillach-en 'Feliz aniversario' ('Zorionak urteurrenean'), Jacinto Benaventeren 'Rosas de otoño' ('Udazkeneko larrosak') eta Rafael Mendizabal antzerkigile donostiarraren 'La abuela echa humo' ('Amonari kea dario') dira, azken hau Rafaela Aparicio aktore ezagunaren partaidetzarekin. Ercilla Antzerki Sariak ere Bilboko jaien barruan banatuko dira. Amparo Rivelles eta Puala Sebastian aktoreak daude aurten saritutakoen artean.

**Zumaiako VIII Uda Musikala**

# Joan zen urtean 400 argitaletxe sortu ziren Soviet Batasunean

**MOSCU**

Soviet Batasunean iaz arte ez zegoen argitaletxe pribaturik. 'Perestroika' dela arrazoi, 1990ean laurehun argitaletxe berri sortu ziren. Egoera berri honetan, Progreso argitaltxea —Soviet Batasuneko garrantzitsuena— 'Guinness' rekorren liburuan sartu da, 1990ean liburu gehien argitaratu duen argitaldaria izateagatik.

«1920an, argitaletxe pribatuak debekatu egin ziren eta Estatuak 73 urtetan monopolioa izan du eta argitaletxeak propaganda ideologikoa egiteko tresna bezala erabili dira» adierazi du Alexandr Avelichev-ek, Progreso argitaletxeko zuzendariak.

Prentsa lege berriak argitaletxeen pribatizazioa ekarri du eta honekin, «irakurle sovietarra, zentsuratuak izan ziren liburuak ezagutzen hasi da». Baina era berean, desagertu egin dira iaz arte Gobernuak ematen zituen dirulaguntzak argitaratzen zen liburu bakoitzeko. Eta beraz, liburuen kostua eta salneurria mendebaldeko herrialdeen parean jarri da.


IRAGARKI MERKEAK (943) 46 90 22

oskorri
Disko berria
bi ere dantzari
Kontratuetarako (94) 416 31 22

34x17mm
EGUN BAT 840pta/42l.
ASTEBETE 4.160pta/208l.
BI ASTE 7.200pta/360l.
HILABETE 10.100pta/505l.

SENDAGILE DENTISTA
J. M. ARIZALA
ASEGUROAK: Lagun Aro, Diputazioa, Previasa, Asisa, Capisa, Ipresa, Medifiata, Salud Data
Ferrerias plaza, 5-entr.
Tfna.: 45 90 45
Amara DONOSTIA

34x37mm
34x37
MODULOA
EGUN BAT 1.680pta/84l.
ASTEBETE 8.320pta/416l.
BI ASTE 14.400pta/720l.
HILABETE 20.200pta/1.010l.

34x37ko
BI MODULO
EGUNBAT 3.360pta/168l.
ASTEBETE 16.640pta/832l.
BI ASTE 28.800pta/1.440l.
HILABETE 40.400pta/2.200l.

34x37ko
LAU MODULO
EGUN BAT 6.720pta/336l.
ASTEBETE 33.280pta/1.664l.
BI ASTE 57.600pta/2.880l.
HILABETE 80.800pta/4.040l.

Bidaiak Viajes TXINDOKI, S.A.

JIRA
PORTUGAL BUSA 9 EGUN .................... 38.900 pta.
MAROKKO HIRI INPERIALAK BUSA 10 EGUN .. 47.100 pta.
MAROKKO ATLAS SAHARA BUSA 12 EGUN ... 55.900 pta.
ITALIA BUSA 12 EGUN .................... 55.700 pta.
ITALIA BUSA + ABIOIA 12 EGUN .................... 64.900 pta.
EUROPA ERDIALDEA BUSA 13 EGUN .................... 61.900 pta.
EUROPAKO MUINA ABIOIA + BUSA 12 EGUN .. 74.600 pta.
INGLATERRA ESKOZIA ABIOIA + BUSA 11 EGUN .. 76.300 pta.
ESKANDINAVIA ABIOIA 10 EGUN .................... 95.300 pta.
ESKANDINAVIA FIORDOAK ABIOIA 10 EGUN .. 102.900 pta.
TURKIA ABIOIA 15 EGUN .................... 94.400 pta.
GREZIA ISTANBUL KAPADOZIA ABIOIA 15 EGUN .. 94.700 pta.
GREZIA ISTANBUL ABIOIA 15 EGUN .................... 92.700 pta.

PANAVISION EUSKADITIK IRTEERAK DONOSTIATIK
PARIS HERBEHEREAK BUS 10 EGUN .................... 48.900 pta.
ITALIAKO BIRA HANDIA BUSA 10 EGUN ......... 72.900 pta.
ITALIA ARTISTIKOA BUSA + ABIOIA 9 EGUN .... 82.900 pta.
ITALIA MAJIKOA ABIOIA + BUSA 9 EGUN ........ 82.900 pta.
ERROMA NAPOLI SICILIA ABIOIA 15 EGUN ... 134.900 pta.
ITALIA OSOA ABIOIA 15 EGUN .................... 131.900 pta.
PARIS HERBEHEREAK RHIN BUSA 10 EGUN ... 87.900 pta..
PARIS HERBEHEREAK RHIN
ABIOIA + BUSA 8 EGUN .................... 73.900 pta.
AMSTERDAM RHIN OIHAN BELTZA SUITZA
ABIOIA + BUSA 10 EGUN .................... 86.900 pta.
TIROL VIENA PRAGA ABIOIA + BUSA 11 EGUN .. 89.900 pta.
PRAGA BUDAPEST VIENA TIROL
ABIOIA + BUSA 11 EGUN .................... 95.900 pta.

FRANZISKO GASKUE, 1 / Telf.: 52 45 12 / 20100 ERRENTERIA
ETXAGUE GENERALA, 14 / Telf.: 42 38 84 / 20003 DONOSTIA
URDANETA, 11 Behea / Telf.: 88 72 00 / ORDIZIA
LEGAZPI, 8 Behea / Telf.: 72 37 76 / ZUMARRAGA

GURE BIDAIAK IRAILEAN
INDIA/NEPAL 28 egun .................... 252.000
TAILANDIA 22 egun .................... 212.000
EGIPTO 19 egun .................... 148.000
ITALIA (busa) 12 egun .................... 53.900
EUROPA ERDIALDEA (busa) 13 egun ...... 54.800
FIORDOAK (busa+abioia) 14 egun ........ 93.900
GREZIA (abioia) 15 egun .................... 94.500
TURKIA (abioia) 15 egun .................... 88.900
TXINA (Parisetik) 15 egun .................... 217.900
KENIA 16 egun .................... 213.600
BRASIL 16 egun .................... 164.500
EEBB/KANADA 16 egun .................... 170.000
KUBA 15 egun .................... 176.200
ERRUSIA 15 egun .................... 154.800

TREKKING ETA ESPEDIZIOAK
ANNAPURNA 29 egun (Urria) ............ 298.000
ACONCAGUA 21 egun (Abendua) ...... 295.000
DOLPO 24 egun (Urria) .................... 373.500
ANNAPURNA (talde txikia) 29 egun (Azaroa) ..260.000
KANGCHENJUNGA 30 egun (Azaroa) .. 379.000
MOUNT MCKINLEY ALASKA
30 egun (92 Ekaina) ............ 280.000

Aduana kalea 5
Tfna.: (943) 61.51.77
Faxa: (943) 61.95.17
20300 IRUN

ERRO BIDAIAK

Urbieta 6
Tfna.:(943) 33.00.49
20120 HERNANI


# Joan zen urtean 400 argitaletxe sortu ziren Soviet Batasunean

**MOSCU**

Soviet Batasunean iaz arte ez zegoen argitaletxe pribaturik. 'Perestroika' dela arrazoi, 1990ean laurehun argitaletxe berri sortu ziren. Egoera berri honetan, Progreso argitaletxea —Soviet Batasuneko garrantzitsuena— 'Guinness' rekorren liburuan sartu da, 1990ean liburu gehien argitaratu duen argitaldaria izateagatik.

«1920an, argitaletxe pribatuak debekatu egin ziren eta Estatuak 73 urtetan monopolioa izan du eta argitaletxeak propaganda ideologikoa egiteko tresna bezala erabili dira» adierazi du Alexandr Avelichev-ek, Progreso argitaletxeko zuzendariak.

Prentsa lege berriak argitaletxeen pribatizazioa ekarri du eta honekin, «irakurle sovietarra, zentsuratuak izan ziren liburuak ezagutzen hasi da». Baina era berean, desagertu egin dira iaz arte Gobernuak ematen zituen dirulaguntzak argitaratzen zen liburu bakoitzeko. Eta beraz, liburuen kostua eta salneurria mendebaldeko herrialdeen parean jarri da. «Oso garesti herritar gehienentzat» gehitu du Avelichev-ek.

George Orwell-en 'Abereen etxaldea' eta Sigmund Freud-en ikerketa lanak adibidez, iaz arte ez ziren inoiz argitaratu Soviet Batasunean. «Honek kultura pobrea izatea ekarri du. Kultura galdu du herri honek eta urtetan munduaren irudi itxuraldatua izan du».

Prentsa lege berriarekin batera zentsura ere desagertu egin da, nahiz eta Avelichev-en esanetan beste zentsura mota bat sortu da. «Autozentsura. Hau garbi ikusten da argitalpenetan. Erredaktoreek, euren buruak zentsuratu egiten bait dituzte».

# Camaron de la Islak zabalduko du Meridako Antzokiko jaialdi berria

**MERIDA**

Camaron de la Isla flamenko kantaria Meridako Antzoki Erromatarrean izango da gaur, Extremadurako Juntako Kultura Sailak eta Merida bertako Udaletxeko kultura batzordeak abuzturako antolatu duen programazioari hasiera emateko.

Camaron de la Islarekin batera, Calixto Sanchez kantari flamenkoa arituko da gaur gauean, eta Tomatito eta Manuel Franco gitarrajoleek lagunduko diete kantu flamenkoaren munduan eredu nagusiak diren bi kantari hauei.

Ekainaren 28tik abuztuaren 4era bitartean egindako Meridako XXXVII Jaialdiak oso arrakasta handia izan zuen, eta guztira 38.000 lagun baino gehiago izan ziren antolatutako antzezpen eta musika emanaldietara joan zirenak.

Arrakasta honen ostean, abuztuko programazioak ere jende asko erakartzea espero dute antolatzaileek. Gaurko emanaldiaz gain, Luis Pastor



Camaron de la Isla.

kantari extremeinoarena da aipagai abuztuko programazioan. Disko bat grabatuko du Pastorrek zuzenean, 22an eta 23an emango dituen kantaldiekin.

Musika klasikoa, dantza eta zarzuela ere izango dira Meridako Antzoki erromatarrean irailaren 4a bitartean.

# MUSIKA

• **BERASTEGI**
**Anje Duhalderen kantaldia** entzuteko aukera izango da. Herriko plazan 23.30etan.

• **BERMEO**
**Mikel Laboa abeslaria** izango da bere kantuekin batera. Pilotalekuan gaueko 11etan.

• **BUNUZE**
**Izadiari Besta: Gilles Servat, Michel Portal,** M.A. Estrellas eta Ohianbururen koru berria.

• **BURLATA**
**Su Ta Gar eta Bajo Cero taldeek** kontzertua eskainiko dute. Kanpan 23.30etan.

• **DONOSTIA**
**Gonzalo Trevijano eta Julia Diazek** piano errezitala emango dute, Udaletxeko Batzar Aretoan.
**Donostiako Musika Kontserbatorioko** Banda Sinfonikoaren Kamara taldearen kontzertua izango da, Miramar Jauregian.
**Ametsa Abesbatzaren kantaldia** izango da, San Bizente elizan.

• **GETXO**
**San Lorentzoko kontzertuaren barnean** Biotz-Alai taldearen kantaldia izango da. Algortako San Nikolas enparantzan 22:30etan.

• **GORLIZ**
**Tahures Zurdos taldearen eskutik** emanaldia izango da. Herriko pilotalekuan 23.00etan.

• **HONDARRIBIA**
**Musika Bandaren Kontzertua** entzuteko aukera izango da. San Pedro kalean 22.00etan.




• **LANESTOSA**
**Los Txikis.** Plaza Berrian 22.00etan.

• **MEÑAKA**
**Broken Bihotz.** Meñaka plazan 23.00etan.

• **ONDARROA**
**Delirium Tremens eta Piztiak taldeen kontzertua** izango da. pilotalekuan gaueko 11etan.

• **ZALLA**
**Trapu Zaharra.** Euskadi plazan 20.00etan.

• **ZUMAIA**
**Ikastaroen amaierako kontzertua** izango da. Maria eta Jose aretoan gaueko 10etan.
**Berbena berezia izango da Tarantela** taldearen eskutik. E. Gurrutxagan gaueko 12etatik aurrera.

# ERAKUSKETAK

• **AZPEITIA**
**San Agustin Eliza.** Hausnarketa Barrokoak. Jesus Mº Corman eta Koldobika Jauregi. Urrira arte.

• **BERA**
**Kultur etxea.** Etnografia erakusketa. Bihar arte.

• **BILBO**
**Arte Ederretako Museoa.** Hernandez Pijuanen obra grafikoa. Abuztuaren 31a arte. Horrezaz gain, **Adolf Loos-en lanak.** Irailaren 30a arte.



**BERTSOZALE** guztiek horren gustoko duten Mañukorta bertsolari bizkaitarra, Elorrion izango da gaur gaueko 10.30etan. Honekin batera izango diren bertsolariak Sorozabal, Agirre, Lazkano eta Unai Iturriaga gaztea izango dira. Fruizen ere izango da barre egiteko aukerarik, Peñagarikano, Lopategi eta Jon Enbeitarekin. Lastur herri bizkaitarrean Jon Lopategiren bertso saioa izango da.

**Somera kalea, 10.** Tomas Longarteren argazkiak. Irailaren 1a arte.

• **DONOSTIA**
**Kutxako aretoa** (Garibai). Valdés Leal-en pinturak. Iraila arte.

• **GASTEIZ**
**Amarica Aretoa.** XXI Bienal Monocrome Print. Bihar arte.

• **HONDARRIBIA**
**Inauteri galeria.** Zumeta marrazkiak. Abuztuaren 31a arte.

• **IRUÑEA**
**Armas aretoa** (Gotorlekua). 'Nafarroako Festibal' pintura saria. Abuztuaren 31a arte.

• **IRUN**
**Amaia Aretoa.** Bienabe Artia pintorearen erakusketa antologikoa. Abuztuaren 18a arte.

• **ZARAUTZ**
**Torre Luzea.** Carazoren akuarelak. Abuztuak 18 arte.
**Sanz Enea.** Jose Antonio Legorburu, Iñigo Ormazabal eta Daniel Txopiteak eginiko olioak. Abuztuaren 18a arte.

# BERTSOLARITZA

• **ELORRIO**
**Jokin Sorozabal, Joxe Agirre, Imanol Lazkano, Mañukorta** eta Unai Iturriaga arituko dira bertsotan. Lehiz auzoan gaueko 10.30etan.

• **FRUIZ**
**Anjel Mari Peñagarikano, Jon Lopategi eta Jon Enbeita** izango dira bertsotan, gaueko 9.30etan.

• **LASTUR**
**Jon Lopategi izango da** bertsotan gai librean eguerdi eta arrtsaldez.

# ANTZERKIA

• **DONOSTIA**
**'Demasiado para una noche' lana** antzeztuko du Pedro Osinagaren konpainiak. Antzoki zaharrean 20.00 eta 23.00etan.




• **OLITE**
**Antzerki talde nazionalaren eskutik,** Shakespearen 'Hamlet' obra antzeztuko da. Jaialdiko aretoan gaueko 10etan.

• **ZALLA**
**Trapu Zaharra taldearen emanaldia** izango da Euskadi enparantzan iluntzeko 8etan.

# IHARDUNALDIAK

• **DONOSTIA**
**Pepe Albaceteren Serigrafia tailerra.** Iraupena: Irailaren 2tik urriaren 31a arte. Inskripzio eguna abuztuaren 21ean amaituko da. Informazio gehiago jakin nahi izanez gero, Artelekura jo edo ☎47 00 21 / 45 36 62 telefono zenbakira deitu.
**Juan Carlos Savaterren Pintura tailerra.** Iraupena: Urriaren 1etik 31a arte. Inskripzio eguna irailaren 20a arte Artelekun. Informazio gehiago nahi izanez gero Artelekura jo.
**Esperientzia modernoari buruzko mintegia.** Iraupena: Irailaren 25etik 27ra. Inskripzio epea: Irailak 19. Informazio gehiago Artelekun.

# LEHIAKETAK

• **DEBA**
**Tene Mujika Lehiaketa.** Euskarazko narrazioak. Gaia librea izango da. Lanak aurkezteko epea: azaroaren 29a. Lekua: Debako Udaletxea. Informazio gehiago bertan.




• **DONOSTIA**
**Bilintx VI Haur eta Gazte Literatur Saria.** Bi sail egongo dira, OHO eta BBBko ikasleentzat alegia. Lehiakide bakoitzak nahi hainbat lan aurkez ditzake. Narrazio, ipuin luze edo nobela. Lanak aurkezteko epea irailaren 30ean eguerdiko hamabietan amaituko da. Helbide honetara bidali behar dira: Bilintx Liburudenda. Fermin Calbeton Kalea. 20003 Donostia. Informazio gehiago liburudendan edo bi telefono zenbaki hauetan: ☎ 42 02 24 edo 42 09 30.

• **EIBAR**
**Indalecio Ojanguren IV Argazki Lehiaketa.** Lehiaketa horretan parte hartzea nahi duenak Eibarreko Udal Kulur batzordera jo dezala. Lanak aurkezteko epea, urriaren 25ean amaituko da.

• **EUSKAL HERRIA**
**Euskaltzaindiak Elizanbururen** ohoretan bi sari antolatu ditu. Lanak aurkezteko epea: urriak 31.
**Euskal Herriko Literatur Sariak.** Euskal Literatura eta liburuen 'Euskadi' sariak eta gazteleraz idatzitako lanak argitaratuz, literatur eta zientzi alorreko sorkuntza-lanentzako laguntzak, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo sailak antolatua. Lanak, Kultura Lurralde Ordezkaritzen bidez aurkeztu beharko dituzte, irailaren 15a baino lehen, hiru aldakitan, orri zenbakituetan eta gutunazal itxiaren kanpokaldean lema jarriz.
**Gizarte Zerbitzuak Sustatzeko Euskadi Sariak.** Argazkigintza, Prentsa, Irratia, Ikusentzuteko Bideak, Ikerketa eta Instituzio-lana espezialitateak daude. Lanak eta kandidaturak helbide honetara bidali behar dira: Lan eta Gizarte Segurantza Saila, Gizarte-Ongizaterako Zuzendaritza. Wellington Dukearen Kalea 2, 01011 Gasteiz. Lanak aurkezteko epea urriaren 31ko eguerdiko 12etan bukatuko da.

• **GASTEIZ**
**'Baporea' Haur Liburu IV Lehiaketarako** epea zabalik dago azaroaren 15a arte. Idazlanak euskaraz izan behar dute, gaia librea izanez, baina narrazio edo eleberriaren barruan jeneroei dagokienez. Lehenengo sariak milioi bat pezetako (50.000 libera) kopurua du dirutan eta Santa Maria Fundazioak argitaratuko du. Bigarren sarituak, argitalpenaz gain, 200.000 pezeta eramango ditu. Argibideak izateko nahiz idazlanak bidaltzeko Santa Maria Fundaziora jo behar da, Txako auzoan 3, 48480 Arrigorriaga.

# ZINEMA-BIDEOA

• **BILBO**
**«Las Artes Plásticas en España».** Arte Ederretako Museoan 16.30etan.

# BESTELAKOAK

• **DEBA**
**'Euskal Herriko sestogintza'** erakusketa. Itziarko Ama ikastolan, abuztuaren 13a arte.

• **GETARIA**
**'Gizakia eta bere inguru ekologikoa'** erakusketa. Gure Txeru Aretoan, abuztuaren 15a arte.

• **HONDARRIBIA**
**'Sendabelarrak'** erakusketa. Zuloaga kultur etxean, abuztuaren 15a arte.
**Dantza ikastaroa.** Bi txanda izango dira: abuztuaren 5etik 16ra, eta 19tik 30era. Ikastaroa Zaindua Gaztetxean izango da. Izena emateko telefono honetara deitu: ☎64 31 98.

• **IRUN**
**Irungo Euskal Jira.** 12.00etan hasi eta 20.00etan amaituko da. Baina, ondoren, txistulari, trikitilari, dantzari eta bertsolariak izango dira bertan, besteak beste.

• **LIZARTZA**
**Irrintzilarien Lizartzako VIII Txapelketa.** Txapelketa hori irailaren 7an izango da, plazan. Nahi duenak har dezake parte, adinaren mugaketarik gabe eta, izena emateko epea txapelketa izango den eguna arte izango da zabalik. Izena emateko edo informazio gehiago jakin nahi izanez gero, Lizartzako udaletxera jo edo 68 20 17 telefono zenbakira deitu.
**Bikote Dantzarien Lizartzako IX Txapelketa.** Txapelketa hori irailaren 8an izango da, plazan 19.00etan. Izen emateko epea irailaren 6a arte izango da zabalik eta informazio gehiago jakin nahi izanez gero, Lizartzako udaletxera jo edo 68 20 17 telefono zenbakira deitu.

• **ZIZUR NAGUSIA**
**Dantza ikastaroa.** Hilabete osoan, asteartero 19.30etan izango da, gaztetxean, Ortzadar taldearen eskutik.




TEATRO PRINCIPAL
ANTZOKI ZAHARRA

Bihar, Igandea, hilak 11 eta Abuztuaren 18a arte
**20.00** eta **23.30** orduetan

**Pedro Osinaga**
**"Demasiado para una noche"**

Jatorrizkoa: **RAY COONEY**
Bertsioa: **JUAN JOSE DE ARTECHE**
Laguntzailea: **MANOLITO DIAZ**
Zuzendaritza: **ANGEL F. MONTESINOS**

Takilako ordutegia:
11.45-13.30/17.30-23.30
ANTZERKIDE TFNA.: 48.11.55

Donostiako Udala
Ayuntamiento
de San Sebastián

KULTUR UDAL PATRONATUA
PATRONATO MUNICIPAL
DE CULTURA







## HOROSKOPOA

UXUE AGIRRE

**♈ ARIES**
**martxoak 21 — apirilak 20**
Lorik ezin baduzu egin, leihoa ireki eta aldamenekoak zertan ari diren begira ezazu.

**♉ TAURUS**
**apirilak 21 — maiatzak 20**
Zezena izanik, hurrengo sanferminetarako zain egon beharko zara norbait harrapatzeko.

**♊ GEMINI**
**maiatzak 21 — ekainak 20**
Zure kasuan ez dago orduaren zain egon beharrik kanpanada jotzeko, ezta?.

**♋ CANCER**
**ekainak 21 — uztailak 21**
Zure 'kantzerra' sendatzeko, Zaragozako elektroi azeleradorea da irtenbide bakarra.

**♌ LEO**
**uztailak 21 — abuztuak 23**
Piztiak ugari dira munduan, baina zu guztien erregea. Zorionak.

**♍ VIRGO**
**abuztuak 24 — irailak 23**
Gaurko ilargi ilunak, amodio apasionatu bat ekarriko dizu, ala konkor bat da?.

**♎ LIBRA**
**irailak 24 — urriak 23**
Balantza desmontatuko zaizu, erdiko torniloa askatuko zaizu eta. Zoaz azkar burnidendara.

**♏ SCORPIUS**
**urriak 24 — azaroak 23**
San Antoniori erreza iezaiozu, hurrengo festetarako nobioa aurkitu nahi baduzu.

**♐ SAGGITARIUS**
**azaroak 23 — abenduak 23**
Ile gorria sexia omen da, baina zure bihotzeko arazoak ez ditu pelukeriak konponduko.

**♑ CAPRICORNIUS**
**abenduak 22 — urtarrilak 20**
Urrunean zaude, Lagun maitea noiz itzuliko zara EGUNKARIKO horoskopoak irakurtzera?.

**♒ AQUARIUS**
**urtarrilak 21 — otsailak 18**
Uretan hainbeste ibiltzea ez da komenigarria, urtu zaitezke eta.

**♓ PISCIS**
**otsailak 19 — martxoak 20**
Euskal dantzen erromantikotasuna ezin da zalantzan jarri, baina ez da horrela ligatzen.

## EFEMERIDEAK

### Dominique Soubeleten jaiotza.

**1897.** urteko abuztuaren 10ean jaio zen Hazparne herri lapurtarrean, Dominique Soubelet. 'Eskualduna' astekariko zuzendaria izan zen. Gizon horrek, hainbat lan idatzi zituen: 'Dinibaneko predikua', 'Petain Marechale Frantziaren aintzindaria' eta 'San Josep Jesusen aita ordekoa Mariaren espos laguna'. 'Gernika' eta 'Eusko jakintzan' kolaboratzailea izan zen eta 1966. urtean, 'Maria Goretti' idatzi zuen. Antzerki lan bat ere kaleratu zuen, 'Xuriket-egile kalakariekin' izenekoa. 1970. urtean hil zen 73 urte zituela.

**1002.** Almanzor, Medinaceli hirian hil zen kristau gudariek inguraturik zeukatela.

**1917.** Bilbon greba handia egin zen. Hiria militarrek hartu zuten.

**1926.** Santa Kruz apaiza euskal borrokalaria Colombian hil zen.

**1961.** Jean Etxepare euskal idazlea hil zen 24 urte zituela.

**SANTORALA.** Lorentzo, Paula.

## TELEFONOAK

**Hegoaldetik Iparraldera** hots egiteko: 07-33- aurrezenbakia.

**Iparraldetik Hegoaldera:** 19-34- (eta 45, 4, 43 edota 48, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa edo Nafarroara deituz gero).

**Hegoaldeko herrialdeen artean:**
Araba: 945-
Bizkaia: 94-
Gipuzkoa: 943-
Nafarroa: 948-

### IPARRALDEA

| | |
|---|---|
| Kostaldeko ospitalea | 59 44 35 35 |
| SAMU | 15 / 59 63 33 33 |
| Pozoindatze kasuetan | 56 96 40 80 |
| Suhiltzaileak | 18 |
| Suhiltzaileak BAMen | 59 63 55 55 |
| Polizia | 17 |
| Baionako Suprefetura | 59 59 09 19 |
| Elektrika-gas arazoak | 14 / 59 52 10 18 |
| Errepideetako berri | 56 96 33 33 |
| Kontseilu Orokorra | 59 25 78 40 |
| Miarritzeko aireportua | 59 23 90 66 |
| SNCFko trenbideak | 59 55 50 50 |
| Laborantza Ganbara | 59 29 50 43 |
| Ordua telefonoz | 36 99 |
| Meteo agiria (grabatua) | 36 65 08 64 |
| Meteo zerbitzuak | 59 23 84 15 |

### HEGOALDEA

| | |
|---|---|
| SOS Deiak | 088 |
| Udaltzaingoa | 092 |
| Polizia Nazionala | 091 |
| Ordua telefonoz | 093 |
| Telefono argibideak | 003 |

### ARABA

| | |
|---|---|
| Suhiltzaileak | 28 25 25 |
| Gurutze Gorria | 13 47 47 |
| DYA | 28 10 20 |
| Errepidetako informazioa | 25 42 00 |
| Ertzaintza-Arkaute | 28 20 00 |
| Miñoiak | 13 55 00 |
| Goardia Zibila | 25 61 00 |
| Txagorritxuko Ospitalea | 24 26 00 |
| Santiagoko O. Orokorra | 25 36 00 |
| Ospitale Militarra | 13 65 77 |
| Poliklinikoa | 22 33 00 |
| Arana Eritetxea | 28 28 00 |
| 'Nª Sª Esperanza' klinika | 25 25 00 |
| Asepeyo klinika | 27 46 55 |
| Araba klinika | 14 21 00 |
| Forondako Aireportua | 27 33 00 |
| Gasteizko RENFE geltokia | 23 20 30 |
| Autobus geltokia | 25 84 00 |
| 'Radio Taxi' | 13 60 60 |

### BIZKAIA

| | |
|---|---|
| Diputazioko suhiltzaileak | 492 28 00 |
| Bilboko suhiltzaileak | 423 30 00 |
| Gurutze Gorria | 422 22 22 |
| DYA | 431 92 00 |
| Ertzaintza | 444 14 44 |
| Larrialdiak (Osakidetza) | 475 75 00 |
| Basurtoko ospitalea | 441 88 00 |
| Galdakaoko eritetxea | 456 88 16 |
| Santa Marina | 446 20 66 |
| Gurutzetako ospitalea | 490 31 00 |
| Sondikako aireportua | 453 13 50 |
| RENFE | 423 86 33 |
| ET/FV Atxuri | 433 95 00 |
| ET/FV San Nikolas | 416 13 12 |
| ET/FV Unamuno plaza | 415 50 26 |
| Bizkaia irrati taxiak | 416 22 22 |
| 'Radio Taxi' | 444 88 88 |
| 'Tele Taxi' | 444 23 33 |

### GIPUZKOA

| | |
|---|---|
| Donostiako suhiltzaileak | 080 |
| DYA | 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 22 22 22 |
| Itsasoko Gurutze Gorria | 27 22 22 |
| Ospitale Probintziala | 45 40 00 |
| Erresidentzia | 45 38 00 |
| Gurutze Gorria (Donostia) | 21 46 00 |
| Gurutze Gorria (Irun) | 61 12 03 |
| Poliklinikoa | 46 22 00 |
| Deba Garaiko eritetxea | 79 53 00 |
| Zumarragako ospitalea | 72 39 01 |
| Ertzaintza | 28 88 88 |
| Goardia Zibila | 21 11 00 |
| Hondarribiko aireportua | 64 22 40 |
| RENFEko geltokia | 28 35 99 |
| ET/FVko geltokia | 45 01 31 |
| Easo Taxiak | 46 76 66 |
| Santa Clara Taxiak | 46 64 55 |
| Radio Telefonoa | 42 66 42 |
| Suital Taxiak | 39 80 18 |

### NAFARROA

| | |
|---|---|
| SOS Deiak/Foruzaingoa | 088 |
| Iruñeko suhiltzaileak | 22 22 22 |
| DYA | 17 17 17 |
| Gurutze Gorria | 088 |
| Errepidetako informazioa | 22 91 17 |
| Goardia Zibila | 22 11 00 |
| Eguneko Psikiatri O. | 27 38 12 / 61 |
| Nafarroako Ospitalea | 10 21 00 |
| Bideko Ama Birjina O. | 10 94 00 |
| Noaingo aireportua | 31 75 12 / 51 |
| Iruñeko Autobus geltokia | 22 38 54 |
| RENFEko geltokia | 12 69 81 |
| Radio Taxi | 21 00 00 |
| Teletaxi | 23 23 00 |
| Goardiako Farmaziak | 22 21 11 |

## EGURALDIA




### Aldaketa handirik ez

Zeruan lainoak izango badira ere, atzokoa baino eguraldi hobea izango da gaur. Kostaldean nahiz barnekaldean, eguzkia izango da nagusi egun guztian zehar. Mendi aldean, lainoak ugariagoak izango badira ere, ez dira garrantzi handikoak izango, euri arriskurik ez bait dute ekarriko.

### Iragarpenak

Zeruan ez da laino handirik izango Euskal Herriari dagokionean. Pirineo aldean berriz, lainoak ugariagoak izango dira, dena dela garrantzirik gabekoak izanik. Tenperaturei dagokionez, atzo baino zertxobait altuagoak izango dira. Haizeak ahul joko du iparraldetik.

### Itsasoa

Iparrekialdeko haizea 2-3ko indarrarekin. Bisibilitatea: Nahiko ona. Hondoko itsasoa: Apenas izango da. Itsas-haizeari dagokionez, itsas-kirria.

**Atzoko minimoak aireportuetan**

| | |
|---|---|
| Bilbo | 16 |
| Donostia | 16 |
| Gasteiz | 12 |
| Iruñea | 13 |
| Miarritze | 17 |

## DENBORAPASA

ENBIDO

### GURUTZEGRAMA




**EZKER ESKUIN :** 1.- Banatuak. 2.- Danbor motak. Garra. 3.- Indarra. Bizkaieraz, garbitu. 4.- Iparretarrak. Potasioaren sinbolo kimikoa. Izan dadila. ... egin, goitik ari. 5.- Katea. Haur. Uranioaren sinbolo kimikoa. 6.- Ezeztatu. Antzerki mota. 7.- Mila. Lutezioaren sinbolo kimikoa. Arakatuak. 8.- Bizkaieraz, eramanak. Eduki, izan.

**GOITIK BEHERA :** 1.- Sasiko. 2.- Mendiko ateak. Röntgen. 3.- Herriko alternatiba. Arto opilez eginiko opila. 4.- Legegizona. 5.- Baieztatzeko. Espainiako alderi politikoa. Nitrogenoaren sinbolo kimikoa. 6.- Emakumezkoa bere gurasoekiko. Malagako ibilgailuetan. 7.- Sodioaren sinbolo kimikoa. Bigarren bokala. Toka, du. 8.- Nekea. 9.- Kontsonantea. Abar txiki eta meheak inausi. 10.- Iparraldean, maiz. Alderantziz, ume. 11.- Auzategi. Argentinako talde armatu parafaxista. 12.- Esnea biltzeko zurezko ontzia. Kino hitzaren kontsonanteak.

E-211

**AURREKOAREN SOLUZIOAK**

A: 1. Kalteak. 2. Alkate. 3. Katea. 4. Atea. 5. Eta. 6. Zeta. 7. Atzea. 8. Etzana. 9. Banatze.

B: 1. Lerratu. 2. Elurra. 3. Lurra. 4. Urra. 5. Ura. 6. Urka. 7. Urkia. 8. Urriak. 9. Ikurrak.

11.48: **AURKEZPENA.**

11.50: **DRAGOI BOLA.** Marrazki bizidunak.
Mendi batetan hazi den mutiko basati baten abenturak agertzen dira. Egun batetan, neska eder baten bisita izaten du. Neskak 'Dragoiareen zazpi bolen' bila dabil, kondairak dioen arabera, zazpiak lortzen dituenari, dragoia agertu eta desio bat emango dio.

13.00: **ATRILA.** Musika saioa.

14.00: **GAUR EGUN.** Albistegia.

14.20: **DONOSTIAKO HAMABOSTALDIA.** Laburpena.

14.55: **H 2 ROCK.** Musika saioa.

16.25: **UDAKO ZINEA: «GLOBO SALTZAILEA».** Filmea.

18.00: **UMOREA.**

18.35: **HAREAK ESTALITA.**

19.00: **CAGNEY ETA LACEY.** Telesaila.
'Neska laguntzan bortxatua'. Cagney eta Lacey detektibeak, bortxturik izan den neska baten kasua aztertzen dute.

20.00: **GAUR EGUN.** Albistegia.

20.20: **FUTBOLA: BRUJAS-BARCELONA.** Kirol saioa.

22.30: **GOLFA: EE.BBKO PGA TXAPELKETA.**

00.00: **KONTZERTUA: WOMACK & WOMACK.**

01.00: **AMAIERA.**





**ETB-REN** lehenengo katean, EEBBetan jokatzen ari den golfeko PGA torneoko azken finala zuzenean ikusteko aukera izango da gaueko 10.30ak inguruan. EEBBetako golf jokalari profesionalen elkarteak antolatutako txapelketa honetan, goiko argazkian agertzen den Nick Faldo bezalako golf jokalari onenak parte hartzen ari dira. Igandean berriz, 'Kirolez kirol' saioan eskainiko dute egun bertako saioa.

## Javier Gurrutxaga eta Los Panchos ETB-2n

ETBk bere bigarren katetik larunbatero eskaintzen duen 'Entre amigos' ikuskizunean, Juan Pardo, Albano eta Romina Power, R.S.P., Los Panchos, The Daughters, Adamo, Maria Jose Santiago, Sabrina, Javier Gurrutxaga eta Rozlyne Clarke izango dira, besteak beste.

**ETB-2 / 21.15etan.**

## Musika klasikoa eta Latoya Jackson

TVEko bi kateetatik eta ordu desberdinetan, musika klasikoa eta Latoya Jackson abeslaria ikusteko aukera izango da. Musika klasikoari dagokionez, goizeko 10etan izango da lehen katean eta 'Suisse Romande' orkestraren eskutik. Latoya Jacksonen kontzertua berriz, bigarren katean arratsaldeko 3rak aldera eskainiko da.

**TVE-1 / 10.00etan.**
**TVE-2 / 15.00etan.**



### ETB 2

11.48: **Aurkezpena.**
11.50: **Dragoi bola.** Errepikapena.
13.00: **Atrila.** Musika saio.
14.00: **Maritrapu eta Mattintrapuren abenturak.**
14.30: **Teleberri.** Albistegia.
14.50: **Benson.** Telesaila. 'Conflicto de intereses'.
15.15: **Las postales de Clive-James.**
16.15: **Mar a mar.** Errepikapena.



17.55: **En la salud y en la enfermedad.**
18.20: **Richelieu.** Telesaila.
19.20: **Cine 2 Sabado: «La juria del vicio».** Filmea.
21.00: **Teleberri.** Albistegia.
21.15: **Entre amigos.** Ikuskizuna.
23.15: **Mundo abierto.**

### tve1

07.59: **Aurkezpena.**
08.00: **Aventura 92.** Errepikapena.
09.00: **Ultimas preguntas.**
09.30: **La aventura de crecer.**
10.00: **Concierto.** Musika saioa.
11.30: **Seguridad en marcha.** Gidarientzako saioa.
12.00: **Loteria.**
12.45: **Generaciones.** Telesaila.
13.35: **Yo compro esa mujer.** Telesaila.
14.00: **Rockopop.** Musika saioa.
15.00: **Telediario 1.** Albistegia.
15.35: **Alfred J. Kwak.**
16.00: **Sesión de tarde.** Filmea. «La atlántida el continente perdido».
17.35: **Club Disney.** Marrazki bizidunak.
19.35: **A vista de pájaro.**
20.05: **Corrupción en Miami.** Telesaila.
21.00: **Telediario.** Albistegia.
21.30: **Informe semanal.** Saio informatiboa.
22.25: **Sabado cine:«La cosa».** Filmea.
00.20: **Sabado cine:«La estanquera de Vallecas».** Filmea.

### 2 tve

07.59: **Aurkezpena.**
08.00: **Babilonia.** Musika saioa.
09.00: **Dibuja-2.** Panpinak.



09.50: **Las aventuras de Jhon Silver.**
10.20: **Los contaminalos.**
10.30: **Cine para todos: «El gran desierto blanco».** Filmea.
12.00: **Noticias.** Albistegia.
12.05: **Mediterraneo.**
14.35: **Rapido.**
15.00: **Musical.** Musika saioa.
16.00: **Sábado deporte.**
20.00: **Noticias.**
20.15: **Narradores.**
21.30: **Cine Club: «La familia».** Filmea.
23.35: **Jose Maria Rodero actor.**
01.10: **Ultima sesión de cine: «Irene».** Filmea.
02.20: **Deporte noche.**

### TF1

08.15: **Télé shopping.**
08.50: **Club Dorothée.**
10.50: **Le Jacko Show.**
11.30: **Jéopardy!** Jokuak.
11.55: **Tournez... manége.**
12.30: **Le juste prix.**
13.00: **Le journal de la une.** Albistegia.
13.15: **Reportages.**
13.45: **La une est à vous.**
14.45: **Commissaire moulin.**
16.15: **Tiercé-quarté.**
16.25: **La une est à vous.**
18.00: **Trente millions d'amis.**
18.30: **Une famile en or.**
19.00: **Marc et Sophie.**
19.25: **La roue de la fortune.** Lehiaketa.
19.55: **Tirage du loto (1).**
20.00: **Le journal de la une.** Albistegia.
20.30: **Tapis vert.**
20.35: **Tirage du loto (2).**
20.40: **Fou rire.**
22.15: **Paparoff.**
23.35: **Formule sport.**
00.30: **TF1 dernière.**
00.45: **Au trot.**
00.50: **Mésaventures.**
01.45: **Intrigues.**
02.10: **Histoires naturelles.** Dokumentala.
02.35: **Côté coeur.**
04.20: **Musique.**
04.45: **Histoires naturelles.** Dokumentala.
05.35: **Intrigues.**

### A2

08.15: **Journal des sourds.** Gorrentzako albistegia.
08.35: **Samedi bonheur.**
10.35: **Hanna Barbera.** Marrazki bizidunak.
11.30: **Flash-info.** Albisteak.
11.35: **La planète des animaux.**
12.30: **Les maries de l'A2**
13.00: **Journal.** Albistegia.
13.35: **La planère de l'aventure.**
14.00: **Animalia.**
14.50: **Sport passion.** Kirol saioa.
16.40: **Miss manager.**
17.30: **Fleur bleue.**
18.25: **Le chevalier du labyrinthe.**
18.50: **L'homme qui tombe à pic.**
19.35: **La baby sitter.**
20.00: **Journal.**
20.45: **«La main de l'assassin».** Telefilmea.
22.15: **La nuit des étoiles filantes.**
00.15: **Les arts au soleil.**
00.25: **Journal.**
00.40: **La nuit des étoiles filantes.**
02.30: **Info.**
03.00: **Rockline.**
03.55: **Histoire coute.**
04.00: **Info.**
04.35: **De singe en singe.**
05.00: **Magnétosport.**

### FR3

08.00: **Samdynamite.**
10.00: **Guillaume Tell.**
10.25: **Continentales d'été.**
11.30: **Carré vert.**
12.00: **Flash 3.**
12.05: **Estivales.**
12.45: **Journal.**
13.00: **Eurotop.**
14.00: **Rencontres.**
15.00: **Maestro.**
16.00: **Le corps a l'ouvrage.**
17.00: **Contes et légendes du louvre.**
17.15: **La barque sacrée.**
18.00: **Mégamix.**
19.00: **Le 19/20.**
20.00: **Histoire parallèle.**
21.00: **Les temps du pouvoir.**



22.30: **Le dessous des cartes.**
22.40: **Soir 3.** Albistegia.
22.55: **Jazz memories.**
00.00: **Lola et quelques autres.**

## GAURKO FILMEAK

# Chicagoko gangsterrek eta Miamiko ikerlariek ez dute 'La cosa' menperatuko

BEGOÑA DEL TESO

Bi lapur sartuko dira gauerdian Vallecaseko estanko batean. Ederki berotuko dituzte Emma Penellak eta Maribel Verduk, Eloy de la Iglesia zuzendari zarauztarrak kamararekin zer demontre egin asmatzen ez duelarik.

John Dillinger Chicagoko ganster askoren burua, beste askoren beldur eta batzuren amets txakurra zen. Zinea izugarri gustatzen zitzaion. Gau batean, filme beltz bat ikusi nahi zuela aitortu zien laguntzaileei. «Hain dira 'graziosoak', jabetu al zarete nola isladatzen gaituzten?» esan omen zuen. Segurtasun neurri guztiak hartuta, zine aretora jo zuten eta hantxe, goxo, goxo, 'palomitak' jaten 'El enemigo público Nº 1' ikusi zuten denek. Irtetzerakoan, arerioak zain zeuzkaten. Tiroz jo zuten John Dillinger ganster zinezalea. Ikus ezazue berak ikusi zuen azken filmea.

'Strangers in the night'... bai, jakina, Frank Sinatra. Mafiakidea, gainera. Abeslari fina, aktore ez halamodukoa eta zinean, ikerlari gogor eta basatia. Frogarik nahi? 'Hampa dorada', T-5n.

Por zierto, noiztik ez zarete geratu Kevin Costnerrekin? 'Robin Hood' ikusi zenutenetik? Ene ba...! Zin dagizut berriro elkartuko zaretela. Gaur bertan, 'Tres bikinis y un soltero'.

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 09.05 | C+(f) | ○ | LE FACTEUR DE ST TROPEZ | 1985 | Richard Balducci | 90 m |
| 10.45 | TVE2 | ○○○ | EL GRAN DESIERTO BLANCO | 1958 | James Algar | 71 m |
| 15.30 | A3 | ○ | EL TEMPLO DEL ELEFANTE BLANCO | | Umberto Lenzi | 96 m |
| 15.30 | T5 | ○○○ | HAMPA DORADA | 1967 | Gordon Douglas | 111 m |
| 16.00 | TVE1 | ○○ | LA ATLANTIDA, EL CONTINENTE PERDIDO | 1961 | George Pal | 87 m |
| 16.25 | ETB1 | ○○ | GLOBO SALTZAILEA | 1945 | Z. Sakall | 100 m |
| 18.00 | A3 | ○○○ | EL ENEMIGO PUBLICO NUMERO UNO | 1934 | W. S. Van Dyke | 90 m |
| 19.15 | ETB2 | ○ | LA JAURIA DEL VICIO | 1982 | Gary Sherman | 94 m |
| 21.30 | TVE2 | ○○○ | LA FAMILIA | 1986 | Ettore Scola | 124 m |
| 22.00 | C+(e) | ○ | SOLTERAS Y CASADOS | 1989 | Nick Havinga | 90 m |
| 22.30 | A3 | ○○○ | LA DESAPARICION DE AIMEE | 1976 | Anthony Harvey | 99 m |
| 22.35 | TVE1 | ○○ | LA COSA | 1982 | John Carpenter | 105 m |
| 23.25 | C+(f) | ○ | LE ONZIEME COMMAND | 1988 | Paul Leder | 90 m |
| 00.30 | TVE1 | ○○ | LA ESTANQUERA DE VALLECAS | 1986 | Eloy de la Iglesia | 105 m |
| 00.55 | TVE2 | ○○ | IRENE | 1940 | Herbert Wilcox | 82 m |
| 01.00 | A3 | ○ | TRES BIKINIS Y UN SOLTERO | 1986 | Richard Brander | |
| 02.30 | A3 | ○ | EL MONSTRUO DE YUCCA FLATS | 1961 | Coleman Francis | 64 m |

○ TXARRA ○○ ESKASA ○○○ BALEKOA ○○○○ ONA ○○○○○ BIKAINA

### LA FAMILIA

**(La Famiglia)**
**Zuzendaria:** Ettore Scola.
**Aktoreak:** Vittorio Gassman, Stefania Sandrelli, Fanny Ardant.

Laurogei urte etxetik atera gabe... zigor ikaragarria? Ez, inola ere ez, plazer handia eta goxoa baizik... Bi ordu pantailaren aurrean eta etxe bateko geletatik ateratzeke? Ezinezkoa, loak hartuko gaitu eta... Ez horixe! Ettore Scola, Vittorio Gassman, Stefenia Sandrelli eta Fanny Ardanten konpainian baldin bagaude.

Beraiekin ez da posible, ezin liteke aspertu. Orduak eta orduak, egunak eta urteak emango ditugu solasean, bizitzari begira, historiari so zinea lagun dugularik. Hain dira samurrak kamararen mugimenduak. Hain finak pertsonaien erretratuak. Hain saminak han hemenka utzi eta jasotako oroipenak. Hain ederki menperatzen ditu Scolek zinean kontatzeko erak, neurriak, bideak eta bitartekoak.

### TRES BIKINIS Y UN SOLTERO

**(Sizzle beach USA)**
**Zuzendaria:** Richard Brander. **Aktoreak:** Kevin Costner, Terri Congie.

Aspaldiko kontuak ditugu. Seguru Kevin Costner ez dela filme horrekin gogoratzen. Seguru ahaztu duela. Hobe. Hain da erdipurdikoa, baldarra eta traketsa. Udako programazio bero eta lelo honi ederki egokitzen zaion lana dugu. Neska lirainak, are beroagoak, mutil goapoak eta ezer gutxi iraungo duten amodiozko istorioak. Kevinek egin zuen lehen lana da. Ez, desde luego, harro sentitzeko modukoa baina gauza bat esango dizuet, Robin eta otsoekin dantzan dabilena baino askoz naturalagoa, ganberroagoa eta maltzurragoa da bertako pertsonaia.

### EL ENEMIGO PUBLICO NUMERO 1

**(Manhattan Melodrama)**
**Zuzendaria:** W.S. Van Dyke. **Aktoreak:** Clark Gable, Myrna Loy, William Powell.

Betidanik izan dira lagunak, txikitatik. Biak dira jaioak New Yorreko auzorik txiroenetan. Biek aurkitu dute 'Eguzkiaren aldeko lekua'. Bata izen handiko legegizona dugu, bestea, berriz, gangster ospetsua. Eta orain, oraintxe bertan da garaia, biek elkarri aurre egitekoa. Zer gertatuko ote? 'Manhattaneko melodrama' du jatorrizko izenburua filme horrek eta melodrama da. Aintzinakoen antza harro eta kementsua du, aintzinakoen legez, gusto onarekin eta zine jakinduriarekin dira erabiliak malkoak eta tiroak. Eta, Zine arau guztiak gordeta.

### LA COSA

**(The Thing)**
**Zuzendaria:** John Carpenter.
**Aktoreak:** Kurt Russell, Wilford Brimley.

Mende askotan jainko ezezagunek ahaztua, izaki hori hor izan da, Articoko lautadetan. Duela 50 urte inguru suzko ikaragarria eman zien Howard Hawksek ekoiztu zuen 'El enigma del otro mundo-n' parte hartu zutenei. Gero, ixila, urte askotako ixiltasuna. Hiru Halloween gau pasa eta bizirik atera zen Carpenter beldurtu nahi du oraingoan, baina zuzendariak ederki dakizki eta darabilzki jendea izutzeko bitartekoak, beraz, alferrik egingo du borroka 'La cosa-k'. Eta gu? Tira, ia bi milioi dolar gastatu zituzten efektu berezi nazkante horietan eta gu, hain lasai, hain ondo. Hobeak ikusiak gara.



ETB2
ATRILA
Musika saioa
13.00



TVE1
CLUB DISNEY
Haurrentzako saioa
17.35



ETB1
EEBBko PGA TXAPELKETA
Golfa.
22.30



T5
ENTRE HOY Y MAÑANA
Saio informatiboa
00.10

**CANAL+**

08.40: **ABC World News.** 09.05: **Los 40 principales.** 10.00: **«Juicio a un menor». Filmea.** 11.30: **Survival. Dokumentala.** 12.00: **Transworld sport.** 13.00: **Del 40 al 1.** 13.55: **Redacción. Noticias.** 14.05: **El show de Tony Randall.** 14.30: **Primer plano.** 15.00: **«La caja de música». Filmea.** 17.00: **Charity Shield. Futbola.** 18.40: **«Lorna Doone». Filmea.** 20.05: **Redacción. Noticias.** 20.10: **Hallo Spencer.** 20.35: **Los chicos de Beverly Hills.** 21.00: **Deja la sangre correr.** 21.30: **Deporte verano.** 22.00: **«Solteros y casados». Filmea.** 23.30: **«El hombre del zapato rojo». Filmea.** 00.59: **«Ginger y Fred». Filmea.** 03.05: **La mujer que se casó con Clark Gable. Dokumentala.** 03.35: **Piezas.** 03.43: **«El hermano bastardo de dios». Filmea.** 05.24: **«El misterio de la dama blanca». Filmea.** 07.11: **«La hija del dragón». Filmea.**

**M6**

06.00: **Boulevard des clips.** 09.00: **Pour un clip avec toi.** 10.30: **M6 boutique.** 11.00: **Multitop.** 11.55: **Infoprix.** 12.00: **M6 express.** 12.05: **Mariés, deux enfants.** 12.25: **Météo des plages.** 12.30: **Parole de chien.** 13.00: **O'hara.** 13.50: **Supercopter.** 14.40: **Laramie.** 15.30: **Les espions.** 16.20: **Hit hit hit hourra.** 16.25: **Vic daniels, flic a los angeles.** 16.50: **Vegas.** 17.40: **L'homme de fer.** 18.30: **Les têtes brûlées.** 19.20: **Turbo.** 19.54: **6 minutes.** 20.00: **Papa schultz.** 20.35: **Le bal de l'école.** 22.15: **La faute.** 23.35: **6 minutes.** 02.00: **Venise.** 02.50: **Traditions de polynésie et de mélanésie.** 03.40: **La face cachée de la terre.** 04.05: **Culture pub.** 04.30: **La norvège.** 05.15: **Succès.**

**CANAL+**

07.00: **CBS evening news.** 07.25: **Décode pas bunny.** 08.25: **Canaille peluche.** 09.05: **«Le facteur de saint-tropez». Filmea.** 10.35: **«Le bayou». Filmea.** 12.30: **Flash info.** 12.35: **Jerry Lewis show Nº 11.** 13.05: **Cinéma dans les salles.** 13.30: **Le meurtre de Mary Phagan.** 15.25: **V.O.** 16.00: **Ceci n'est pas un objet surréaliste.** 17.05: **Snooker.** 18.00: **Canaille peluche.** 19.05: **Les allumés...** 19.35: **Top 50.** 20.30: **«La bataille de Santa Fé». Filmea.** 22.20: **La loi du tigre.** 23.25: **«Le onzième commandement». Filmea.** 00.55: **Golf.** 02.25: **«La croisière rose». Filmea.** 03.55: **«Le pigeon est de retour». Filmea.** 05.30: **«Coiffeur pour dames». Filmea.**

**TELE 5**

08.00: **Superguay sábado.** 12.00: **El gran chaparral.** 13.00: **Telecinco, ¿Dígame?** 15.30: **«Hampa dorada». Filmea.** 17.35: **Desde Palma con amor.** 19.15: **Sábado de acción. 'Helicóptero' eta 'Starsky y Hutch'.** 21.00: **Segundo matrimonio.** 21.30: **Lio gordo a bordo.** 22.00: **Sábado de humor.** 00.00: **Entre hoy y mañana.** 00.30: **La noche pícara: ¡Ay, que calor!** 01.15: **El inspector Derrick.** 02.15: **Amaiera.**

**A3**

08.00: **La guarderñia del sábado.** 10.30: **Salvados por la campana.** 11.00: **Viva la vida.** 11.30: **De tú a tú.** 13.00: **Centimetros cúbicos.** 14.00: **Embrujada.** 14.30: **Los héroes de Hogan.** 15.00: **Noticias.** 15.30: **Polvo de estrellas. «El templo del elefante blanco» eta «El enemigo público número uno» filmeak.** 20.00: **ENG.** 21.00: **Noticias.** 21.30: **Lo que se de mi. «La desaparición de Aimee», «Tres bikinis y un soltero» eta «El monstruo de Yucca Flats» filmeak.** 04.00: **Oh video.** 05.00: **Amaiera.**

**LA CINQ 5**

06.30: **Le journal permanent.** 07.15: **Youpi!** 10.25: **Chevaux et casaques.** 11.00: **Mille et une pattes.** 11.55: **Que le meilleur gagne.** 12.40: **Météo.** 12.45: **Le journal.** 13.20: **Formule 1.** 14.05: **Intégral.** 14.50: **La parade des héros.** 18.35: **Rires parade.** 19.05: **V.** 20.00: **Le journal.** 20.40: **Le journal des courses.** 20.45: **Unprivé nommé stryker.** 22.25: **Grain de folie.** 00.20: **Journal de la nuit.** 00.30: **Intégral.** 01.10: **La nuit sur la 5.**

## IRRATIA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Arrate Irratia. | FM 87.7 | Gure Irratia. | FM 89.6 |
| Bizkaia Irratia. | FM 102.6 | Irulegi Irratia. | FM 93.1 |
| Egin Irratia. | FM 103.0 | Segura Irratia. | FM 89.2 |
| Euskadi Irratia. | OM 1.161 | Xiberoko Botza. | FM 98.6 |
| Euskalerria Irratia. | FM 91.0 | Xorroxin Irratia. | FM 107.5 |
| Gipuzkoa Herri Irrat. | FM 99.8 | Zintzilik Irratia. | FM 101 |

**Arrate Irratia.** Goizeko 10.40etan, Ermua eta Eibarko azoketako berri. Arratsaldeko 8.30etan, 'Euskal giroan' gaueko 10.30ak arte euskal musika, jaien aipamena, euskarazko ikasgaia eta 'Kantu eta kontu zarrak', aiton-amonak gure estudioetan grabatutako aintzinako kantu, bertso zahar eta lehengo ohitura eta ipuinak.

**Egin Irratia.** 'Kale gorrian' irratsaioaren barnean, Edorta Jimenez izango da gure artean eta asteko errepasoa egingo dugu ikuskizun nagusiekin. 10.00ak pasatxo, 'kalean topo' saioan, Josu Iztueta izango da laguntzailea. 11.00etako albisteen ondoren, kultur agendaren barnean, Leitzako jaien berri izango dugu. Azkenik, ohizkoa den bezala, gure hondartzen egoera ezagutu eta entzuleen tarteak izango ditugu.

**Gasteiz Irratia.** 08.00etan albisteak. 8.10etan, 'de pelicula' saioa. 08.30etan, 'campanas alavesas'. 09.00etan, albisteak. 09.10etan, medioak. 10.00etan, 'plaza nueva'. 14.00etan, albistegia. 14.30etan, kirolen saioa. 14.50etan, 'la llamada'. 15.00etan, 'Club de amigos'. 16.00etan, 'Café y concierto'. 17.00etan, 'Euskadi Gaztea'.20.00etan, albistegia. 20.30etan, kirol saioa. 21.00etan, euskal musika. 22.00etan, albiste laburpena. 22.10etan, 'local de ensayo' saioa. 24.00etan 'bateria eta kontrabajo'.

EGUNEKO DIANAK

**'Urumea Garbia' martxa**

Urumea garbiaren aldeko ibilaldia egingo da bihar eta eskualde honetan udan metatzen den zabor pila salatuko dute. Hernaniko Eguzki taldea, Ereñotzuko Ola auzo elkartea, eta Goizueta eta Aranoko gazteek antolatu duten martxa hau eguerdiko 12etan hasiko da bi puntutik: Goizuetatik abiatuko dena eta Hernaniko Ereñozu auzoan hasiko dena / 8

**Kroaziako Gobernua**

Zdravko Tomac Kroaziako lehendakariordearen hitzetan, gutxiengo serbiarrarekin negoziatzeko prest agertu zen atzo Kroaziako Gobernua. Lehendakariordeak esan zuenez, «Gobernu hau bakea lortzeko edozer gauza egiteko prest dago, Kroaziako lurralde osotasuna eztabaidan jartzen ez den bitartean» / 17

**Iñaki Almandoz**

Zuzendaritzak egindako aholkua bereganatuz, Askatuak Saskibaloi Taldeak Gipuzkoako Foru Aldundiak 'Leitzarango Autobidea' lemapean eskainitako sponsorra onartu egin zuen herenegun gauez. Iñaki Almandoz taldeko lehendakariak EGUNKARIAri adierazi dioenez, «bi alderdiekin hitzegin eta gero ikusi genuen Leitzarango trazatuaren gatazka konponbidean egon zitekeela eta horregatik eman genuen pausu zail hau» / 22

**CAMPSA desmonopolizatzea**

1992an Estatu Espainolean CAMPSAk orain arte izan duen petrolio monopolioa desegin egingo da. Halaxe bait dio Europako Ekonomia Elkarteak ezartzen duen agindua. Praktikan, ordea, desmonopolizazioa ez da osoki gauzatuko eta monopolio zaharraren oinordekoek, neurri handi batean, Espainiako merkatu estatala kontrolatuko dute indartsu / 15

# Joseph Garat: «Itsasoa da ene bizitzaren jabea»

MIXEL ESTEBAN / **BAIONA**

Joseph Garat kapitaina nahiko ezaguna da Lapurdi kostaldeko itsas munduan. Hirurogeitabost urte ditu eta bere hamalau urtetatik bizitza itsasoari eman dio.

Gazte gaztetik, hamalau urte zituelarik itsasontzi batean arrantzan hasi zen. Bidarte bere sorlekutik ez urrun hasi zen lanean, hain zuzen Getariako portu ttipian. «Arrantza eskolarik ez zen garrai hartan eta lana ikasteko, battel bat atxeman behar genuen; Getariko barkuko patroiek gazteak hartzen zituzten eta urte baten buruan, 1942an Donibane Lohizuneko atun ontzi patroi batek hartu ninduen, Koxe Mari Elduaien izena zuen eta hiru urte buruan, arrantzalea izan nintzen» dio Joseph Garatek.

Ondoren, 1945ean, soldadutza egin zuen 'La Royale' izena zuen frantses itsas armadan. «Jeanne DÁrc eskola itsasontzian nintzen eta hartan bi urte pasatu nituen, hirurehun mariñelak baziren eta tartean hamabi euskaldun gehi Hourcade komandantea, donapauletarra. Gure artean euskaraz ari ginen eta xahakoa erabili genuen askotan, baita ere gure komandantearekin» azpimarratu digu Garat kapitainak.

Soldadutza egin ondoren, Joseph Garat Donibane Lohizune-Ziburuko herrietara itzuli zen lana egitera baina ez baitzen lanik arrantzan, Bordelera joan zen lan bila merkatal ontzietan. «Hasi nintzen merkatal ontzietan mariñela bezala, 1947 eta 1949 tartean. Ari ginen emigranteak garraiatzen Bordeletik Buenos Aireseraino» esan du Joseph Garatek. Ondoren ikatz garraioko ontzian lan egin zuen



MIXEL ESTEBAN

Garatek Frantzia, Polonia, Inglaterra eta Estatu Batuen artean.

1953an ikasketak egin zituen eta teniente titulua lortu. 1958an kapitaina izenpetua izan zen etsamina pasa ondoren. Itsas konpani batentzat lana egin zuen 1970. urte arte. Gero Aljeriako konpania batean sartu zen. «Aljeriarrek, ni eta beste kanpotiar batzuk engaiatu gintuzten arabiar herri honen merkatal ontziak erabiltzeko. Han kroatar bat ezagutu nuen, Boris Lisovic, eta berarekin harremanak atxiki ditut. Duela gutti telefonatu nion. Hango egoeraren berri kontatu zidan eta Euskal Herrira etortzea proposatu nion, zerbait grabea gertatzen bada Yugoslavian».

Garat kapitainak Aljeria lau hilabeterako utzi zuen 1971n, Donibanera joateko eta Soubelet anaien arraina hormatzeko itsas ontzian berri baten gidaria hartu zuen. Itsas ontzi berri horiek fite desagertu ziren eta Joseph Garat Algeriara joan zen berriz. Algeriako itsasoko konpania nazionalarentzat lana egin zuen 1981. urte arte.

Urte hartan, lana utzi zuen eta Ziburura sartu zen, baina itsasoarekin harremanak atxikitzen ditu. Itsas Begia elkartearen sortzailea da, itsas ontasun historikoa ikertzeko eta zaintzeko. Orain Credit Maritime bankuko administrazioko kontseiluko partaidea da Garat kapitaina.

**SOSLAIA**

## *Itsas hiztegiaren egilea*

*Beste herrietara joan arren, betidanik, Garat kapitainak euskara atxiki du. «Ahantzi nuen pixkat baina, Euskal Herrira itzuli nintzenean berriz hasi nintzen euskaraz mintzatzen. Kanpoan euskara gutti erabili nuen, baina nere oharrak beti euskaraz idatzi nituen». Hala ere, oroitarazi behar da, Garatek euskarazko itsas hiztegi bat plazaratu zuela. Orain euskara erabiltzen du Garat kapitainak. Alabaina, Gure Irratiko berriemalea da.*

LERRO GUTXITAN

## Atlantis astrountzia gaur goizean abiatu da bost bidaiarirekin

Bi saiakuntza antzu eta gero, atzo goizeko 11.02etan aireratu zen 'Atlantis' transbordadore espaziala, EEBBetako Cabo Cañaveral herriko basetik. Lau gizaseme eta emakumezko batekin osatutako tripulazioa bederatzi egunetan izango da espazioan, telekomunikaziorako satelite erraldoi bat martxan jartzeko asmoarekin. 120 milioi dolarreko aurrekontua duen eginkizunak (13.200 milioi pezeta, 660 milioi libera inguru) eta atzerapen asko izan ditu azken egunotan. 'Suttle' izeneko espazio egitasmoak indargabeturik dagoen satelite berri bat behar dituen konponketak egitea du helburu.



**URAK** itota baina oraindik egarriak omen daude Austrian. Lehengo astean hasitako eurijasen eraginez oraindik hiri asko urez gainezka dauden arren, jendeak egunerokoari eutsi dio berriz. Adibidez, argazkian goardasola azpian dagoen gizonak ez du etsi eta eguneroko basoerdi ardoaren bila doa, direnak eta ez direnak asmatu behar izan baditu ere.

ETA BIHAR

## Dinosauruak Donostian

Herenegun Donostiako San Telmo museoan zabaldutako erakusketa berezi baten berri emango dugu bihar EGUNKARIAn. Argazkiez edertuiko erreportaian dinosauruen berri grafikoa izango dugu.



JOXEAN GOYA

ONCE

| | |
|---|---|
| ASTELEHENA | 98.344 |
| ASTEARTEA | 94.229 |
| ASTEAZKENA | 87.906 |
| OSTEGUNA | 87.360 |

**KUPOITZARRA**
OSTIRALA
**55.693**
098. SERIEA

DONOSTIA OIARTZUN ARRASATE
Café de Colombia
Zure etxeko kafea.
Zaporea, lurrina...bereziena...
kolombiarra ehunetik ehun.
Kolombiako kafearen agiria duen Euskal Herriko etxe bakarra.
LA CASA DEL CAFE
San Martzial, 19. DONOSTIA Tel.: 424512 ARRASATE Tel.: 790346 OIARTZUN Tel.: 491642